

IMMIGRANTEEN IBILBIDE PROZESUA: ESPAINIAN AURKITZEN DUTEN EGOERA

KRIMINOLOGIAKO GRADUA

2021/2022 Ikasturtea

Egilea: Iraitz Altuna Gastesi

Zuzendaria: Izaro Icuza Sánchez

LABURPENA

Immigrazioaren gaia, urte askotan oso eztabaidatsua izan da gizartearentzat. Aurreiritzi asko izan ohi ditugu etorkinen inguruan, baina, batez ere, modu irregularrean dauden etorkinen inguruan. Hau dela eta, ikerlanaren lehen zatian, bilaketa bibliografiko bat gauzatu da immigranteen ibilbide prozesua aztertu ahal izateko eta zehazki, Espainiara iristen direnean zein egoeratan aurkitzen diren behatzeko. Lanaren bigarren zatia, emakume etorkinetan zentratu nahi izan da, eta honetarako, hurbilketa praktikoa egin da, zenbait elkarrizketen bitartez. Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili da, eta elkarrizketa ireki sakonak egin dira, gidoi erdi egituratu batetik abiatuta. Honen bitartez, emakume etorkin hauen bizitza istorioak ezagutarazi dira.

Hitz gakoak: Immigrazioa, etorkinak, jatorrizko herrialdea, egoera administratiboa, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak, kualitatiboa, bizitza istorioak.

AURKIBIDEA	
SARRERA	6
I. KAPITULUA: MARKO TEORIKOA	9
1. MIGRAZIO PROZESUA ESPAINIAN	9
1.1. ETORKINEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	9
Jatorrizko herrialdea	10
Adina eta sexua	12
1.2. ESPAINIARA IRISTEKO IBILBIDEAK ETA GARRAIOBIDEAK	13
Immigrazio ibilbideak: Iristeko bide nagusiak	13
Espainiara iristeko erabilitako garraio bideak	16
1.3. IMMIGRATZEKO ARRAZOIAK	17
2. ATZERRIKO BIZTANLERIA ETA EGOERA ADMINISTRATIBOA	19
2.1. ENPLEGUA	20
2.2. ETXEBIZITZA	23
2.3. OSASUN LAGUNTZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK	25
3. ATZERRITARRAK BARNERATZEKO ZENTROAK ESPAINIAN (ABZ)	30
(Centros de Internamiento de Extranjeros (CIE))	30
3.1. ZER DIRA ABZ-AK?	30
3.2. NORTZUK SARTZEN DIRA ABZ-ETAN?	32
3.3. BARNERATUTA DAUDEN ETORKINEN EGOERA	34
4. ONDORIOAK	40
II. KAPITULUA: ALDERDI PRAKTIKOA ELKARRIZKETEN BIDEZ	46
1. DISEINU METODOLOGIKOA	46
1.1. PROIEKTUAREN GIZARTE BALIOA	47
1.2. GIZAKIEN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA	47
1.3. IKERKETA-MOTA	48
2. IKERKETA-PROZESUA	49
3. BIZITZA ISTORIOAK	51
1. ELKARRIZKETATUA: NIKARAGUA	51
2. ELKARRIZKETATUA: BRASIL	58

3. ELKARRIZKETATUA: GHANA	64
4. ELKARRIZKETATUEN BIZIPENEN ALDERAKETA	70
5. ONDORIOAK	76
III. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA	79
ITURRIAK	83
LEGEDIA	86
ERANSKINAK	87
1. ERANSKINA: Elkarrizketa gidoia	87
2. ERANSKINA: Baimen informatuak	89

LABURDURAK

ABZ: Atzerritarren Barneratzeko Zentroak

CEAR: Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EB: Europar Batasuna

FRONTEX: Mugen eta Itsasertzen Guardiako Europako Agentzia

INE: Instituto Nacional de Estadística

LOEx: Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa

ONG: Organización No Gubernamental

ZK: Zigor Kodea

SARRERA

Immigrazioa gizartean eztabaida ugari sortu izan dituen fenomeno konplexua da. Etorkinen mugimendu fluxuak duela urte askotatik eman diren arren, azken hamarkadetan areagotu egin dira. Askotan, immigrazioarekiko herritarrok konnotazio negatiboa izan ohi dugu eta pentsamendu hauek modu batean komunikabideek sustatzen dituzte. Etorkinen etorreren inguruko notizia ugari argitaratzen dira, normalean, errealitatearekin bat egiten ez dutenak. Hau dela eta, datu errealen baitan, ikerlan honen helburuetako bat etorkinei buruz izan ditzakegun estereotipoak nahiz aurreiritziak deuseztatzea izango da.

Lan honen aukeraketa, immigrazioaren ezjakintasunetik dator. Nire bizitzan zehar etorkinekin topo egin dudana arren, ez dut inoiz planteatu izan zer nolako esperientziak bizi izan dituzten, eta are gutxiago, beraien immigrazioaren ibilbide prozesua nolakoa izan den. Ezjakintasun honen aurrean piztu zitzaidan jakin-minak, gaia unibertsitatearen eremura ekartzera eraman nau. Honela, medioetan etengabe agertzen den gai bat eztabaidatzeko aukera izan dut, Euskal Autonomia Erkidegora immigratu duten emakumeen kontakizunak, lanaren alderdi praktikoan landuz.

Ikerketa honen helburua bere garaian jatorrizko herrialdetik Espainiara etortzea erabaki zuten emakume etorkin talde baten bizitza istorioak ezagutzea da. Honez gain, beste helburuetako batzuk, emakume etorkin horien bizipen subjektiboen bidez informazioa biltzea eta haien bizipenen alderdi garrantzitsuak ezagutzea da. Oro har, beraien jatorrizko herrialdeetan zuten egoera aztertu nahi da, jakiteko zerk bultzatu zituen Espainiara etortzeko, zehazki, EAera etortzeko. Behin hona etorrira, hemen daramatzaten urte guztietan zein egoeratan aurkitu diren behatu nahi da. Aurrerago zehaztuko den arren, hainbat egoera ezberdin aztertu nahi dira: egoera administratiboa, enplegua, etxebizitza, integrazioa...

Idea horretatik abiatuta, aipatutako helburuak lortzeko, alde batetik, immigranteen ibilbide prozesuari buruzko esparru teorikoaren azalpenari dagokion zati teoriko bat garatzen da (I. kapitulua), eta, bestetik, gidoi erdi egituratua duten elkarrizketa sakonen metodoaren bidez egindako ikerketa kualitatiboa eta bizitza istorioak (II. kapitulua), azkenik, ikerketaren emaitzak eta eztabaida (III. kapitulua).

Lehen kapituluaren barruan, immigranteen ibilbide prozesuari dagokion marko teorikoa landu da. Alderdi teorikoa, lau zati nagusitan landu da: Lehenik, Espainian dagoen migrazio prozesua landu da, honen barnean etorkinen ezaugarri soziodemografikoak eta Espainiara iristeko ibilbideak eta garraiobideak zeintzuk diren aztertu direlarik. Zati honekin, Espainian dauden mugimendu fluxuak nolakoak diren eta migrazio prozesua nola ematen den landu nahi izan da. Bigarrenik, atzerriko biztanleria eta egoera administratiboari dagokion puntua landu da, honekin, etorkinek Espainian aurkitzen duten egoera nolakoa den aztertu da: Enplegua, etxebizitza nahiz osasun laguntza eta gizarte zerbitzuak analizatuz. Marko teorikoarekin amaitzeko, hirugarren puntuan, Espainian aurki ditzakegun Atzerritarren Barneratzeko Zentroak aztertu dira. Honen barnean, zentro hauek zer diren, nortzuk sartzen diren eta barneratuta dauden etorkinen egoera ezagutu da. Laugarren puntua, marko teorikoa landu ostean atera diren ondorioei eskainitakoa da.

Ondoren, bigarren kapituluan, ikerketa enpirikoa egiten da, “Immigranteen ibilbide prozesua: Espainian aurkitzen duten egoera” izenburua duena, fenomenoarekiko hurbilketa kualitatiboa lortzeko, elkarrizketa sakonen bidez ezaugarriak, bizipenak eta aldagaiak aztertuz.

Aipatutako helburua lortzeko eta horretarako informazioa lortzeko ikerketa-tresna gisa, metodologia kualitatiboa erabili da. Zehazki, hiru elkarrizketa ireki sakon egin dira, gidoi erdi egituratu batetik abiatuta, elkarrizketatutako kolektiboaren (emakume etorkinen) egoera testuinguruan kokatzeko eta bizitza istorioak ezagutzeko.

Ikerketa, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren hiru emakume etorkinek osatzen dute. Hiru emakumeren kasuan, elkarrizketa egiteko modua aurrez aurrekoa izan zen, hiru kasuetan, lokal batean gauzatu zirelarik.

Elkarrizketatuen datuak lortzeko funtsezko aldagaiak honako hauek dira: Egoera soziodemografikoa (elkarrizketatuen nazionalitatea, non bizi izan diren), migrazio-prozesua (noiz eta nola erabaki zuen immigratzea), egoera administratiboa (nolakoa izan zen legezatzeko prozesua), enpleguarekin, etxebizitzarekin eta ekonomiarekin lotutako gaiak (zein lanpostu eduki dituen, etxebizitza bat alokatzeko zailtasunak izan zituen ala ez), Atzerritarren Barneratze Zentroekin lotutako gaiak

(barneratuta egon den norbait ezagutzen duen), integrazio prozesua eta Espainiaren espektatibak (nolakoa izan den integratze prozesua, diskriminaziorik sufritu al duen).

Ikerlana egin ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen eskema jarraitu da, eta elkarrizketatuen baimena lortzeko baimen informatua erabili da. Dokumentu honen bitartez, elkarrizketatuek baimena eman didate beraien ahotsa grabatu eta beraien bizipen pertsonalak lanean zehar erabiltzeko.

Azkenik, hirugarren eta azken kapituluan, lan enpirikoaren emaitzak eta eztabaida jasoko dira. Zati honetan, marko teorikoan landu diren esparru ezberdinak eta alderdi enpirikoan lortu diren emaitzekin, errealitatera salto egingo da. Hau da, teoria eta praktika zenbateraino diren bateragarriak ikusiko da, honekin hainbat hausnarketa gauzatzeko asmoz.

I. KAPITULUA: MARKO TEORIKOA

1. MIGRAZIO PROZESUA ESPAINIAN

1.1. ETORKINEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Migrazioen Nazioarteko Erakundearen datuen arabera (OIM), Espainia nazioarteko migrazioen helmugako 20 herrialde nagusietako bat bihurtu da. Zehazki, Espainia hamargarren postuan dago Estatu Batuak, Alemania, Errusiako Federazioa, Saudi Arabia, Erresuma Batua, Arabiar Emirerri Batuak, Kanada, Frantzia eta Australiaren ondoren (CES, 2019). Baina, zergatik da Espainia sarrera ate nagusia atzerritarrentzat? Beharbada, baliteke bere kokapen geografikoagatik izatea. Aurrerago hobeto azalduko den arren, Afrikatik oso hurbil kokatuta dago, eta honek ahalbidetzen du etorkinak itsasoaren bitartez sartzea edo Ceuta eta Melillatik lurreko sarbidez sartzea.

Espainiako gizartearen kezka nagusietako bat immigrazio irregularrarekin zerikusia duena da. Espainiar hiritarrentzat, modu irregularrean dauden etorkinak behin eta berriz etortzen dira gure kostaldeetara kaiukoek bitartez, baina kontuan hartu behar da immigrazio mota hori, kaiukoetan datorrena, irregulartasunaren fenomenoaren zati bat baino ez dela. Kaiukoek ez dakarte berekin herrialde honetan bizi den immigrazio irregularraren %100a, eta honek ez du esan nahi Espainian modu irregularrean bizi diren etorkin guztiak hirugarren herrialdeetatik datozenik (Ortega Ruiz, 2012).

Immigrazioaren Valentziako Behatokiak 2011ko ekitaldiari buruz egindako txostenaren arabera (“Inmigrantes y Extranjeros regulares e irregulares en España”), gure herrialdean 2010ean 900.000 pertsona baino gehiago bizi ziren modu irregularrean, eta 4 milioi baino gehiago, berriz, modu erregularrean (Ortega Ruiz, 2012). 2017ko datuei erreparatzen badiegu ordea, modu legalean etorri ziren atzerritarrak guztira %79 izan ziren (CES, 2019). Honen arabera beraz, espainiar askok etorkin irregularrei buruz eduki dezaketzen pentsaera deusezta dezake. Izan ere, Espainiara etortzen diren etorkin gehienak modu erregularrean bizi dira.

Zati honetan, Espainiara eta Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) iristen diren etorkinen inguruko ezaugarri soziodemografikoak landuko direnez, bereziki, immigrante hauen jatorrizko herrialdeari, adinari eta sexuari buruzko datuak emango dira. Espainiako datuak aztertu ahal izateko, Espainiako ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 2019an argitaratu zuen txostena “*Informe. La inmigración en España:*

Efectos y oportunidades” erabili da. Bestalde, EAEko egoera behatzeko Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak eman zuen panoramika “*Población de origen extranjero en la cae 2021*” landu da.

Jatorrizko herrialdea

Espainiako etorkinei dagokienez, 2017ko datuei erreparatzen badiegu ordea, atzeritarren jatorri-eremu nagusiak honako hauek dira, ordena honetan: Europar Batasuna, Afrika eta Hego Amerika. Jatorrizko kontinenteen arabera, beraz, erakusten du Espainian dauden etorkin gehienak, Europar Batasuneko nazionalitate propioak dituzten pertsonak direla, atzerriko biztanleria osoaren %39 hain zuzen. Ondoren, Afrikatik etorritakoak egongo lirake (%23), eta Hego Amerikatik etorritakoak (%17) (CES, 2019). Zifra hauek, zehazki, egoera legalean aurkitzen diren etorkinei egingo lieke erreferentzia, hain zuzen, etorkinen %79ari.

Orain eman berri diren datuak harrigarriak dira. Hain zuzen ere, komunikabideetan ematen den informazioarengatik, herritarrok dugun pertzepzioa guztiz ezberdina da. Medioek notizia¹ pila bat ematen dituzte ia beti modu irregularrean dauden immigranteen inguruan. ABC Canarias egunkariak argitaratutako notizia bat adibide gisa hartzearen, irakurritz gero, badirudi orokorrean Espainiara sartzten diren immigrante guztiak pateren eta kaiukoak bitartez sartzten direla eta gainera, pila bat sartzten direla.

Aldiz, hemen ikusten dugu atzerriko biztanleria guztiaren ia %80a modu legalean bizi dela Espainian eta are gehiago, ia %40a Europar Batasuneko dela, eta ez Afrikakoa komunikabideetan azaldu ohi den moduan. Aurrerago aipatu den moduan, itsaso bidez kaiukoetan heltzen diren afrikarren ehuneko oso altua dela dirudi. Aldiz, notizietan oso gutxitan aipatu ohi da airez, hots, hegazkinez heltzen diren etorkinen kopurua. Zehazki garraibideen atalean aurrerago zehaztuko den arren, aipatzekoa da, kaiukoetan datozen etorkinen ehuneko oso oso txikia dela eta aldiz, airez sartzten direnena oso altua.

¹ Bautista, L. (2021eko abuztuaren 12a). “Alertan de una avalancha de cayucos hacia Canarias en octubre”, *ABC Canarias*. https://www.abc.es/espana/canarias/abci-alertan-avalancha-cayucos-hacia-canarias-octubre-202108120155_noticia.html?ref=https%3A%2F%2Fwww.google.com%2F

Espainiako datuak ikusita beraz, ondoriozta dezakegu lurraldean dauden etorkin gehienak ordena mantenduz, Europar Batasunekoak, Afrikakoak eta Hego Amerikakoak direla.

Espainiako atzerritar biztanleriaren jatorria azterturik, Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen egoera aztertuko da. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2021ean eman zuen panoramikaren bidez.

2021eko urtarrilaren 1eko erroldaren behin-behineko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta dauden biztanleria osoaren %11,1 atzerrian jaio da. Atzerritar biztanleriaren jatorriari dagokionez, ikus dezakegu 2021ean EAEn erroldatutako atzerritarren erdia baino zertxobait gehiago (%51,7) Latinoamerikako herrialderen batean jaio direla. Latinoamerikaren ondoren, Europar Batasuna (%14,8) eta Magreb (%14,2) dira jatorrizko herrialde nagusiak. Azkenik, Saharaz hegoaldeko Afrika atzerritar guztien %7,1 da (Ikuspegi, 2019).

Latinoamerika izan da jatorrizko herrialderik garrantzitsuenak. Horrela, desberdintasun horien oinarrian euskal gizarteak dituen premiekin egiten dugu topo; izan ere, euskal gizarteak, hein handi batean, etxeko lanekin edo zaintza-lanekin lotutako profil batzuk eskatzen ditu (Ikuspegi, 2019).

Pertsona horien jatorrizko herrialdeei dagokienez, nagusienak Maroko, Kolonia eta Errumania dira. Latinoamerikako kolektiboaren pisuaren erakusgarri, jatorrizko hamar herrialde nagusietatik zortzi latinoamerikarrak dira (Ikuspegi, 2019).

EAEko egoera azterturik, ondoriozta dezakegu Espainiaren moduan latinoamerikarrak direla nagusi. Immigrante latinoamerikarrak gehienak izatea baliteke EAEko beharrezanekin guztiz lotuta egotea. Izan ere, jada aipatu dudan moduan, euskal gizarteak etxeko lanekin edo zaintza-lanekin erlazionatuta egon ohi baita eta baliteke latinoamerikarrek (bereziki, emakumeek) profil hori betetzea. Baliteke zaintza-lanez gain, hizkuntza ere faktore garrantzitsua izatea. Izan ere, EAERA iristean erabateko hizkuntza aldaketa ez egoteak lagundu dezake. Aipatzekoa da baita ere, Europar Batasuneko etorkinak nahiz Magrebekoak ere gehientsuenen artean daudela.

Adina eta sexua

Adinari dagokionez, atzerritar jatorriko biztanle gehienak (%80) lan-arloko adin-tartean daude. 2017an emandako datuen arabera, etorkinen zati handiena 18 eta 40 urte bitartekoen artean metatzen da (CES, 2019).

Sexuari dagokionez, etorkinen %49a gizonak direla eta %51a emakumeak direla ikusita, ondoriozta dezakegu ez dagoela alde nabarmenik bi sexuen presentziaren artean. Hala eta guztiz ere, emakumeek gero eta protagonismo handiagoa hartu dute migrazio-mugimendu berrienetan. Zehazki, 2017an, emakumeen immigrazioa guztizkoaren %51,1 izan zen. Amerikatik datozen mugimenduetan, datuek emakume gehiago erakusten dituzte beti (CES, 2019).

Ikuspegi Inmigrazioaren Euskal Behatokiak 2021ean eman zuen panoramikaren arabera, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak apur bat feminizatuta daude, hau da, emakume gehiago daude (%52,4) gizonak baino (%47,6). Hala ere, banaketa hori aldatu egiten da arlo eta jatorri desberdinei erreparatzen badiegu. Horrela, Afrikako kolektiboa gehienbat gizonezkoena dela ikusten dugu (Ikuspegi, 2019).

Beste muturrean, EAEn erroldatuta dauden latinoamerikar jatorriko pertsona guztien %61,2 emakumeak dira. Berriz ere, desberdintasun horiek ulertu behar ditugu euskal gizartearen beharrak eta arlo bakoitzak euskal lan-merkatuan sartzeko dituen aukerak kontuan hartuta (Ikuspegi, 2019).

Laburbilduz, mugimendu berrienen azterketek immigrazioaren gorakada erakusten dute, immigranteen jaiotza-herrialdeen aniztasun handiagoarekin, feminizazio handiagoarekin eta adin gazteen banaketa zertxobait txikiagoarekin (CES, 2019). Honez gain, ondoriozta daiteke amerikar kontinentetik datozen atzerritarren gorakada nabarmena eman dela azken urteetan, eta lurralde honetatik datozen etorkin gehienak emakumeak direla. Afrikatik datozen gehienak ordea, gizonezkoak izango lirarteke. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar Europar Batasuna immigranteen jaioterri nagusienetarikoa ere badela. Adinari dagokionez, etorkin gehienak lan-arloko adin tartean aurkitzen direla ikusi da.

1.2. ESPAINIARA IRISTEKO IBILBIDEAK ETA GARRAIOBIDEAK

Immigratio ibilbideak: Iristeko bide nagusiak

Migratio prozesuan, Espainiako lurraldera sartzeko moduak edo bideak hiru lirateke: aireko sarbidea, lurreko sarbidea eta itsasbidea. Lehenengoa, baimendutako aireportuei dagozkie; bigarrena, Ceuta eta Melillako mugei; eta hirugarrena, baimendutako portuei eta gure kostaldee (CESEDEN, 2006).

Kontuan hartu behar da ordea, alde handia dagoela aireko mugen (batez ere latinoamerikarrek erabiltzen dituzte), itsasoko mugen (afrikarrek aukeratzen dituzte gehienbat) eta erabilitako garraio bidearen (hegazkina, ferrya, patera edo “cayuco” motako ontziak, edo beste bitarteko batzuk, hala nola kamioi batean ezkutuan bidaiatzea) artean (Pérez, 2012). Etorkin gehienak airez eta modu legalean sartu dira gure lurraldera, Hego Amerikako eta Erdialdeko Amerikako etorkin gehienekin gertatzen den bezala; turista gisa sartzen dira, normalean bisarik gabe eta hiru hilabetez egon ondoren, bertan gelditzen dira bizitzen (CESEDEN, 2006).

Lehenago aipatu dudan arren, badirudi argitaratzen diren notizien ondorioz, airez sartzen diren etorkinen kopurua oso txikia dela. Gainera, goiko datuekin ikus daiteke Hego Amerika edo Erdialdeko Amerikatik datozen etorkin gehienak modu legalean sartzen direla. Honekin, komunikabideen ematen diguten informazioa kontrasta dezakegu. Izan ere, notizia honetan ikus daitekeen moduan², hauen baitan, itsaso bidez etortzen dira etorkin gehienak, zehazki, pateretan nahiz kaiukoetan datozen afrikarrak izanik.


FRONTEX³ Mugen eta Itsasertzen Guardiako Europako Agentzia da eta 2004an sortu zen Europar Batasuneko estatu kideei eta Schengeneko kide diren herrialdeei Europar Batasuneko zirkulazio askeko eremutik kanpoko mugak babesten laguntzeko (FRONTEX, 2021). Agentzia honek bere argitalpenetan, etorkinek erabiltzen dituzten ibilbide desberdinak sailkatzen ditu; besteak beste, lurreko edo itsaso bidezkoak kokapen geografikoaren arabera (ekialdea, erdialdea, mendebaldea). Itsasotik

² Pérez, R. (2021eko urtarrilaren 21a). “La avalancha de pateras desborda a la Policía en Almería” *ABC Andalucía*. <https://sevilla.abc.es/andalucia/almeria/sevi-avalancha-pateras-desborda-policia-almeria-202101210725-noticia.html>

³ Informazio gehiago ikus daiteke, FRONTEXen web orrian: FRONTEX (Agencia Europea de la Guardia de Fronteras y Costas) (2021). <https://frontex.europa.eu/es/>

Espainiarako migrazio irregularren etorreretan parte hartzen duten bi bideak Mediterraneoko mendebaldeko ibilbidea eta atlantikoa (Mendebaldeko Afrika) dira. Kanariar Uharteak dira Atlantikoko bidean Europar Batasuneko lurretara iristeko leku nagusia (DSN, 2019).

1. Figura. Espainiara sartzeko ibilbide nagusiak



Iturria: CEAR, 2016

sinatutako aldebiko akordioen ondorioz, eta FRONTEXek itsas mugako zaintza indartzearen ondorioz, iritsitakoak izugarri murriztu dira. Ibilbide hau erabiltzen duten migratzaileen jatorrizko herrialde nagusiak honako hauek dira: Maroko, Senegal, Niger, Nigeria eta Mali (CEAR, 2016).

Mediterraneo mendebaldeko ibilbidea

Turkia-Espainia eremua hartzen du, eta itsasoko zein lehorreko bideak hartzen ditu. Ibilbide hau aukeratzen duten pertsonen profila aldatu egin da. Duela hamarkada bat Marokotik edo Aljeriatik etorritako pertsonak ziren gehienak, eta gaur egun gatazketatik ihes egiten duten pertsonekin partekatzen dute bidea Malin, Sudanen, Nigerian, Sirian... batzuk aipatzearen (CEAR, 2016).

Ceuta eta Melillako lurreko mugak, Afrikako iparraldean kokatuta daude eta Espainiak Marokorekin partekatutako lurreko hiru muga ditu: Melilla, Velez de la Gomerako

Afrika mendebaldeko ibilbidea edo atlantikoa

Itsas ibilbide honek Afrikako herrialdeetatik (Senegal, Mauritania eta Maroko) Espainiako Kanariar Uharteetara arteko zeharkaldia hartzen du. Gaur egun bide hori asko erabiltzen ez bada ere, 2000ko hamarkadaren hasieran, Mendebaldeko Mediterraneoarekin batera, Europar Batasunera iritsitako migratzaile eta errefuxiatuentzako sarbide nagusia izan zen. (CEAR, 2016)

Espainiak eta Mauritaniak eta Senegalek

haitza, eta Ceuta. Velez de la Gomerako mugak ez du inolako igarotze-funtzio garrantzitsurik, Melillako eta Ceutako banalerroak berriz, Espainiak eta Europar Batasunak Afrikan dituzten bi muga baliodun bakarrak dira (DSN, 2019).

Ceuta eta Melillako lurreko mugak zeharkatzen dituen pertsona-mugimendu handiena Marokotik hiri horietara joaten diren oinezkoena da, eta alderantziz. Kanariar uharteekin batera, Ceuta eta Melilla dira Mendebaldeko Mediterraneoaren bidetik Espainiara eta Europara sartzeko lekuak (DSN, 2019).

Lurreko sarbidea aipatu bezala, Ceuta eta Melillako mugetatik egiten da. Espainiako Barne Ministerioak immigrazio irregularrari buruz eman zituen datuen arabera, guztira 2020an 1443 etorkin izan ziren eta 2021ean berriz 1632. Hemen ere, %13,1eko gorakada suma dezakegu (Ministerio del Interior, 2021).

Etorkin gehienak ordea, itsasoz iristen direnak dira. Barne Ministerioaren datuei erreparatuz gero, itsaso bidez etorritako immigranteak guztira 31.988 izan ziren, eta 2021ean berriz, 34.275. Hemen ikus dezakegu gorakada bat egon dela, hain zuzen, %7,1ekoa. Penintsulara nagusiki, Balear Uharteetatik, Kanariar Uharteetatik, Ceutatik eta Melillatik sartu dira, azken hauetatik ordea oso gutxi. (Ministerio del Interior, 2021) Andaluziako kostaldea ere aipatu beharrekoa da, izan ere, Motriletik (Granada), Cadizeko kostaldetik eta Andaluziako beste probintzia batzuetatik ere sartu ohi baitira etorkinak. (CEAR, 2016).

Laburbilduz, esan daiteke Espainiara sartzten diren etorkin gehienak airez sartzten direla, hain zuzen, immigrante iberoamerikarrak. Ondoren, itsasoz sartzten direnak kokatuko lirateke, hauek bi ibilbide mota erabiltzen dituztelarik; Afrika mendebaldeko ibilbidea (Kanariar Uharten ibilbidea bezala ezagutzen dena) eta Mediterraneo mendebaldeko ibilbidea (honek itsasoko nahiz lurreko sarbidea hartzen ditu). Azkenik, lurreko sarbidea legoke, hau ikusi dugun moduan, Ceuta eta Melillatik egiten den ibilbidea litzateke. Hau dela eta, ondoriozta daiteke lurreko sarbidea hautatzen duten immigranteak gutxiengoa direla airez sartzten direnekin alderatzen baditugu. Itsasoa ibilbide gisa hautatzen dutenak ere, aire bidez sartzten direnekin konparatuta askoz gutxiago dira. Beraz, esandako moduan, Espainiara etorkin gehienak airez sartzten dira nahiz eta herritarron pertzepzioa itsaso bidez sartzten direnena izan.

Espainiara iristeko erabilitako garraiobideak

Espainiara iristeko erabiltzen den garraiobidea, funtsean, immigrazioaren jatorriaren eta etorkinaren egoera ekonomikoaren arabera da. Gehien erabiltzen den sistema hegazkina da, eta ondoren lurreko sistemak daude (automobila). Bi sistema horien bidez, etorkin guztien ia % 88 sartu da (ENI, 2008).

Gainerako bitartekoak gutxiengo dira. Adibidez, kaiukoetan edo pateretan sartu ziren etorkinak oso portzentaje txikia izan zuten (%1), oso txikia gainerako garraiobideekin alderatuz gero, nahiz eta haien garrantzia soziala ikaragarria izan bidaiaren baldintza gogorregatik, muturreko arriskuagatik. Itsasontziaren bidez iristen diren etorkinak ere oso gutxi dira (10 etorkinetatik 1), eta trenez iristen direnen pisua ere txikia da, Espainiara iristen diren etorkinen % 1 baino ez (ENI, 2008).

Etorkinek erabiltzen dituzten garraio-sistemek aldaketa gutxi izan dituzte azkenaldian, guztietatik gailentzen den sistema hegazkina izanik. Ezaugarri hori Espainiara iritsitako etorkinen konposizio nazionalak azal dezake, bertan Amerikatik etorritako herrialdeak izan baitira ugariak (ENI, 2008).

Azkenaldian, hala ere, aldaketa txiki bat gertatu da: lurreko sarbideak erabiltzen dituzten etorkinen proportzioak gora egin du. Azkenaldian Espainiara iritsitako etorkin guztien herena izatera iritsi dira, eta horrek hegazkina sarrera-sistema gisa erabili zutenen kopurua murriztea eragin du. Automobilaren sistema partikularren eta, batez ere, linea erregularren autokarren hazkundera ikusgarria izan da 2002-2007 aldian, eta nabarmen murriztu dira beste baliabide batzuk erabili zituzten etorkinak. Azken urteetan Europako ekialdeko herrialdeetatik, batez ere Errumaniatik, etorritako biztanle asko etorri izanak azal dezake, hein batean, fenomeno hori. Herrialde horietatik datozen etorkinen zati handi bat linea erregularren eta autoen bidez iristen da (ENI, 2008).

Ondorio gisa, argi eta garbi ikusten da gehien erabiltzen den garraio mota hegazkina dela, ondoren automobila dagoelarik. Hegazkinean etortzearen faktorea, noski etorkinen jaioterriari lotu diezaiotegu, bereziki, iberoamerikarrek erabiltzen baitute. Garrantzia mediatiko izugarria paterek eta kaiukoek duten arren, behatu daiteke gutxien erabiltzen den garraiobideetako dela, zehazki, %1ek. Azken urteetan ordea, aldaketa txiki bat sumatu da; hain zuzen ere, Europar etorkinen gorakada bat egoteak, automobilaren

hazkundera eragin du, hegazkinen erabilera zertxobait jaitsiz. Hala eta guztiz ere, hegazkinak jarraitzen du garraio-bide sistema nagusia izaten.

1.3. IMMIGRATZEKO ARRAZOIAK

INEk 2007an Espainiara etortzeko arrazoiez galdetzean, erantzuteko aukerak askotarikoak izan ziren: lan-arloko motibazioak (enplegua bilatzea, enplegua hobetzea, lan-lekualdatzea), familia-arlokoak (berriz elkartzea), ekonomikoak (bizi-kostua, bizi-kalitatea hobetzea), jazarpen politikoa, Espainiako giroarekiko lehentasuna edo erretiroa, besteak beste (Colectivo Ioé y Fernández, M. 2010).

Alde batetik, Espainiara batez ere **familia-arrazoientatik** etorri ziren migratzaileak daude, berriro elkartzeko asmoarekin datozenak (gurasoek ekarritako adingabeak, emigrazioan nukleoa bateratzen zuten ahaideak, etab.) (Colectivo Ioé y Fernández, M. 2010).

Talde handi bat **lan-aukera hobeen bila** iritsi zen, bai lanik gabe zeudelako, bai baldintza hobetan lan egin nahi zutelako; talde hori, zentzu hertsian “immigrazio ekonomikoa” izan daitekeena, etorkinen ia bi herenak barne hartzen ditu. Beste %6 **lan-lekualdaketa** baten ondorioz iritsi zen Espainiara; kasu horretan, egonaldi bat izan daiteke, gutxi gorabehera aldi baterako, baina baita irauteko bokazioa duen migrazio bat ere, lan-loturaren jarraipenaz haratago. Jatorriz Ipar Amerikakoak, Erresuma Batukoak, Alemaniakoak eta Frantziakoak... nabarmentzen dira (Colectivo Ioé y Fernández, M. 2010).

Migratzeko arrazoiaren artean, zenbait abantaila ekonomiko aipatzen dira. Horien artean, **Espainiak bizi-kalitate hobea** edo **bizi-kostu txikiagoa** eskainiko lukeela adierazi zutenak (Colectivo Ioé y Fernández, M. 2010). Emigrazio iberoamerikarra, hemen kokatuko litzateke. Immigrante hauek, batez ere, etorkizun hobe bat lortzeko nahiarekin etortzen dira, herrikide batzuen esperientzia positiboek sortutako efektuaren ondorioz. Izan ere, gizarteratzeko arazo gutxien izaten dituen kolektiboa da. Gehienak airez sartzen dira Espainiako lurraldera, turista faltsu gisa (CESEDEN, 2006).

Ekonomia- edo familia-arrazoiak alde batera utzita, **Espainiako klimari esleitutako abantailak** nabarmentzen dira, etorkinen %11k aipatu baitzituen (Erresuma Batua eta

Alemania). Erretiroa aprobetxatzeak beste herrialde batetik etorritako biztanleen %4rengan izan zuen eragina (Colectivo Ioé y Fernández, M. 2010).

Jazarpen politikoa aipatzen dute guztien %3k. Nabarmentzekoak dira Afrikatik, Argentinatik, Marokotik, Kolonbiatik... etorritakoak (Colectivo Ioé y Fernández, M. 2010). Baliteke arrazoi hau lotuta egotea segurtasuna kolokan duten hirugarren mailako herrialdeekin.

Horrenbestez, zenbait ondorio atera daitezke; datuak aztertu ondoren bost arrazoi nagusirekin egin daiteke topo. Lehen, familia berrelkartzea litzateke, adibidez, familiatik lehen immigratzen duten pertsonak beraien familia ekartzea Espainiara. Familia arrazoiez gain, lan-aukera hobeen bila edo lan-lekualdaketaren bila eta Espainiako klimaren bila etortzen diren etorkinak dauzkagu. Datu hauei erreparatuz gero, ondoriozta daiteke lehen mailako herrialdeetatik ala herrialde aberatsetatik datozen etorkinen arrazoiak direla. Aldiz, bizi kalitate hobeen bila (batez ere iberoamerikarrak) eta jazarpen politikoagatik datozen immigranteak, hirugarren mailako herrialdeetatik etorriko lirateke, Espainiakoa baino bizi maila baxuagoa dutenetatik hain zuzen.

2. ATZERRIKO BIZTANLERIA ETA EGOERA ADMINISTRATIBOA

Espainian bizi diren etorkinen administrazio-egoerari dagokionez, 2017ko datuen arabera, atzerriko biztanleria osoaren %79a modu legalean bizi zen, hau da, bizileku-baimena zuten. Datu hauen arabera, ikus daiteke, gaur egun, atzerritarren erregularitasuna eta egonkortasuna direla nagusi. Hori ez dator bat duela bi hamarkada gertatzen zenarekin, orduan egoitza-baimenak erroldatutako biztanleria baino nabarmen txikiagoak baitziren, orain ez bezala. Hala eta guztiz ere, oraindik zenbait hiritarrek uste dute egoera administratibo irregularrean dauden atzerritarrak gehiago direla bizileku-baimenak dituztenak baino (CES, 2019).

2017an, bizileku baimen hori eman zitzaizen espainiar berrien artean jatorrizko bost herrialde ohikoenak Maroko, Ekuador, Kolonia, Bolivia eta Peru izan ziren. Espainiako nazionalitatea lortu ahal izan zuten, bi urteko bizilekuaren egiaztapenaren bidez. (CES, 2019)

Araubide Orokorrean baimenak emateko arrazoiei dagokienez, joera argienetako bat da lan-arrazoiengatik emandako baimenek pisua galdu dutela eta beste modalitate batzuk gehitu direla; besteak beste, familia-arrazoiengatik emandakoak eta errotze-arrazoiengatik (arraigo) emandakoak. Familia-berrelkartzeak beraz, azken urteetan bereziki biziak izan direnak, etorkinak sartzeko bide garrantzitsu bat izan dira (CES, 2019).

Bilakaera horren ondorioz, 2018an, Espainian indarrean zeuden araubide orokorreko atzerritarren bizileku-baimenen %84,2 iraupen luzekoak izan ziren. Hala ere, oraindik zailtasunak daude lana baimentzeko prozedura batzuk berritzeko eta kudeatzeko (CES, 2019).

Ez da ahaztu behar atzerritar jatorriko pertsonen bolumen zehaztugabe bat administrazio-egoera irregularrean dagoela gure herrialdean. Desabantaila handia da erabateko gizarteratzeari eta ekonomiari begira; izan ere, abusu posibleen aurrean duten zaugarritasuna areagotzen du, eta gizarte osoarentzat ondorio kaltegarriak ditu. Bere izaeragatik, ez da ezagutzen egoera administratibo irregularrean dauden atzerritarren bolumen zehatza, egoeraren jatorria edozein dela ere, dela sarrera irregularragatik, dela hasiera batean bisa bidez baimendutako egonaldi baten luzapenagatik, dela asilo-eskaera

ukatu ondoren herrialdean egoteagatik, dela kanporatze-agindu baten hartzaile izan ondoren, etab. (CES, 2019).

Nolanahi ere, azkenaldian immigranteen etorrera irregularren problematika eztabaida nagusia izan bada ere, kontuan izan behar da horiek ez direla oso adierazgarriak gure herrialdeko sarrera-mugimenduetan, eta are gutxiago Espainian bizi diren atzerritar jatorriko biztanle guztien artean (CES, 2019).

2.1. ENPLEGUA

Atzerritarrak Espainian integratzeko eta gizarteratzeko funtsezkoa da, oraindik ere, legezkotasunaren babesean lan egitea. Atzerritarrak lanean hasteko esparru arautzailea, beraz, funtsezko tresna da immigrazio-politikaren esparruan. Modu legalean bizi diren atzerritarrek eskubidea dute beren edo besteren kontura ordaindutako jarduera bat egiteko, bai eta Gizarte Segurantzaren sisteman sartzeko ere, indarrean dagoen legeriaren arabera (“4/2000 Atzerritarren lege” bezala ezagutzen dena, 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, 10. art.⁴) (CES, 2019).

Langabezia-tasen arabera, etorkinek bertakoek baino posizio okerragoa dute. Ikusten da gizonak eta emakumeak batez bestekoa baino soldata txikiagoak dituztela. Hau dela eta, langabeziak atzerritarrei eragin die gehien, nazionalitate bikoitza dutenei barne, espainiarrei baino gehiago, baina beti gutxiago europarrei. Latinoamerikako nazionalitateen posizioa europarrena baino okerragoa izango litzateke adin guztietan, batez ere helduagoetan, eta jatorrizko gainerako herrialdeak, Maroko nagusi den herrialdeak, kasu gehienetan are egoera txarragoan egongo lirateke langabeziaren eraginari dagokionez (CES, 2019).

Hezkuntza-mailak lehen mailako faktorea izaten jarraitzen du langabeziaren intzidentzian dauden aldeak azaltzeko. Duela gutxiko datuek erakusten dute, jatorri etorkineko biztanleria aktiboaren batez besteko prestakuntza-maila espainiarrena baino

⁴ **Artículo 10. Derecho al trabajo y a la Seguridad Social.**

1. Los extranjeros residentes que reúnan los requisitos previstos en esta Ley Orgánica y en las disposiciones que la desarrollen **tienen derecho a ejercer una actividad remunerada por cuenta propia o ajena, así como a acceder al sistema de la Seguridad Social**, de conformidad con la legislación vigente.

txikiagoa izango litzatekeela. Honekin, azal dezakegu europarrei zergatik eragiten dieten gutxiago langabeziak. Izan ere, hauek beste jatorri batzuetatik datozenak baino prestakuntza-maila altuxeagoa dute (CES, 2019).

Zerbitzu-eskaintzaren ikuspegitik, etorkinek funtsezko zeregina betetzen dute, langileen guztizkoaren %21 osatzen baitute pertsonak zaintzeko esparruan (osasun-zerbitzuak alde batera utzita). Zehazki, etxeko zainketa pertsonaletan eta haurtzaindegietan, ikastetxeetan eta etxez etxeko zaintzetan egiten dituzte lanak, eta gehienak emakumeak dira (CES, 2019).

Ondoriozta daitekeenez, emakume etorkinak dira enplegu ez-kualifikatuetan gehien kontzentratzen direnak; horien artean, jada aipatu den moduan, etxeko langileena nabarmentzen da. Gizonezko etorkinen artean kontzentrazio txikiagoa dago. Horietan, okupazio nagusiak ez du kualifikaziorik behar: nekazaritzako, basogintzako eta arrantzako peoiak (CES, 2019).

Etorkinek gutxiago lan egiten dute eremu publikoarekin (hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak, eta administrazio publikoa...) oso lotuta dauden jardueretan, bai eta industria-sektorean ere; sektore horrek ere egonkortasun handiagoa baitu enpleguan. Aldiz, pisu handiagoa dute etorkinen enpleguan eraikuntzaren eta ostalaritzaren esparruko jarduerak, behin-behinekotasun tasa handiagoak baitituzte. Nolanahi ere, behin-behinekotasun handiago horrek enplegua ahulagoa izatea ekarriko luke. Ikuspegi hori indartu egiten da, hain zuzen, lanaldi partzialeko lanak gauzatzen dituztelako eta gainera, askotan borondatezkoak ez direlako (CES, 2019).

Etorkinen lan-ezegonkortasuna, kontratuen iraupenari dagokionez, begi bistakoa da. Haien legezko egoera oztopozat jotzen da lan-kontratu bat lortzeko eta egonkortasun handiagoa lortzeko. Hala, beren ezegonkortasuna oso handia da, kasu batzuetan hilabeteka edo egunka kontratatzen baitituzte. Gehienek uste dute enplegua batez ere bide informalaren bidez lortzen dela, bereziki sare sozialaren bidez, edo, kasu batzuetan, enplegatzaileak egunero langileak biltzera joaten diren leku espezifikoetan agertzen direla. Gainera, laneko ezegonkortasunak zailtasun handiagoak dakartzkie leku batean finkatzeko. Horietako asko behin baino gehiagotan aldatu izan da bizilekuz, edo hainbat eskualdetara joan behar izan dute lana lortzeko (Porthé, V., Benavides, F. G..., 2009).

Honekin, ondoriozta daiteke, atzerritarrek errenta baxuko biztanleriaren barruan duten gehiegizko presentzia dela eta, pobrezia-arriskuaren tasak askoz handiagoak direla Espainiako biztanleriarena baino (CES, 2019).

Eskura dagoen informazioak agerian uzten du beraz desberdintasun handiak daudela espainiarren eta etorkinen artean. Alde hori bereziki nabarmena da Europar Batasunekoak ez diren herritarrekin alderatuta, batez ere afrikarrak eta latinoamerikarrak, askoz ere joera handiagoa baitute pobrezia, gabezia material eta gizarte-bazterketako egoerak pairatzeko (CES, 2019).

Azken batean, etorkinen lan-egoeraren azterketak adierazten du lan-merkatuan duten egoera txarra dela, kualifikaziorik gabeko lanbideetan kontzentratzen direlako. Hau gutxi balitz, beharrezkoa baino ordu gehiago lan egiten dute eta nahi gabeko lanaldi partzialeko lan-egoeretan nahiz azpienpleguan aurkitzen dira. Dena den, adierazle batzuek -besteak beste, Espainian bizi izandako denborak eta jatorrizko eremu geografikoak- erakusten dute posizio horiek hobetu egiten direla denborarekin, eta hori zeinu positiboa da, lan-merkatuan eta Espainiako gizartean pixkanaka integratzearen seinale delako (CES, 2019).

Laburbilduz, Espainiarren eta Europar Batasunetik kanpoko etorkinen batez besteko soldata-mailen arteko aldea oso handia da, eta soldatapeko atzerritarren kontzentrazio handia dago soldata baxuenen ehunekoetan. Soldata-mailak bereziki baxuak dira Europar Batasunetik kanpoko emakumeen artean; izan ere, haien urteko batez besteko irabazia Espainian gehien irabazten duten pertsonen %50era baino ez da iristen. Lan-errentetan hain nabarmenak diren alde horiek azaltzen dira, neurri handi batean, atzerritarren kontzentrazio handiagatik, emakumeen artean nabarmenagoa, batez bestekoaren azpitik soldata-mailak dituzten jardueretan, hala nola etxeko zerbitzuan, nekazaritzan eta ostalaritzan, eta, oro har, kualifikaziorik behar ez duten oinarrizko okupazioetan duten kontzentrazio handiagatik, horiek baitira okerren ordaintzen direnak (CES, 2019).

Immigrazioaren ondorio ekonomikoak

Espainian, immigrazioaren fenomenoak hazkunde ekonomikoaren funtsezko faktoreetako bat izan da eta da, batez ere biztanleria aktiboaren hazkundeari eta Espainiako ekonomian pisu handia duten sektoreen garapenari egindako ekarpenagatik, hala nola

eraikuntza, ostalaritza, turismoa, merkataritza, nekazaritza eta etxeko zerbitzua (CES, 2019).

Hala ere, lehenago aipatu de moduan, etorkinak hasiera-hasieratik, kualifikaziorik gabeko lanpostuetan murgiltzen dira, non aldi baterako enpleguak eta soldata baxuak dituzten. Horrek azaltzen ditu pobrezia- eta gizarte-bazterketako egoeren tasa handiagoak, bai eta krisi ekonomikoekiko zaugarritasun handiagoa ere, izan ere, kolektibo hauei gogorren eragiten dietenak baitira (CES, 2019).

Espainiako ongizate-sistemaren zati garrantzitsu bat, tradizioz, familien erantzukizunean oinarritu da. Erantzukizun hau emakumeei egokitu izan zaie, bereziki etxeko lanetan eta pertsonak zaintzerako orduan. Hau izan da Espainiako hazkunde ekonomikoaren gakoetako bat, emakume atzerritarrak haurrak eta behar berezia duten pertsonak zaintzeaz arduratzea (CES, 2019).

2.2. ETXEBIZITZA

Etorkinen kezka nagusietako bat bizitzeko leku duin bat lortzea da. Baina lan-baldintzekin gertatzen den bezala, etxebizitzaren ezaugarrietan ere bazterkeria askotan gertatzen den arazoetako bat da, batez ere harrera-herrialdeko egonaldiaren lehen aldietan (Leal eta Alguacil, 2012).

Espanian, atzerritarren edukitza-erregimena alokairuarena da nagusiki. Zehazki, alokariua ohikoagoa izaten da migrazio-proiektua oraindik finkatuta ez dutenen artean, bai egingo duten lanari dagokionez, bai familia-proiektuaren baldintzei dagokienez (Leal eta Alguacil, 2012).

Egoera hori ez dator bat Espainiako biztanleriaren egoerarekin, haien etxeetan alokairua nahiko minoritarioa baita. Atzerritarra izatea ez da baldintza ona etxebizitza bat eskuratzeko, edozein dela ere etxebizitza bat eskuratzeko modua. Izan ere, etxebizitza bat eskuratzeko kostua, oro har, handiegia baita jakinik etorkin gehienek enplegu prekarioak dituztela, eta horri banku-kredituak eskuratzeko zailtasuna eta errentariak sarritan etorkinak esplotatzea gehitu behar zaio (Leal eta Alguacil, 2012).

Etorkinek hiriaren kanpoaldeko etxebizitzak espainiarrei alokatzen dizkiete. Etxebizitza hauek, normalean espainiarrek erosi edo alokatu dituztenak izaten dira eta arrazoiren

batengatik erabili ez dituztenak. Horrek etxebizitzaren jabeen, hots, espainiarrei, aukera eman diezaiekete erositako etxebizitzaren hipoteka ordaintzen joateko, eta, aldi berean, etxebizitza handiagoa edo baldintza ekonomiko hobetoak eskuratzeko (Leal eta Alguacil, 2012).

Harrerako herrialdeko egonaldiaren lehen fasean, logelak alokatzea da aukerarik egokiena lan prekariotik lortutako diru-sarrera txikiarekin bizirauteko, eta, aldi berean, aurrezten joateko. Horregatik, ostatua hartzeko modu hori aurreztu ahal izateko estrategia bihurtzen da, dela jatorrizko herrialdeetara itzultzeko, dela familia berriz elkartzea ordaintzeko, dela, epe ertainean, haien bizitegi-egoera hobetzeko (Leal eta Alguacil, 2012).

Estrategia hori praktikan jartzen da bai familiarekin (hainbat familia-nukleo partekatuz, baina ahaidetasun-harremanarekin), bai ezezagunekin. Hemen ere beraien lanpostuetan izan ditzaketen kontaktuak garrantzitsuak dira, batzuetan herrikide ezagunen edo lankideen bidez sartzen baitira etxebizitza partekatuetara (Leal eta Alguacil, 2012).

Etxebizitza partekatzeak ez du esan nahi, nahitaez, egoera txarrean gertatu behar denik. Baina ikus daitekeenez, etorkinen bizitegi-bazterketa ez du etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunak bakarrik eragiten. Aitzitik, etxebizitza partekatu horien barruan ematen den pilatzeak bizitzeko baldintza penagarriek eta egoera horretan gertatzen diren bizikidetzaren arazoek ere eragiten dute (Leal eta Alguacil, 2012).

Etxebizitza partekatzeak ordea, hainbat arazo dakartzala ikusi da. Arazo nagusietako bat da, etxebizitza horietan bizitzen hasten direnean, hasiera batean, gehieneko biztanle kopuru baten berri ematen zaiela, baina gero kopuru hori handitzen joaten dela. Egoera honi ordea, alokairuaren eta fakturen ordainketan egon ohi diren gehiegikeriak gehitu behar zaizkio. Nahiko ohikoa da etxebizitza kudeatzen dutenek errentariei etxebizitzaren alokairuaren benetako prezioaren berri ez ematea. Fakturen ordainketari dagokionez, ohikoa da eskuz ordaindu behar duten zenbatekoaren berri ematea, oharren bidez. Horrek mesfidantza sortzen du fakturen benetako zenbatekoa eta gastuak etxebizitzako biztanleen artean banatzeko metodoa ezagutzen ez diren egoeretan (Leal eta Alguacil, 2012).

Migrazio-proiektuaren lehen urteetan, etorkinek ahultasun handia sufritzen dute bai ekonomian, lanean eta legetan. Hau dela eta, migrazio-proiektuaren lehen urteetan

dago gehien etxebizitza partekatzeke joera, eta bertan gertatzen da intentsitate handiko pilaketa-egoera. Denborak aurrera egin ahala ordea, pilaketak behera egiten duela ikusi da (Leal eta Alguacil, 2012).

Lehenengo etxebizitzaren eta gaur egun dutenaren artean desberdintasunak ageri dira. Ikusi da, etorkinak lurraldean zenbat eta finkatuago egon, beraien bizi-baldintzak hobetu egiten direla (egoera ekonomikoaren hobekuntzak, lan-egoera, lege-egoera, etab.) eta noski, horrekin batera, haien etxebizitza- eta bizigarritasun-baldintzak ere hobetzen joaten direla. Horrek adierazten du logelak alokatzetik etxebizitza baten alokatzera igarodela, eta etxebizitza beste familia batzuekin partekatzeari utzi zaiola (Leal eta Alguacil, 2012).

Laburbilduz, ikusi dugunez, atzerritarrek etxebizitza eskuratzeko modurik nagusia alokairuarena da. Hau nagusiki beraien egoera ekonomiko irregularrarengatik gertatzen da, espainiarrekin alderatuz, soldata baxuagoak dituztelako eta beraien bizi baldintzak kaxkarragoak direlako. Arrazoi hauei, egoera administratiboa gehitu behar zaie; izan ere, egoera irregularrean egonez gero, askoz zailagoa da etxebizitza bat erostea. Beraien posizio ekonomikoa dela eta, logelak alokatzea edo etxebizitza partekatzea asko ematen den fenomeno da, baina, ikusi da honek hainbat arazo ematen dituela beste pertsona batzuekin etxebizitza partekatzean. Hau gutxi ez balitz, guzti honi pisuen jabeek eta agentziek etorkinei gauzatutako abusuak gehitu behar zaizkio. Hemen ikusten da beraz, immigranteek zailtasunak dituztela etxebizitza duinak edukitzeko.

2.3. OSASUN LAGUNTZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

Osasuna eta osasun arreta

Gure osasun-sisteman sartzeko beharrezkoa da osasun-txartela lortzea, baina etorkin askok ez dakite nola eta non egiten den prozedura hori (Pardo, Engel eta Agudo, 2007).

Etorkinen egoera, osasunari eta osasun-zerbitzuetan sartzeari dagokienez, Espainian, Konstituzioak aitortutako eskubide hori Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorrean zehazten da. Lege honek hasiera batean, espainiarrei bakarrik ematen zien eskubidea. Honela, atzerritarrek larrialdi-zerbitzuetara eta gaixotasun infektokutsakorren tratamendura bakarrik jo zezaketen (CES, 2019).

4/2000 Atzerritarren legea (LOEx) indarrean sartu zenean, osasun-laguntzarako eskubidea onartu zen, eta, horren ondorioz, handitu egin zen baliabiderik izan ez arren, Espainian bizi direla frogatzen duten pertsonen osasun-arretarako eskubidea. Horretarako, nahikoa da erroldatuta egotea (CES, 2019).

Lege horren ondoren, aldaketa sakonak egin zituen ondorengo dekretua onartu zen: 16/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa. Honela, jada erroldatuta egotea ez zen beharrezkoa eta osasun eskubidea Espainiako lurraldean dauden espainiar eta atzerritar guztiei esleitu zitzairen. Honela, administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarrek osasun-laguntza jaso ahal izan dute gaixotasun larriagatiko edo istripuagatiko larrialdi-kasuetan, arrazoia edozein dela ere, alta medikoa jaso arte. Baita haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean ere. 18 urtetik beherakoen kasuan, espainiarren baldintza berberetan jasoko lukete laguntza. (CES, 2019).

Nolanahi ere, duela gutxi 7/2018 Errege Lege Dekretua, uztailaren 27koa, Estatuko Osasun Sistemarako sarbide unibertsalari buruzkoa onartu izanak osasunerako eskubidearen titulartasuna aitortzen die Espainiako nazionalitatea duten pertsoneri eta bizilekua Espainian duten atzerritarrei (CES, 2019).

Atzerritarren 4/2000 Legeak aipatzen duen aldi baterako egonaldia -90 egun- gainditu ez dutenen kasuan, nahitaezkoa izango da autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzu eskudunek aldeztatik aldeko txostena egitea (CES, 2019).

Datuei erreparatuz, 2017an, kontsulta guztien %89 Espainiarrenak izan ziren eta %11, berriz, atzerritarrenak. Proporzio hori Espainian bizi den biztanleriaren osaeraren nahiko islatzat har daiteke, eta, nolanahi ere, ez dator bat immigranteek osasun-arreta publikoa ustez gehiegikeriaz erabiltzeari buruzko aurreiritziarekin. (CES, 2019).

Etorkinek osasun-sistema publikoan sartzeko gehien erabiltzen duten bideetako bat larrialdiak dira. Hori lan-prekaritateko egoerak eragin dezake, eta horrek ordutegi-arazorik sortzen ez duten osasun-bideak bilatzera behartu dezake, bai eta irregulartasun-egoera administratiboak eta lehen mailako arretaz gain, beste osasun-zerbitzu batzuen berri ez izateak ere. Ezjakintasun honengatik,

osasan-zerbitzuren batera sartzeko biderik ohikoena ospitalera joatea da atzerritarrentzat (Pardo, Engel eta Agudo, 2007).

Osasun-zentroetara joan ez zirenen artean, atentzioa ematen du paperik ez zutela erantzun zutenek. Horrek adierazten du osasun-sistemara sartzeari buruzko informaziorik ez dagoela, ez baita osasun-txartela izateko edo osasun-zerbitzuetara sartzeko baldintza. Ziur aski, faktore horrek eragina izango du egoera erregularizaturik ez dutenengan eta ONGetara gehiago jo dutenengan ere; horietako askok uste dute ez dutela gure Osasun Sistemaren barruan laguntza jasotzeko eskubiderik (Pardo, Engel eta Agudo, 2007).

Etorkinen ahultasun ekonomiko handiagoaren ondorioz, arreta-zerbitzuetara ez iristeko arrisku handiagoa dago, eta horrek kalteak eragiten ditu. Atzerritarrek ezin izan dituzte beren tratamendu-beharrak ase (CES, 2019).

Esan bezala, egoera ekonomiko txarrak murriztu egiten ditu arreta pribatura joateko aukerak, osasun-sistema publikoaren alternatiba gisa, bide publiko bera, osasun-arazoak azkar konpontzeko gai ez denean. Honek, mediku espezialistarekin bisitak, tratamenduak edo ebakuntza kirurgikoak atzeratzen ditu. Ondorioz, biztanleria atzerritarraren zati handi bat, Estatuko Osasun Sistemako itxaron-zerrenden arriskupean gelditzen da. Hau dela eta, etxe ahulenek uko egin diezaiekete agindutako tratamenduei, edo, kasurik onenean, jarraipenean jarraitutasunik ez izateari, koordainketa sanitarioak beren gain hartzeko gaitasunik ez dutelako, eta, ondorioz, patologiak larriagotzen dira (CES, 2019).

Gure osasun-sisteman sartzeko oztopo nagusiak orduan, faktore ekonomikoaz gain, hasiera batean, informaziorik eza eta zerbitzuak ez ezagutzea dira, eta, ondoren, hizkuntza ez jakitea. Baina zer gertatzen da gure zerbitzuetara iristen direnean? Gizarte Segurantzaren zentroren batera joan diren pertsonen artean, lan-ordutegiarekin dauden arazoak dira oztopo nagusia, ondoren, oztopo administratiboak daude (hitzordu-sistema, baldintza administratiboak, burokrazia handia, egokitutako material gutxi) (Pardo, Engel eta Agudo, 2007).

Osasun-zentroetako arretan aurkitzen dituzten beste oztopo edo arazo batzuk itxaronaldia eta hizkuntzaren erabilera dira. Hainbat aldiz ikusi izan da hizkuntza arteko komunikazioaren beharra, etorkinak beste hizkuntza batzuetara etengabe iritsi ondoren.

Baliabide espezifikoko gutxi daude gai honetarako, eta, horren ondorioz, atzerritarrek beren burua ulertzeko modu ohikoena lagun, senide eta seme-alaben laguntzari esker izaten da. Interpretateen eta osasun-profesionalen arteko komunikazioaren eraginari dagokionez, literaturan eztabaida asko dago (Pardo, Engel eta Agudo, 2007).

Ondoriozta dezakegu gure osasun-sisteman sartzeko oztopo nagusiak, hasiera batean, informaziorik eza eta zerbitzuak ez ezagutzea direla. Behin bertara iritsita, oztopo nagusiak lan-ordutegia, arazo administratiboak, itxaronaldia eta hizkuntza dira. Horrek guztiak adierazten digu informazio gehiago behar dugula gure Osasun Sistemaren funtzionamenduari buruz, batez ere iritsi ondorengo lehen etapetan (Pardo, Engel eta Agudo, 2007). Honez gain, nabarmena da atzerritarrak alde batera utzi direla gure osasun sisteman. Nahiz eta legeak gaur egun espainiarrak nahiz erroldatuta dauden atzerritarrak berdintasun egoeran daudela aitortu, oraindik, osasun sisteman dauden hutsuneak nabarmenak dira, eta honekin ikus dezakegu ez dutela behar duten arreta jasotzen. Aipatzekoa da ere, atzerritarrek beraien egoera administratiboari dioten beldurra, modu irregularrean daudenek askotan ez dakite nora joan eta ez dakite ere zein eskubide aitortzen zaizkien. Honengatik, asko dira larrialdietara eta ospitalera jotzen dutenak.

Gizarte zerbitzuetarako sarbidea

Atzerritarren egoera prekarioak gizarte zerbitzuetan zuzeneko eragina du. Jarraian ikusiko dugun moduan, atzerritarrak espainiarrak baino gehiago joaten dira gizarte zerbitzuetara, beraien egoera sozioekonomikoa ahula dela eta. Hemen ere, gure sistemak gabezia batzuk dituela ikusten da. Zergatik? Nahiz eta gizarte zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aitortu, etorkinen egoera administratiboa da erabakigarria. Hots, egoitza-baimena dutenek oinarrizko zerbitzu eta prestazio espezializatuak jasotzen dituzte eta egoitza-baimenik ez dutenek, oinarrizko arreta bakarrik jaso dezakete.

Gizarte-zerbitzuen sarea da, kolektibo ahulenen autonomia errazteko Espainiako gizarte-babeseko sisteman aurreikusitako integrazio-tresnetako bat. Aipatu beharra dago ordea, sare honen ezaugarri nagusiak garapen eta finantzaketa eskasa direla, eta orokorrean, hutsune asko dituen tresna dela (CES, 2019).

Etorkinen zaugarritasun handiagoa egiaztatzeak, (langabezia handiagoa, soldata txikiagoak, etab.), zerbitzu horiek erabiltzeko hautagai potentzial bihurtzen ditu. (CES, 2019).

Gizarte zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, atzerritarrek 4/2000 Legeak zehazten dituen baldintza espezifikoetan jasotzen da. Horrenbestez, “atzerritar egoiliarrek zerbitzuak eta gizarte-prestazioak jasotzeko eskubidea dute, bai orokorrak eta oinarrizkoak, bai espezifikoak, espainiarren baldintza berberetan”. Honez gain, “Atzerritarrek, beren administrazio-egoera edozein dela ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak jasotzeko eskubidea dute” (CES, 2019).

Horrela, gizarte zerbitzuetarako sarbidea pertsona bakoitzaren administrazio-egoeraren arabera da; hots, egoitza-baimena dutenek oinarrizko zerbitzu eta prestazio espezializatuak jasotzeko eskubidea aitortuta dute, eta baldintza hori betetzen ez dutenek, berriz, oinarrizko arreta bakarrik jaso dezakete (CES, 2019).

Oro har, atzerriko nazionalitatea duten pertsonen %15 Espainiako gizarte-zerbitzuen sarean sartu zen 2015eko uneren batean. Hau da, atzerritarrek espainiarrek baino sarriago jotzen dute babes-sare publikora. Esan bezala, egoera sozioekonomiko ahulagoa delako gertatzen da hori (CES, 2019).

Jatorrizko eremu geografikoei dagokienez, Europar Batasuneko nazionalitatea duten atzerritarrak (%39), Espainian bizi diren atzerritarren artean talderik ugariena osatzen dutenak, ez dira gizarte zerbitzuetara gehien jotzen dutenak. Afrikar jatorriko pertsonak, batez ere marokorrek, dira erabiltzaileen erregistroan gehien agertzen direnak (atzerritarren %23) (CES, 2019).

3. ATZERRITARRAK BARNERATZEKO ZENTROAK ESPAINIAN (ABZ) (Centros de Internamiento de Extranjeros (CIE))

3.1. ZER DIRA ABZ-AK?

Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak (ABZ) Espainiako migrazio-politikaren tresna dira gure herrialdean dauden atzerritarrak kanporatzeko, bertan bizitzeko administrazio-baimenik gabe daudenak (kanporatze administratiboa) edo, kasu batzuetan, zigor penal bat dutenak eta atzerritarrak izateagatik kanporatuak izango direnak (kanporatze penala, ZK 89. art.). Zentro hauek Polizia Nazionalak zuzentzen eta kudeatzen ditu, eta, beraz, Barne Ministerioaren mende daude (Manzanedo eta Izuzquiza, 2011).

4/2000 Atzerritarren legeak 62 bis artikuluan⁵ aldarrikatzen du Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak “espetxez kanpoko establezimendu itxiak” direla, baina, egia esan, espetxeen antza kezagarria dute arkitekturari eta funtzionamenduari dagokienez, eta, zenbait alderditan, espetxeek baino baldintza txarragoak dituztela esaten da. Izan ere, Algeciraseko zentroa espetxe zahar batean kokatuta zegoen, eta itxi egin zen, legezko eskakizunak ez betetzeagatik (Martínez Escamilla, 2016).

Zentro horietan, gehienez ere, 60 egunez egon daitezke, kanporatzeko agindua eman arte edo dagoeneko emanda dagoena bete arte. Kasu horietan, atzerritarraren askatasun-gabetzea ez da zehapen bat, baizik eta kautelazko neurri bat, soilik kanporatzea betetzen dela bermatzeko. Zentro horietan barneratuek soilik ibiltzeko askatasuna dute mugatuta, eta gainerako eskubideak bere horretan mantentzen dituzte (Manzanedo eta Izuzquiza, 2011).

Barneratzea, ikuspegi tekniko-juridiko batetik, ez da zigor gisa hartzen, baizik eta kanporatze zehapena betearaztea ziurtatu nahi duen kautelazko neurri gisa. Egia esan, barneratzea ezkutuko zehapen bat izango litzateke, administrazio-irregularitasuna


⁵ **Artículo 62 bis. Derechos de los extranjeros internados.**

1. Los centros de internamiento de extranjeros **son establecimientos públicos de carácter no penitenciario**; el ingreso y estancia en los mismos tendrá únicamente finalidad preventiva y cautelar, salvaguardando los derechos y libertades reconocidos en el ordenamiento jurídico, sin más limitaciones que las establecidas a su libertad ambulatoria, conforme al contenido y finalidad de la medida judicial de ingreso acordada.

zigortzeko edo etorkina jazartzeko, bere herrialdera itzul dadin eta migrazio abenturari ekitea pentsatzen ari direnak uxatzeko (Martínez Escamilla, 2016).

Gaur egun Espainian zazpi ABZ daude indarrean; Madrilen (Aluche), Bartzelonan (Zona Franca), Valentzian (Zapadores), Murtzian (Sangonera La Verde), Algecirasen (La Piñera y su anexo de Tarifa), Kanaria Handian (Barranco Seco) eta Tenerifen (Hoya Fría). ABZ horien kokapena hainbat irizpideren arabera da: hiriak etorkinen presentzia handia duten eskualdeetan (Madril, Bartzelona, Murtzia eta Valentzia) eta egoera irregularrean dauden etorkinen etorrera handiko lekuetan (Algeciras eta, bere garaian, Las Palmas eta Santa Cruz Tenerifekoak). Hasiera batean, kanporatzeko ABZ eta itzultzeko ABZ edo mugako ABZ bereiz zitezkeen (González Beilfuss, 2017).

2. Figura. Los CIE operativos en España (2017)



Iturria: González Beilfuss, 2017

2017ko datuen arabera, ABZ guztien gaitasuna 1.480 barneratuena da (1.308 gizon eta 172 emakume). Baina erabilgarri dauden plazen benetako kopurua aldatu egiten da hainbat faktoreen arabera, hala nola, obrak edo espazio batzuen erabilera beste helburu batzuetarako (González Beilfuss, 2017).

ABZen egungo egoera oso heterogeneoa da: Kanarietan kokatutako zentroek protagonismoa galdu dute iritsiera irregularrak murriztearen ondorioz; bestalde, Algecirasko ABZ da oraindik garrantzitsuena zenbakien aldetik paterak iristearen ondorioz, azken hiru urteetan nabarmen handitu baita; Murtziako eta Valentziako ABZk jatorri magrebtarreko pertsona gehienak hartzen dituzte, Mediterraneoko kostaldera

iristen direnak edo Alacantetik edo Almeriatik Aljeriara kanporatzen dituztenak edo Marokoko mugara eramaten dituztenak. Bestalde, Madrilgo eta Bartzelonako ABZek garrantzia galdu dute ikuspegi kuantitatibotik, bi probintzietako instrukzio-epaileek baimendutako kanporatzeen eta barneratzeen kopuruak behera egin duelako (González Beilfuss, 2017).

ABZak praktikan funtzionatzen ari dira, ez bakarrik egoera irregularrean dauden pertsonak kanporatzea bermatu nahi duten zentro gisa, baizik eta modu irregularrean sartzen saiatu diren eta Saharaz hegoaldeko pertsonen kasuan beren jatorrizko herrialdera gutxitan itzul daitezkeen pertsonen etorrera kudeatzeko leku gisa (González Beilfuss, 2017).

3.2. NORTZUK SARTZEN DIRA ABZ-ETAN?

Espainiar lurraldetik kanporatzeko bi modu nagusi aurki daitezke. Batetik, kanporatze administratiboak (kasuan, kanporatzea administrazio prozedura batean oinarritutako erabakia litzateke, arau-hauste administratibo batean oinarrituz) eta bestalde, kanporatze penalak (Zigor Kodeko delitu bat egiteagatiko kanporatzea, zigor arloko prozedura batean oinarritutako erabakia da) (Martínez Escamilla, 2013).

ABZetan barneratuta dauden migratzaileek ezaugarri amankomun bat dute: ez dute Espainian modu legalean bizitzeko behar den dokumentaziorik. Migrazio-egoeraren arabera, lau talde nagusi identifika daitezke zentro hauetan (Morán, García, & de Lucas, 2012):

1. Ibilbidean atzemandako etorkinak: Talde honetan daude Espainiako lurraldera itsasontzietan iritsi aurretik edo iristean atzemandako pertsonak. Pertsona horiek taldeka banatzen dira ABZetan, eta, ondorioz, zentro horiek Europar Batasunean sartzeko modu bihurtzen dira. Nolanahi ere, kontuan izan behar da kasu honetan fluxu mistoak direla, eta fluxu horietan bat etor daitezkeela etorkin ekonomikoak edo gizakien trataren biktima diren pertsonak. ABZetan gehienezko epea igarotakoan (60 egun) ezin badira kanporatu, kanporatu, askatu eta kaleetan uzten dira. Ondorioz, egoera irregularrean gelditzen dira, honek dakartzan arazo guztiekin (Solanes Corella, 2016).

2. Espetxe-zigorra bete duten etorkinak (ZK 89. artikulua⁶): ZKko 89. artikulua honakoa xedatzen du espetxe zigorren inguruan:

- Urtebetetik goragoko espetxe zigorra ezarri zaion atzerritarra kanporatu egingo dute (**89.1 art.**).
- Bost urtetik gorako espetxe zigorra edo iraupen hori gainditzen duten hainbat zigor ezarri direnean, epaile edo auzitegiak zigor osoa edo zati bat betearaztea erabakiko du. Kasu horietan, zigorraren gainerako zatia betearaztearen orde, zigortua Espainiako lurraldetik kanporatuko da, zigortuak ezarritako zigorraren zatia betetzen duenean, hirugarren gradua eskuratzen duenean edo baldintzapeko askatasuna ematen zaionean (**89.2 art.**).
- Ezin izango da atzerritarra kanporatu, uste bada neurrigabea dela (desproporcionado), bereziki atzerritarraren sustraitzea kontuan izanik (**89.4 art.**).
- Kanporatze judizialek kanpo geratzen dira 177 bis artikuluan (gizakien salerosketa), 312. artikuluan (langileen eskubideen aurkakoa), 313. artikuluan (iruzurrezko emigrazioa) eta 318 bis artikuluan (atzerriko herritarren eskubideen aurkakoa) tipifikatutako delituengatikoa (**89.9 art.**).

3. Gerora sortutako irregulartasuna duten etorkinak (Irregularidad sobrevenida):

Egoera erregularrean egon arren, bizileku-baimenak berritzeko unean lan-kontraturik ez zutenez, herrialdean legezkontasun-baldintza galdu eta kanporatu daitezkeen irregularrak bihurtu diren migratzaileak dira (Morán, García, & de Lucas, 2012). Administrazio-egoera irregularra duten arren, Espainiako lurraldean egon dira (Solanes Corella, 2016).

⁶ **Artículo 89.**

1. **Las penas de prisión de más de un año impuestas a un ciudadano extranjero serán sustituidas por su expulsión del territorio español.**

2. **Cuando hubiera sido impuesta una pena de más de cinco años de prisión, o varias penas que excedieran de esa duración, el juez o tribunal acordará la ejecución de todo o parte de la pena...** En estos casos, **se sustituirá la ejecución del resto de la pena por la expulsión del penado del territorio español...**

4. **No procederá la sustitución cuando,** a la vista de las circunstancias del hecho y las personales del autor, en particular su arraigo en España, **la expulsión resulte desproporcionada.**

9. **No serán sustituidas las penas que se hubieran impuesto por la comisión de los delitos a que se refieren los artículos 177 bis, 312, 313 y 318 bis.**

4. Egoera irregularrean dauden eta Espainian finkatuta dauden etorkinak (LOEx 53.1 a) artikulua⁷): Espainiako lurraldean modu irregularrean egotea, kanporatzea eragin dezakeen arau-hauste administratibo ohikoena da (Martínez Escamilla, 2013). Jatorri geografiko desberdineko pertsonak dira (Latinoamerika, Afrika, Asia eta Ekialdeko Europa), herrialdean modu irregularrean, ezkutuan edo turismo-bisa baten bidez sartu direnak eta herrialdean bizi eta lan egin dutenak dagozkien baimenik gabe (Morán, García, & de Lucas, 2012).

3.3. BARNERATUTA DAUDEN ETORKINEN EGOERA

Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetan barneratuta dauden etorkinen egoera behatu ahal izateko, hainbat esparru aztertzea nahitaezkoa da. Horrenbestez, landuko diren eremu nagusiak ondorengoak izango dira: Hainbat herritarren bizikidetzak, instalazioen eta zerbitzuen gabeziak eta tratatu txarrak eta torturak.

Honetarako, hiru dokumentu nagusi landu dira; bata, Carmen Azcárragak 2014an argitaratutako artikulua *“Centros de internamiento de extranjeros. Principales denuncias y novedades legislativas”*, CEAREk (Comisión Española de Ayuda al Refugiado) 2009an emandako informea *“Situación de los Centros de Internamiento para Extranjeros en España”* eta bestea, Women’s Link Worldwide erakundeak 2012an emandakoa *“Mujeres en los centros de internamiento de extranjeros (CIE). Realidades entre rejas”*.

Hainbat atzerritarren bizikidetzak

ABZetan barneratuta dauden etorkinak aurrerako jorratu den moduan, hauek izango lirateke: ibilbidean atzemandako etorkinak, espetxe-zigorra bete duten etorkinak, gerora sortutako irregularitasuna duten etorkinak (Irregularidad sobrevenida) eta egoera irregularrean dauden eta Espainian finkatuta dauden etorkinak.

⁷ **Artículo 53. Infracciones graves.**

1. **Son infracciones graves: a) Encontrarse irregularmente en territorio español**, por no haber obtenido la prórroga de estancia, carecer de autorización de residencia o tener caducada más de tres meses la mencionada autorización, y siempre que el interesado no hubiere solicitado la renovación de la misma en el plazo previsto reglamentariamente.

Lau talde horiek identifikatuta, hain profil desberdinak dituzten pertsonak espazio berean biltzeak hainbat arazo ekar ditzake. Arazo nagusia, zigor penala duten pertsonak, arau-hauste administratibo bat gauzatu duten pertsonekin nahastea litzateke. Bi pertsona talde hauek elkarrekin nahasteari, askatasun anbulatoriorik gabeko espazio itxietan sor daitekeen tentsio potentziala gehitu behar zaio (Azcárraga Monzonís, 2014).

Deliturik gauzatu ez duten etorkinak barneratuta egoteak ez du zentzu handiegirik, eta are gutxiago lekualdatzen dituztenean eskuburdinen bitartez egitea. Hau dela eta, eskaera nagusietako bat bereizitako pabiloietan banatzea da delituak egin dituzten eta egin ez dituzten atzerritarrak. Bereizketa hau interesgarria litzateke, izan ere, egiaztatu da bi kolektiboen bizikidetzak gatazkak eta tentsioaren areagotzea eragiten dituela (Azcárraga Monzonís, 2014).

Aurrekoaz gain, bi kolektiboren egoera ere aipatu nahiko nuke: batetik, zaugarritasun egoera berezian aurkitzen direlako, eta, bestetik, Espainiako agintariek egoera hori hautemateko eta babesteko jarrera aktiboa izan behar dutelako, beraien eskubideak babesteko. Bi kolektibo hauek, asilo-eskatzaile potentzialak⁸ eta gizakien trataren biktimak dira. Lehenengoei dagokienez, atzerritar askok ez dakite asilo-eskubidea erabiltzeko aukera dagoela, Espainiako agintariek informaziorik ematen ez dutelako (Azcárraga Monzonís, 2014).

Giza trataren biktima diren emakumeen presentzia (zehazki, sexu-ustiapenerako trataren biktimena) oso ohikoa da Atzerritarren Barneratzeko Zentroetan. Honek beraz, argi uzten du biktima hauek detektatzeko mekanismoak ez direla funtzionatzen ari (Martínez Escamilla, 2013).

Gehienetan, ABZek ez dituzte trataren biktima gisa identifikatzen, eta ondorioz, biktima gisa dituzten eskubideak ez izatea ekarriko lieke. Beste batzuetan, nahiz eta norbait ohartu, beraien biktima egoerak baino pisu handiagoa izaten du beraien egoera administratibo irregularrak. Hau dela eta, berriro indarrez hegazkin batean sartzen

⁸ Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak (CEAR) bere web orrian azaltzen du asilo eskubidea zertan datzan: “**Toda persona tiene derecho de a buscar protección fuera de su país** de origen o de residencia habitual y disfrutar de ella en caso de huir de un conflicto que pone su vida en peligro y tener fundados temores de ser perseguida por motivos de raza, religión, nacionalidad, opinión política o pertenencia a un determinado grupo social.” <https://www.cear.es/derecho-de-asilo/>

dituzte, beraien jatorrizko herrialdera bidaliz. Hegazkin horretan emakume hauek sartzeak, berriro beraien proxeneten menpe geratzea dakar (Martínez Escamilla, 2013).

Horregatik, beharrezkoa da ABZek trataren biktimak detektatzeko protokoloak egitea eta aplikatzea, salerosketaren biktimak babesteko orain arte egiten dena nahikoa ez delako (Martínez Escamilla, 2013).

Instalazioen eta zerbitzuen gabeziak

Logelak gaizki egokitutako espazioak dira. Zikinak dira, ohe prekariorik dituzte eta armairurik ez dutenez gauzak giltzapean segurtasunez uzteko, objektu pertsonalak lurrean utzi behar izaten dira. Halaber, zenbait zentroren pilaketaren ondorioz lurrean lo egiten duten barneratuen kasuak identifikatu dira. Era berean, arropa, oinetakoak eta higiene-produktuak lortzeko zailtasunak dituzte edo ez zaizkiete ematen eta maindirerik ez dutenez, larruazalean higadura handiak izaten dituzte. Egoera hori larriagotu egiten da zentroetan ematen den asistentzia mediko eskasagatik, geroago ikusiko den moduan (Azcárraga Monzonís, 2014).

Bestalde, komunak pribatutasunez eta eguneko edozein ordutan erabiltzeari dagokionez, salatu izan da barneratuek gauez gelaren barruan egin behar izan dituztela beren beharrak (Azcárraga Monzonís, 2014).

Antzeko zerbaitek gertatzen da bisita-aretoekin senideak edo beste pertsona batzuk etortzen direnean; izan ere, behar besteko pribatutasunik ez izateaz gain, zenbait zentrotan kontaktu fisikoaren debekua dago. Nabarmentzekoak dira, halaber, temperatura egokia ez kontrolatzea, arropa garbitzeko eta esekitzeko prestatutako espaziorik ez izatea, aisialdirako eta irakurtzeko materialik ez izatea eta osasungarritasun- eta garbitasun-baldintza eskasak (Azcárraga Monzonís, 2014).

Telefono bidezko komunikazioari dagokionez, hainbat arrazoirengatik kritikoa da barneratuentzat. Familiarekin edo lagunekin harremana izateko modu bakarra da askorentzat. Maiz egoten dira ABZetatik urrun dauden probintzietan, edo, gertu bizi arren, ez dira ausartzen bisitatzera, behar bezalako paperik ez dutelako eta sarreran atxilotuko dituzten beldur direlako (CEAR, 2009).

Testuinguru horretan, Madrilgo ABZaren egoera bereziki kezagarria eta larria nabarmendu behar da. Madrilen, barneratuek ezin dute kanpoko deirik jaso. Hori

eskubideen urraketa larria da. Madrilen dagoen egoera dela eta, barneratu batzuk benetako desagertuak dira. Inork deitzeko aukerarik gabe eta deitzeko aukera ekonomikorik gabe, itxialdi-egoera eta kanpoko mundutik erabat isolatuta daude (abokatuak barne) (CEAR, 2009).

ABZetan emandako zerbitzueetan hainbat hutsune antzeman dira. Besteak beste, erlijio-askatasunarekin lotutako zerbitzuetan, emandako elikadura kaskar eta eskasean, interpreteen eta hizkuntzak dakizkiten langileen asistentzia-gabezian, gizarte-laguntzarik ez izatean eta osasun-laguntza eskasean (Azcárraga Monzonís, 2014).

Oro har, osasun-laguntza iraunkorrik ez dagoela salatu da; gainera, ordutegi medikoak mugatuak dira, hitzordu urriak eta iraupen laburrekoak, diagnostiko eta tratamendu ez oso espezializatuak, eta arreta falta ere badago, nahiz eta behin baino gehiagotan eskatu (Azcárraga Monzonís, 2014).

Bestalde, aipatzeko modukoa da barneratuei noiz eta nola kanporatuko dituzten ez jakinaraztea. Nahitaezkoa da barneratuengan eragina izan dezakeen guztiari buruzko informazioa ematea. Informazio nahikoa jaso behar dute, eta honako hauek ulertzen dituzten hizkuntza batean: giltzapetu izanaren arrazoiak, ABZetan dituzten eskubideak eta betebeharrak, abokatuekin harremanetan jartzeko modua... (Azcárraga Monzonís, 2014).

ABZetako barneratu gehienak gizonak diren arren, emakumeen diskriminazio bereziko egoerak arreta berezia merezi du. Women's Link Worldwide erakundeak 2012an argitaratutako txostenean adierazten denez, ez dago neurri berezirik barneratutako emakumeentzat, ezta haurdun daudenentzat edo gizakien trataren biktimentzat ere (askotan ez daude halakotzat identifikatuta eta ez dute laguntzarik jasotzen), eta sistematikoki urratzen dira ABZetan atxikitako emakume etorkinen eskubideak.

Bereziki garrantzitsua da emakumeek osasunerako sarbidea izatea, eta, bereziki, sexu-eta ugalketa-eskubideetan antzemandako gabeziei erantzuna ematea. Hala, aipatu berri den moduan, ikusi da ABZetan haurdun dauden emakumeek ez dutela arreta mediko espezializaturik jasotzen, eta, beraz, ez zaiela egiten emakumearen eta fetuaren osasuna bermatuko duen nahitaezko aldizkako kontrolrik. Barneratu batzuek, gainera, emakume

izatearekin lotutako hitzezko indarkeria eta indarkeria fisikoa jasan dute (Azcárraga Monzonís, 2014).

Hala, nabarmendu daiteke ABZetan barneratutako emakumeei ez zaiela informaziorik ematen; izan ere, emakume horiek, askotan, ez dute beren egoera edo eskubideen berri, ez dute harremanik abokatuekin, eta ez zaie entzuten sexu-helburuetarako trataren biktima direla salatzen dutenean. Zehazkiago, ONGak osasunerako eskubidearen urraketak eta sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbiderik ez edukitzea azpimarratzen ditu. Genero diskriminazioa, ikus daiteke emakumeek gizonen baino instalazio txikiagoak izaten dituztelako, patioan denbora gutxiago izaten dutelako eta, kasu batzuetan, beren moduluak garbitzeko ardura dutelako (Morán, García, & de Lucas, 2012).

Tratu txarrak eta torturak

Zentroetako gairik zailenetako bat langileek barneratuei ematen dieten tratua da. Barneratu gehienek tratu egokia ebaluatzen dute. Baina lau barneratutatik batek tratu txarrak daudela uste du. Gehientzat, tratu txarrak ematen dituztenak poliziak edo funtzionarioak dira. Hauek jarrera iraingarriak dituzte, oihu, tratu txar edo kolpeekin (batez ere Madrilen eta Valentzian), eta hori funtzionario eta polizia gehienen jarrera orokorra da. Kopuru horri errepresalien beldur izateagatik beren iritzia ez ematea nahiago dutenak gehituz gero, pentsa daiteke barneratuen %32k uste duela tratu negatiboa jasaten duela zentroan, eta tratu horren barruan indarkeria fisikoa eta ahozkoa sartzen direla (CEAR, 2009).

Honez gain, barneratuek diskriminazio-motaren bat dagoela uste dute (azal beltzekoa, arabiarra edo beste arrazoi batzuegatik). Kexa orokorrena da tratu txar selektiboak eman dizkietela magrebtarrei Valentziako ABZn, eta iritzi hori magrebtarrak ez direnek ere adierazi dute (CEAR, 2009).

Emakumeen kasuan, torturak sexu-konnotazioak hartzen ditu gehienetan. Ildo horretan, tortura edo tratu krudel, anker edo apalesgarriak izan daitezke: Bortxaketa-mehatxuak, ukitzeak eta eduki sexualeko erasoak (Women's Link Worldwide, 2012).

Amaitzeko, aipatu beharrekoa da, barneratzea gehiegi erabiltzearen inguruko arazoak hautematen direla. Izan ere, giltzapetuta eta kanporatzeko zain daude barneratu behar ez luketen pertsonak. Ez da harritzekoa gure herrialdean jada finkatuta dauden pertsonekin

topo egitea, beren ardurapean seme-alaba adingabeak dituztenak, baita espainiar nazionalitatea duten seme-alabak, gaixorik dauden pertsonak, giza trataren biktima izan daitezkeenak edo asilo-eskatzailleak, dokumentatuta ez daudelako; kasu horietan barneratzea ez legoke justifikatuta. Horregatik, gogoan izan behar dira atzerritarren barneratzea arautzen duten bermeak eta konstituzio- eta lege-printzipioak, eta zorrotzago aplikatzeko eskatu behar da (Martínez Escamilla, 2016).

4. ONDORIOAK

Ikerlan honen marko teorikoan hiru puntu garrantzitsu landu ondoren (lehenik, migrazio prozesua Espainian, bigarrenik, atzerriko biztanleria eta egoera administratiboa, eta azkenik, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak Espainian), hainbat ondorio atera daitezke immigranteek duten ibilbide prozesuan Espainiara iristen diren arte.

Migrazio prozesua izanik lehen zatia, ikusi da beraien ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, nagusiki Europar Batasunekoak (%39), Afrikakoak (%23) eta Hego Amerikakoak (%17) direla. Hau datu esanguratsua eta aldi berean, harrigarria da zeren medioek ematen duten informazioaren arabera, herritar gehienok uste dugu etorkin gehienak pateretan etortzen diren afrikarrak direla. Hau dela eta, garbi ikusten da guk izan dezakegun pertzepzioa errealitatearekin bat ez datorrela.

Euskal Autonomia Erkidegoan, immigrante gehienak latinoamerikarrak dira, batez ere, euskal gizarteak dituen beharrezanekin bat egiten dutelako, zehazki, hein handi batean, etxeko lanekin edo zaintza-lanekin lotutako profilak lirateke. Enplegu motaren faktoreaz gain, baliteke hizkuntza lagungarri izatea ulertzeko zergatik diren gehienak latinoamerikarrak. Espainian eta EAEn gaztelania hitz egiten da eta hau honela izateak baliteke migrazio prozesua modu batean erraztea. Aipatu behar da, Europar Batasuneko etorkinak nahiz Magrebekoak ere gehientsuenen artean daudela.

Etorkinen adina eta sexuari dagokionez, gehienak lan-arloko adin tartean etortzen dira, eta ikusi da migrazioa feminizatzen ari dela azken urteetan. Hau da, gero eta emakume gehiago dira migratzeari ekiten diotenak, zehazki, Hego Amerikatik gizonetzkoak baino emakume gehiago etortzen dira. EAEn beraz, latinoamerikar gehienak emakumeak lirateke, hau berriro ere ulertu behar da euskal gizarteak dituen premiekin, besteak beste, lehen aipatutako moduan, etxeko nahiz zaintza lanekin. Afrikatik datozen etorkinak ordea, gehienak gizonetzkoak dira.

Espainiara iristeko ibilbideak eta garraioak kontuan harturik, ondoriozta daiteke Espainiara sartzen diren immigranteen ehuneko altu bat airez, hau da, hegazkinez eta gainera modu legalean sartzen direla. Talde honetan, Hego Amerika eta Erdialdeko Amerikakoak daude, hasiera batean turista gisa sartzen dira eta modu legalean egoteko epea igaro ondoren, modu irregularrera igarotzen dira. Ondoren, gehien erabiltzen den ibilbidea itsasoarena da, Kanariar Uharteetatik edota penintsularen hegoaldeko

kostaldetik sartzen direlarik. Hemen, kaiukoen edo pateren bidez sartzen diren etorkinen %1a soilik kokatu litzateke. Datu hau beste behin harrigarria da, portzentaje bereziki txikia delako. Immigranteei buruz hausnartzean, ematen zaien garrantzia mediatikoagatik, ia guztiori burura datorkiguna da gehienak pateretan sartzen diren afrikarrak direla. Honekin ordea, guztiz oker gaudela ikus dezakegu eta beraz, gure ustea errealitatearekiko desberdina dela ziurtatu.

Immigratzeko arrazoiak direla eta, nagusiki pentsatu ohi da faktore ekonomikoengatik soilik ekiten diotela emigratzeari. Arrazoi hau errealitate bat da, baina honetaz haratago doa. Familia berrelkartzea azken urteetan arrazoi funtsezkoenetako bat bihurtu da jatorrizko herrialdetik irteteko. Batzuetan, familiar bat soilik etortzen da, eta urte batzuen ondoren, beraien bikotea eta seme alabak immigratzen dute. Lan aukera hobeen edota lan lekualdaketaren bila eta Espainiako klimaren bila etortzen diren etorkinak esan daiteke, lehen mailako herrialdeetatik datozenak direla. Aldiz, hirugarren mailako herrialdeetan bizi direnen arrazoiak, bizi kalitate hobego bat bilatzea eta jazarpen politikotik ihes egitea dira.

Atzerriko biztanleria eta egoera administratiboa dela eta, 2017an Espainian bizi ziren etorkinen %79k zuten bertan bizitzeko baimena. Oro har, puntu honetan aztertu denarekin, ondoriozta daiteke etorkinek Espainian zailtasunak dituztela esparru ezberdinetan integratzeko. Zehazki, egoera administratiboa dela eta, harrigarria izan da gaur egun Espainian etorkin gehienak modu legalean bizi direla behatzea. Askotan, aurreiritziak eta estereotipoak izan ohi ditugu, komunikabideek eman ohi diguten irudia ez delako errealitatearekin bat datorrena. Izan ere, uste da etorkin gehienek ez dutela paperik, laguntza ekonomikoengatik bizi direla edota enpleguak kentzen dizkigutela. Nolanahi ere, esan bezala, immigrante gehienek bizileku-baimena, zehazki, 2018an atzerritarren bizileku-baimenen %84,2 iraupen luzekoak izan ziren. Hala eta guztiz ere, oraindik zailtasunak daude baimena berritzeko eta kudeatzeko, eta hau da immigranteen egoera administratiboari arazoak sortzen dizkieten faktore nagusienetako bat.

Enpleguari dagokionez, 4/2000 Atzerritar legearen 10. artikuluan aitortzen da lan egiteko eskubidea. Baina eskubide honetaz haratago, etorkinek hainbat arazo edukitzen dituzte lan munduan sartu ahal izateko. Langabezien tasei erreparatuz, etorkinek espainiarrek baino posizio okerragoa dutela egiaztatu da.

Baita ere, aipatzekoa da, langabeziak europarrei beste herrialde batzuetatik datozen etorkinei baino gutxiago eragiten dietela. Hots, oro har, latinoamerikarrak zein amerikarrak baino egoera hobea dute europar etorkinek. Hau baliteke hezkuntza mailagatik izatea, izan ere, europarrek prestakuntza maila hobea baitute besteek baino.

Lan motari dagokionez, emakumeen presentzia nabarmena da batez ere, enplegu ez kualifikatuetan; etxeko lanetan eta zaintza lanetan. Gizonezkoek aldiz, nagusiki nekazaritzak, basogintzan eta arrantzan dihardute. Kontuan hartzekoa da ordea, etorkinek lan ezegonkortasun handia dutela. Kontratu oso motzak egiten dizkiete eta honek beraien prekaritatea areagotzen du, bizi-baldintza okerragoetara bultzatuz.

Egoera hau ikusita, komenigarria litzateke, immigrazio politika humanitario eta seguru bati eustea, kolektibo horien laneratze erregularra sustatzeko, kontratazio-prozesu administratiboak arintzeko eta langile horien mugikortasun geografikoa errazteko (CES, 2019).

Testuinguru horretan, beharrezkoa da atzerritar jatorriko langileen ekarpena balioztat hartzea, populazioaren zahartzearekin lotutako zainketen krisialdi aurreikusgarriaren aurrean. Beharrezkoa da sektore hori profesionalizatzeko eta lan hori egiten dutenen lana duintzeko politikak ezartzea (CES, 2019). Zeren gure aurreiritziak direla eta, ez dugu atzerritarren lana behar bezala balioesten eta ikusi denez, Espainiako ekonomian pisu handia dute. Hau da, hiritarrok uste duguna baino ekarpen handiagoa egiten dute eta garrantzitsua da beraien lan egoera nahiz bizi baldintzak hobetzeko politikak ezartzea edota jada indarrean daudenak erraztea.

Etxebizitza lortzea etorkinentzat erronka hutsa da. Jada dakigun moduan, etxebizitzak alokatu egiten dituzte, ezin dutelako etxebizitza bat erosi beraien egoera ekonomikoagatik. Posizio ekonomikoaz gain, immigranteek egoera administratiboak asko eragiten du etxebizitza batera sartzeko erabakitzen duten moduan. Izan ere, egoera irregularrean egonez gero, ohikoagoa izaten da logelak alokatzea eta jende desberdinarekin etxebizitza partekatzea. Honek, beraien egoera prekarioa areagotu dezake, baina, aldi berean “erosoagoa” izan daiteke, modu honetara diru-sarrerak txikiekin biziraun dezaketelako eta beste modu bat izan daitekeelako ahal den neurrian aurrezteko.

Batez ere, etxebizitza partekatzearen eta pilaketaren fenomenoak migrazio prozesuaren lehen urteetan ematen da, orduan izaten baitute etorkinek ahultasun ekonomiko handiena. Hortik aurrera, egoera hobetuz doala suposatzen da, nahiz eta zailtasunak eta etxebizitzaren jabeen abusuak jasaten jarraitu dezaketen.

Osasun laguntza jasotzea ere ez da batere erraza etorkinentzat. Hasiara batean espainiarrentzat soilik aitortzen zen, baina hainbat lege eta dekreturen ondorioz, gaur egun, lortu da legean berdintasuna aitortzea bai espainiarrentzat eta bai etorkinentzat. Hala eta guztiz ere, immigranteek diotenez, ez dute osasun arreta asebate zaienik sentitzen eta askotan informazio eza edota ezjakintasuna dela eta, larrialdietara jotzen dute. Hizkuntzaren ulermen arazoak ere ohikoak izaten dira eta honek areagotu egiten du behar bezalako arreta ez jasotzea. Etorkinei ez zaie informazio nahikorik ematen eta honek zaugarritasun egoeran uzten ditu. Aipagarria da, etorkinek osasun sistemara espainiarrek baino askoz gutxiago jotzen dutenaren datua. Izan ere, ez dator bat immigranteek osasun-arreta publikoa ustez gehiegikeriaz erabiltzeari buruzko aurreiritziarekin.

Askotan, ez dute bide publikoan sartzeko aukerarik izaten eta alternatiba gisa osasun sistema pribatua gelditzen zaie. Hau ordea, beraien egoeratik ezin dute ordaindu eta babesgabetuta gelditzen dira. Behin eta berriz ikusten dugu berdin dela zein esparrutan, zaugarritasun egoeran gelditzen direla eta ez diela inork jaramonik egiten. Osasun arreta ikusi dugun bezala, eskubide bat da eta hau ere urratu egiten zaie.

Gizarte zerbitzuei dagokienez, une oro gogora ekartzen ari garen moduan, immigranteen egoera ekonomikoa dela medio, gizarte zerbitzuetara gainerako hiritarrek baino gehiago joan behar izaten dute. Sistema honek ere, gabezia eta hutsune batzuekin aurkitzen dira etorkinak; egoera administratiboaren arabera jasotzen dituzte zerbitzuak. Egoitza baimena baldin badute, oinarrizko zerbitzuak eta espezializatuak jasotzeko aukera dute. Aitzitik, egoitza baimenik ez badute, soilik oinarrizko zerbitzuak jasotzen dituzte. Hau ikusirik, beste behin eskubidea urratzen zaiela beha daiteke.

Oro har, berriro ere etorkinak zailtasun ikaragarrien aurrean aurkitzen dira. Legeak nahiz eta eskubideak aitortzen dizkieten, praktikan hutsune ugari ageri dira zerbitzu askoren aldetik, izan ere, egoera administratiboari ematen zaion garrantzia gehiegizkoa

da, honen baitan mugitzen baitira eskubide guztiak. Ondorioz, hau aldatu beharra dago, ezin baitugu beraien egoera tamalgarria gehiago onartu.

Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak Espainiako migrazio-politikaren tresna dira gure herrialdean dauden atzerritarrak kanporatzeko. (Manzanedo eta Izuzquiza, 2011). Ikusi den moduan, zentro hauetan nagusiki, lau pertsona talde aurkitzen dira: ibilbidean atzemandako etorkinak, espetxe-zigorra bete duten etorkinak, gerora sortutako irregulartasuna duten etorkinak eta egoera irregularrean dauden eta Espainian finkatuta dauden etorkinak.

Barneratuta dauden etorkinen egoera tamalgarria jada aztertu dugu. Orokorrean ABZetan atzerritarrek dituzten bizi baldintzak oso gogorak dira. Profil ezberdina duen jende asko espazio itxi berean kontzentratzen da eta honek noski, eztabaidak sortzen ditu. Gainera, oso zaila da hainbeste jenderen beharrak modu indibidualean eta egokian asetzea. Zigor penala duten pertsonak, arau-hauste administratibo bat gauzatu dutenekin nahasten dira, eta honek ez du zentzu handiegirik. Aukerarik onena, bi pertsona talde hauek bereiztea litzateke, izan ere, hauen bizikidetzak asko hobetuko litzateke tentsioak murriztuko liratekeelako. Hala eta guztiz ere, ez du zentzu handirik arau-hauste administratibo bat egin duen pertsona bat eta delitu bat egin duen bat maila berean jartzea. Are gutxiago, egoera administratibo irregularra duen pertsona bat zentroan barneratzea.

Instalazioen eta zerbitzuen gabeziak ere begi bistakoak dira. Logelak gaizki egokitutako espazioak dira, jende askorekin partekatu behar izaten dituzte eta ondorioz, pilaketak sortzen dira. Honek intimitatea urratzen du, ez baitute beraien bakarrik egoteko lekurik. Komunitate eta bista aretoetan ere pribatutasun falta nabari da.

Komunikazioa eskubidea ere urratu egiten zaie askotan. Telefono bidezko komunikazioa izaten da maiz familiarekin edo lagunekin harremantzeko bide bakarra eta ikusi da Madrilen adibidez, barneratuek ezin dutela kanpoko deirik jaso. Hau dela eta, barneratu batzuk desagertuta daudela dirudite ez baitute aukerarik zentrotik kanpo norbaitekin harremantzeko. Egoera hau jasanezina da, hauen eskubidea baita kanpoko komunikazioa.

Osasun laguntza ere, nola ez, bere arreta eskasengatik salatu ohi den beste zerbitzu bat da. Kotsulak eta ordutegiak oso mugatuak dira, eta askotan ez dira tratamendu

espezializatuak eskaintzen. Emakumeen kasuan, ez zaizkie behar bezalako kontrolak gauzatzen.

Guzti honi gehitu behar zaio barneratuei ez zaiela jakinarazten noiz kanporatuko zaien. Informaziorik ez diete ematen eta honetarako eskubidea dute. Ez da bidezkoa etorkinak barneratuta egotea bertan zergatik dauden jakin gabe, ze eskubide dituzten jakinarazi gabe. Honi hizkuntzaren arazoa gehitu behar zaio, ez baitaude interprete eta beraien hizkuntza dakiten langile asko. Hau ere larria da, izan ere, nahitaezkoa da pertsona hauek egotea etorkinak dauden zentro bat izanik.

Funtzionarioen eta poliziaren aldeko tratatu txarrak eta torturak ABZetan eman ohi diren beste arazo nagusietako bat dira. Hauek jarrera iraingarriak eta diskriminatzaileak dituzte, oihu, tratatu txar edo kolpeekin. Hau da, indarkeria fisikoa nahiz ahozkoa darabilte. ABZetako barneratu gehienak gizonak diren arren, emakumeen diskriminazio bereziko egoerak arreta berezia merezi du. Izan ere, emakumeen kasuan, torturek sexu-konnotazioak hartzen ditu gehienetan.

Hau gutxi balitz, ABZetan barneratzea gehiegi erabiltzearen inguruko arazoak daude. Izan ere, bertan egon beharko ez luketen pertsonak aurki daitezke barneratuta; herrialdean jada finkatuta dauden pertsonak, seme-alaba adingabeak dituzten gurasoak, giza trataren biktimak dokumentatuta ez daudelako... Pertsona hauen kasuan ez dago justifikatuta barneratzea eta gehiegikeria hutsa besterik ez da.

Barneratuen egoera aztertuta, ikusi da Espainiako Atzerritarren Barneratze Zentroetan dauden etorkinak benetan egoera tamalgarrian aurkitzen direla eta eskubide urraketak gauzatzen direla. Honen aurrean ez du ematen inork ezer egiten duenik, eta benetan kezagarria da. Onartezina da barneratuen egoera hain txarra izatea, egoera salatu beharra dago eta beharrezkoa da etorkin hauen eskubideen alde borrokatzea.

II. KAPITULUA: ALDERDI PRAKTIKOA ELKARRIZKETEN BIDEZ

1. DISEINU METODOLOGIKOA

Lan hau hiru zati nagusitan banatu da; alde batetik, marko teorikoa izango genuke, informazio eta bibliografia desberdina lortuz osatu dena, hau ere, hiru zatitan banatuz. Bestalde, orain hasiko den bigarren fasea edukiko genuke, ikerketa metodologiko baten bitartez hasiera emango zaiona. Behin elkarrizketen emaitzak lortu direlarik, lanari hirugarren zatiarekin emango zaio amaiera, lan enpirikoan eskuratu diren emaitzak eta eztabaidak jasoko direlarik.

Ikerketa hau, metodologia kualitatiboko diseinu baten bidez garatu da, Elkarrizketa Sakon Irekien bidez, erdi egituratutako gidoi batetik abiatuta. Hain zuzen, honetan datza elkarrizketa sakonak: *“Elkarrizketa sakona elkarrizketatzailearen eta informatzailearen arteko aurrez aurreko bilkura da, eta gertakizunak eta esperientziak subjektuek beren hitzekin adierazten dituzten moduan ezagutu edo/eta ulertzeko helburuarekin egiten da”* (Gorostiaga eta Balluerka, 2007). Honetarako, 47 galderako gidoi bat diseinatu zen, elkarrizketatuen bizitzako istorioak ezagutzeko. Diseinu espezifiko hori aukeratu dut, uste bainuen horrela errazagoa izango zela elkarrizketatuentzat beren bizipen pertsonalak modu errazago eta zabalagoan kontatzea.

Ikerketa proiektua aurrera eraman ahal izateko, hiru emakume immigranteei elkarrizketa egitea erabaki zen. Lan honetarako gizakien parte hartzea beharrezkoa izan denez, Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen eskema jarraitu da eta elkarrizketatuen baimena lortu ahal izateko, baimen informatua erabili da, dagokien sinadurekin.

Ikerketa honen helburua bere garaian jatorrizko herrialdetik Espainiara etortzea erabaki zuten emakume etorkin talde baten bizitza istorioak ezagutzea da. Honez gain, beste helburuetako batzuk, emakume etorkin horien bizipen subjektiboen bidez informazioa biltzea eta haien bizipenen alderdi garrantzitsuak ezagutzea da. Oro har, beraien jatorrizko herrialdeetan zuten egoera aztertu nahi da, jakiteko zerrek bultzatu zituen Espainiara etortzeko, zehazki, EAera etortzeko. Behin hona etorrira, hemen daramatzaten urte guztietan zein egoeratan aurkitu diren behatu nahi da. Aurrerago zehaztuko den arren, hainbat egoera ezberdin aztertu nahi dira: egoera administratiboa, enplegua, etxebizitza, integrazioa...

Honela, ikerlan hau interesgarria izan daiteke gizartean hainbat eztabaida sortzeko, baina batez ere, immigranteen inguruan ditugun aurreiritziez hausnartzeko eta hauek desegiteko.

1.1. PROIEKTUAREN GIZARTE BALIOA

Proiektuaren gizarte-balioari dagokionez, proiektuaren edo eremuaren helburu nagusia, ezagutza handitzea edo azken onura soziala lortzea da.

Kasu honetan, funtsezko ikerketa bat izango litzateke. Ikerketa honen helburu nagusia, etorkinek beraien jatorrizko herrialdetik Espainiarako ibilbide prozesua ezagutzea du helburu. Elkarrizketa hauen bitartez beraz, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren hiru emakume etorkinen errealitateari buruzko informazioa jasoko da, honela ikerketa proiektuari ikuspuntu aberasgarri bat gehituz.

1.2. GIZAKIEN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko, gizakien erabileraren beharra garrantzitsua da emakume etorkinen kolektiboa ezagutzeko eta hauei ahotsa emateko. Zehazki, gidoi erdi-egituratua duen elkarrizketa sakoneko teknika erabili da. Teknika honen bitartez, marko teorikoan aldeztu aurretik landu diren aspektuak, emakume etorkin hauen esperientzia pertsonalen bitartez, sakonago ezagutzen saiatuko gara. Horrela, ikerketa hau, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen interesen ikuspegitik eraikitzen saiatuz.

Oro har, kolektibo honekin harremanetan jartzea oso zaila izan daiteke, beraien egoera administratiboa dela-eta izan dezaketen beldurreratik. Zeren, gerta daiteke Espainian modu irregularrean egotea eta beraien egoera poliziarri salatze beldurra izatea. Horregatik, azkenean elkarrizketak egiten badira, aberasgarria izan daiteke niretzat eta, oro har, gizartearentzat. Izan ere, askotan komunikabideek etorkinei buruz emandako irudia errealitatearekiko oso desberdina da eta elkarrizketa hauen bitartez, irudi hau desegiten eta etorkinen benetako errealitatea ezagutzen saiatuko gara.

Ikerketaren lagina esan bezala, emakume immigranteek osatzen dute, eta ezagunen, senideen lagun nahiz hainbat elkarteren bidez ezagutu ahal izan ditut. Nahiz eta egia izan immigrazioari buruzko txosten asko publikatzen direla, txosten mota batzuk

zaharkituta gelditu izan dira. Hori dela eta, interesgarria litzateke ikerketa hau egitea, eguneratuta dauden parte-hartzaileen bizitza-istorioak pertsonalki ezagutzeko. Immigrazioa gai eztabaidatsua izan ohi da herritarrok izan ditzakegun estereotipoengatik. Hau dela eta, uste dut etorkinen bertsio mediatikoa eta negatiboa soilik aurkezten dela, eta pertsonalki jakin nahi izan dut zein egoeratan dauden, nola izan den prozesua jatorrizko herrialdetik irten zirenetik Euskadira iritsi arte, eta egia ote den haiei buruz ditugun zenbait aurreiritzi.

1.3. IKERKETA-MOTA

Jada azaldu dudana bezala, aipatutako helburua lortzeko eta horretarako informazioa lortzeko ikerketa-tresna gisa, metodologia kualitatiboa erabili da. Zehazki, hiru elkarrizketa ireki sakon egin dira, gidoi erdi egituratu batetik abiatuta, elkarrizketatutako kolektiboaren (emakume etorkinen) egoera testuinguruan kokatzeko eta bizitza istorioak ezagutzeko.

2. IKERKETA-PROZESUA

Ikerketa prozesuarekin hasi ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan etorkinekin lan egiten duten hainbat elkarteri begiratzeari ekin nion. Zenbait elkarte behatu ondoren, Gipuzkoakoetan zentratzea erabaki nuen; hauen artean, SOS arrazakeria, Arrats txiki-txoko elkarte edota Gurutze Gorriari hainbat korreo bidali nizkien. Hasiera batean nahiko zaila izan zen erantzunak jasotzea, eta horregatik, beste bilaketa bide batzuei ekin nien. Hala eta guztiz ere, Arrats txiki-txoko elkartearen erantzuna jaso nuenez, elkarrizketatu bat beraien bitartez lortu ahal izan nuen.

Elkarte hauez gain beraz, ezagun eta familiar batzuei galdetu nien ea emakume etorkinen berririk bazuten ala ez jakiteko. Familiar baten bitartez, bi emakumerekin topo egitea lortu ahal izan nuen, zehatz-mehatz Gipuzkoan bizi diren etorkinekin kontaktatzea lortuz.

Esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren hiru emakume etorkinek osatzen dute ikerketa. Hiru emakumeren kasuan, elkarrizketa egiteko modua aurrez aurrekoa izan zen. Hasieratik, nahiago nuen elkarrizketa aurrez aurrekoa izan zedin, elkarrizketatuaren eta ikertzailearen artean konfiantzazko harremana sustatzea errazagoa delako. Hiru kasuetan ere, parte-hartzaileak ados egon ziren beraien ahotsa grabatzeko, honela modu eraginkorragoan eta errazagoan egin ahal izateko ikerketa lanaren zati praktikoa.

Aurrerago aipatutako moduan, elkarrizketak gauzatu ahal izateko, 47 galderako gidoi bat ([1. Eranskina](#)) egin nuen, marko teorikoko alderdi garrantzitsuenak oinarritzat hartuz. Hau dela eta, elkarrizketatuen datuak lortzeko erabili diren aldagai nagusiak honako hauek izan dira:

1. Egoera soziodemografikoa
2. Migrazio-prozesua
3. Administrazio-egoera
4. Enpleguarekin, etxebizitzarekin eta ekonomiarekin lotutako gaiak
5. Atzerritarren Barneratze Zentroekin lotutako gaiak
6. Integrazio prozesua eta Espainiaren espektatibak

Elkarrizketarekin hasi aurretik, elkarrizketaren testuinguruan pixka bat kokatzeko, hirurei nire graduaren inguruko informazio laburra eta ikerlanaren nondik norakoa azaldu zitzaien. Ikerketaren zergatia eta helburu nagusiak zeintzuk ziren adierazi zitzaien, eta edozein galdera beraientzat erantzuteko gogorra edota deserosoa balitz, ez erantzuteko eskubide osoa zutela azpimarratu zitzaien. Honez gain, elkarrizketaren gidoia alde aurretik bidali zitzaien jakiteko zein galdera mota egingo zitzaizkien, gutxi gorabeherako iraupena ere emanez.

Jakina, elkarrizketatuek emandako datu pertsonalen inguruko konfidentziasuna eta anonimotasuna guztiz bermatuta dagoenaren berri eman zitzaien, ikerlanean bertan beraiek identifikatzeko gai diren datuak erabiliko ez direlarik. Honen harira beraz, baimen informatua (“consentimiento informado”) ([2. Eranskina](#)) eman zitzaien hirurei. Dokumentu honen bitartez, ikerketan parte hartzeko baimena lortzen da eta nahi dutenean atzera egiteko eskubidea aitortzen da.

Txosten honetan, honako gaiak hartzen dira kontuan:

- Ikertzaile arduradunaren eta tutore arduradunaren identifikazioari buruzko informazioa.
- Ikerketaren deskribapena: Ikerketa egiteko helburuak, erabiltzen diren tresnak, parte-hartzearen justifikazioa, elkarrizketa egiteko denbora eta lekua.
- Ikerketak sor ditzakeen arrisku eta eragozpenen deskribapena.
- Elkarrizketetan ahotsa grabatzeko eskaera.
- Baimen informatuan ikerketan atzera bota ahal izateari buruzko informazioa.
- Datuen erregistroaren bidez datuen babesa eta anonimotasuna ziurtatzea nahiz bermatzea ikerketatik kanpo dauden pertsoneri.

Dokumentuaren amaieran, ikerlanean bertan elkarrizketetan parte hartuko zutela baieztatu zuten elkarrizketatuen eta nire sinaduraren bitartez. Amaitzeko, baimen informatuaren kopia bat beraiei eman zitzaien, dagokien sinadurekin.

3. BIZITZA ISTORIOAK

1. ELKARRIZKETATUA: NIKARAGUA

Lehen elkarrizketatua, A. izena jarriko dioguna, Nikaraguan jaiotako 35 urteko emakume bat da. Lehenago aipatu dudan moduan, familiarren bitartez lortu ahal izan nuen bere kontaktua. Elkarrizketa, lokal batean gauzatu zen, honela, erabateko intimitatea eduki ahal izan genuen inor bere bizipenak entzuteko gai izan gabe. Oso emakume jatorra eta irekia da, une oro interesa erakutsi zuen bere bizipenak modu irekian kontatzeko. Gainera, oso eroso sentitu zela esan zidan, bere esanetan, immigranteen benetako errealitatea “gordinik” nolakoa den azaldu izan ahal zuelako.

Espainiara etortzeko bidaia 2003. urtean hasi zuen, eta ez zion bidaiari bakarrik ekin, bere mutil-lagunarekin batera etorri baitzen, biak oso gazteak zirela. Gaur egun, ezkondata dago eta 4 seme alaba ditu, lehen semea oso gazte eduki zuen, zehatz-mehatz, 17 urterekin. 18 urte daramatza Espainian bizitzen eta guztira, Gipuzkoako 3 lekutan bizi izan da. Espainiara etorri zenean, bere lehen bizilekua Donostia izan zen eta ondoren lanarengatik Errenteriarara mugitu behar izan zuen. Gaur egun, Gipuzkoako beste herri batean bizi da, bere intimitatea gordetzeko eta herria ez lokalizatzeko, ez da herriaren izenik emango. Bere ikasketa mailari dagokionez, batxilergora arte ikasi du eta titulu hau, Euskal Herrian atera zuen. Izan ere, beranduago gehiago azalduko den arren, bere herrialdea oso leku txiroa zen eta ia ezinezkoa zen ikasketa maila kualifikatuak edukitzea, are gutxiago emakumeentzat. Batxilergoaz gain, lan munduan integratu ahal izateko, geriatriako adarrean zentratutako ikastaro desberdinak egin ditu.

Migrazio-prozesua

Bere herrialdeko egoerari dagokionez, bere esanetan oso egoera gogorra da, oro har, Nikaragua oso herrialde txiroa dela ziurtatzen du eta horri gehitu behar zaio diktadura batean bizi direla. Diktadura egoteak justiziarik ez egotea suposatzen du eta honek noski erabat okertzen ditu bertako bizi baldintzak. Kultura ere oso pobrea dela dio, oinarrizko ikasketak gauzatzea oso zaila dela (bere kasuan, Nikaraguan lehen hezkuntzako 6. mailara arte soilik ikasi ahal izan zuen), sexu hezkuntza nulua dela, eta emakumeen kasuan, oso oso gazte ama izateko prestatzen dituztela, “las mujeres estan hechas para ser madres y para casarse”. Hau dela eta, berak oso gazte nahi izan zuen egoera

horretatik irten, pobreziatik ihes egin nahi zuen eta ez zuen nahi inork behartzea ama izateko. Nahiz eta oso gazte eduki zituen bere seme alabak, bera izan zen erabaki hori hartu zuena, gainera abortatzeko aukera ere bazuen eta hori da Nikaragua eta Espainiaren artean dagoen alde nagusietako bat.

Bere migratzeko uneari eta zergatiari dagokionez, bere haurtzaroa oso gogorra izan zela kontatzen du. Bere aitak, ama eta bera abandonatu zituen, eta 5 urterekin bere etxean sexu abusuak sufritu zituen bere amaren bikotekidearen aldetik. Noski, honek bere bizitza guztirako markatu zuen. Pobreziagatik eta arrazoi honengatik oso gaztetatik bere herritik irteteko nahia zuen, noski, bere abusatzailearengandik ahalik eta urrutien egon nahi zuen. Harrigarria da, hasiera batean, A. eta bere mutil-lagunak 3 urtez egotea espero zutela Espainian, baina, hala ere, 2003tik behin bakarrik itzuli dira beraien jaioterrira. Bere egoera ikusita, A.-ren amak bere etxea hipotekatu zuen A. eta bere mutil-lagunari dirua emateko, Espainiara joan ahal izateko.

Beraien immigrazio bidaia, Nikaraguatik Panamara bitarteko hegaldian hasi zen. Beraien immigrazio ibilbide guztian, Nikaraguan jarri zizkieten zailtasun gehienak diktadurarengatik. Mugan dirua lapurtzen saiatzen dira, galdera asko egiten dizkiete, ekipajearen formularioa ez bada ondo betetzen ez diete uzten irteten... Behin Panamara iritsita, ez zieten inongo zailtasunik jarri, oso erraza izan zen. Ondoren, Amsterdamera iritsi ziren, eta hemen izan zuten erronka nagusia hizkuntza izan zen. Hala eta guztiz ere, ez zieten dokumentazio berezirik eskatu, erraz pasatu ahal izan zuten muga. Geroago, Portugalera iritsi ziren eta hemen beldurra pasa zuten, immigrante asko ari zirelako gelditzen. Hala eta guztiz ere, azkar hartu zuten taxia eta hotelerantz joan ahal izan ziren poliziak ezustean harrapatu gabe.

A.-k hasieratik argi eta garbi zuen Donostia zela bere helmuga. Internet bidez Conchako hondartza aurkitu zuenean, maitemindu egin zen Donostiaz. Emigratzea oso garestia dela dio, aireportuetako kontroletan gelditzean, diru kopuru handi bat eduki behar zutela, eta kopuru hori betez gero, muga pasatzen uzten zietela. Beraz, garrantzitsua dirua edukitzea zen. Behin Portugalen zeudelarik, trena hartu zuten Donostiako Amara tren geltokirantz. Behin hona iritsita, inoren laguntzarik ez zuten, eta logelak alokatzea bilatzen zuten. Berak dioenez, Donostia osoan zehar bizi izan dira logelak alokatzen, jende mota ezberdinarekin etxebizitza partekatuz. Behin etxea lortuta, beraien helburu

nagusia lanean hasia zen, bere amarekin zeukaten zorra ordaindu ahal izateko eta bizitza hobea bat lortzeko.

Emigratzea oso gogorra dela behin eta berriz aipatzen du, gosa ta hotz asko pasa dute. Oso zaila dela dio inor ezagutzen ez duzun herrialde batera etortzea, hots, bizi berri bat sortzea. Hala eta guztiz ere, EAera etortzea beretzat sendagarria izan da: “he sabido quitarle ese dolor a la vida que pasé de pequeña”.

Donostiara iristean nola sentitu zen galdetzean, eremu geografikoari dagokionez, aldaketa handia sumatu zuela kontatzen du. Eraikinak oso altuak eta handiak zirela, eta gainera eroriko zitzaizkionaren sententzia ematen zioten. Teknologia aldetik ere oso ezberdina zen, garai horretan mugikorak atera berri ziren eta berak Nikaraguan ez zuen horrelakorik ezagutu. Hizkuntzari dagokionez, euskararekin topo egitean oso arraroa egin zitzaion, aitzitik, segituan interesatu zen hizkuntzarekiko eta euskaltegian bere izena eman zuen. Euskara ez zekien arren, jendeak beti gaztelaniaz hitz egiten ziola dio, eta alde horretatik ez dela diskriminaturik sentitu.

Migrazio prozesuan generoaren aldetik desberdintasunak sumatzen dituen ala ez galdetzean, A.-k uste du emakumeentzat zailagoa dela modu legalean egoteko paperak egitea. Bere kasu pertsonalean, ez zioten kasurik egiten, bere gizonari baino askoz ere beranduago egin zitzaizkion paperak. Hau dela eta, gizonentzat prozesua askoz ere errazagoa eta azkarragoa dela ikusi du. Beraz, egoera administratiboari dagokionez, mespretxatuta sentitu da emakumea izateagatik.

Egoera administratiboa

A. eta bere mutil-laguna turista gisa sartu ziren Espainiara, eta modu legalean 3 hilabetez egon ahal izan zuten. Denbora hau igaro ondoren, modu irregularrean egotera pasa ziren. Egoera irregularrari aurre egiteko, elkarrizketatua Donostiara iritsi eta lehen egunetan, ikastola batean immigranteek kola egiten zutela ikustean, bertara hurbildu zen. Zehazki, emakume etorkinei enplegua bilatzeko laguntza ematen ari ziren. Guztira 2 hilabete behar izan zuen etxe bat bilatzeko bertan lan egiteko. Hemen piztu zitzaion geriatziaren inguruko interesa; izan ere, hemen etxea garbitzen eta amona bat zaintzen egin zuen lan. Familia honetaz estimu handiarekin hitz egiten du, beraiek lagundu baitzioten paperak egiten EAEn modu legalean egon zedin. Izan ere, lan baterako kontratua egitea ezinbestekoa zen lurraldean modu legalean egon ahal izateko. Hau

honela izanik, familia honek kontratua egin zion eta Espainiara iritsi eta 6 hilabetera lortu zuen bere lehen bizileku-baimena.

Behin bizileku-baimena eskuratuta, urtero berritu beharra zuen baimen hau eta hemen pasa zituen bere estuasun unerik handienak, zailtasun asko jartzen baitizkiete baimen hauek berritzerako unean. Baimenaren ostean, nazionalitatea eskatzen zioten eta beste 6 hilabete behar izan zituen hau lortzeko. Laburbilduz, esan daiteke baimenak lortzea nahiko prozesu azkarra izan zela, nahiz eta bizileku-baimena berritzearen prozesua guztiz aurkakoa izan. Hau dela eta, baimena ez berritzeak muga batzuk ekarri zizkion, horien artean, ezin izan zuen gida baimena berak nahi zuen bezain azkar lortu.

Gizarte zerbitzuen arloan, Donostian lehen aldiz zerbitzu hauetara jo zuenean ez zioten kasurik egin. Egoera honetan aurkitzean, SOS arrazakeriara jo zuen laguntza eske, izan ere, bere kasuan Euskadin jada modu legalean zegoen eta baldintza guztiak betetzen zituen laguntzak jasotzeko. Une honetan, egoera ekonomiko nahiko txarrean zeuden eta honi gehitu behar zaio 2 seme alaba zituztela. Hau dela eta, SOS arrazakeriakoei segituan eman zizkieten dirulaguntzak alokairua eta janaria ordaindu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, noski, laguntza hauek ez ziren aski izan guztia ordaindu ahal izateko. Nahiz eta hemengo arreta oso ona izan, berak dio ez zela batere erraza izan norbaitek kasu egitea, bera izan baitzen laguntza eske bulego bulego ate joka joan behar izan zuena.

Errenterian gizarte zerbitzuekin bizitako esperientzia guztiz ezberdina izan zen. Zehazki, emakume bat izan zen gaizki tratatu ziona. Kasu honetan, emakume hau bere etxera joan zen etxe guztia goitik behera logelaz logela miatzera. Honela sentitu zen: “me pareció un abuso, me volví a sentir otra vez denigrada y por una chica, que es más triste”. Gizarte laguntzailearen esanetan bere lana adingabeak babestea zen, baina intimitatearen aurkako jokabidea izan zela argi eta garbi ikus daiteke.

Esperientzia hau bizi ondoren, gizarte zerbitzuetara joateko beldurra du “yo no quiero volver a pasar de ir a un Servicio Social, le tengo pánico. Solo de ir a esos sitios y contar intimidades a personas que tu no conoces y que encima te denigren, eso es muy triste”. A.-k uste du ez dela bakarra egoera honetan aurkitu dena. Honelako kasuak etorkin askok sufritzen dutela uste du, laguntza eman baino gehiago mespretxatu egiten baitituzte. Hala eta guztiz ere, pertsonaren araberako kontua dela uste du, bizitzan jende

ona eta txarra aurkitzen delaren ustea baitu. Izan ere, gaur egun bizi den herrian, pandemian bi senar emazteak langabezian gelditu ziren eta A.-k covid harrapatu ostean, 30 egunez egon zen ZIUn ospitaleraturik. Hemen aldiz, gizarte zerbitzuen aldetik jaso zuen arreta bikaina izan zen, eta laguntza nahiz animo asko eman zizkioten.

Enpleguarekin, etxebizitzarekin eta ekonomiarekin lotutako gaiak

Aurrerago komentatu den bezala, berak lana lehen aldiz etxe batean aurkitu zuen adineko pertsona bat zaintzen eta familia horrek ikaragarri lagundu zion. Adineko pertsona hau ordea hil zenean, A. langabezian gelditu zen, eta bizileku-baimena berritzeko nahitaezkoa zen beste lan bat bilatzea. Pertsona hauek oso ondo tratatu zioten arren, bere migrazio prozesuan zehar esperientzia txarrak ere izan dituela ziurtatzen du; orduko 5€ eta gainera beltzean ordaindu nahi izan zioten jabeak, kontratatuko ziotela hitzeman eta ondoren kasurik egiten ez ziotenak... Langabezian egoteak sufrimendu handia sorrarazi dio, beldur handia pasatzen zuelako, egoera honetan ezinezkoa zelako baimenak berritzea. 2 urteren buruan eskatu eta 6 hilabete ondoren lortu ahal izan zuen berak dioen moduan “la vecindad vasca”. Behin hau lortuta, hemendik aurrera ez zuen izan bizileku-baimena berritzearen inguruko arazorik.

A.-k modu ilegalen askotan lan egin behar izan du, eta hau ez da Espainian ilegalki egotearen arazoa soilik. Etorrina izateak jendeak kontratatu nahi ez izatea dakar, eta egoera hau askotan bizi izan du elkarriketatuak. A.-ren ustez jendeak ez dio nahi gizarte segurantzari ordaindu, eta honek immigranteekiko diskriminazioa eta abusua areagotzen du.

Enpleguaren arloan, emakumeen eta gizonezkoen artean ezberdintasunik ikusten duen ala ez galdetzean, adierazten du bera etorri zen garaian gizonak landa guneko lanetan edota etxe-aldakuntza lanetan zihardutela, hau da, publikoari begira. Emakumeek aldiz, nolabait esateko ezkutuan edo jendeak ikusi ezin zituen lanetan ziharduten, etxeke lanetan batik bat.

A.-ren ustetan, emakumeek askoz ere arrisku handiagoa dute sexu abusuak edota sexu eskaerak sufritzeko. Gizonezkoek ez dute honelako arazorik izaten, ez dira prostituitzen, eta oro har, gehiago zainduta daudela uste du.

Aipagarria da A.-k bezero batekin sufritu zuen kasu bat. Errenterian 65 urteko gizonezko batentzat lan egiten zuenean, sexu-mesedeak eskatzen zizkion edota askotan A. ukitzen saiatzen zen. A.-k bizi izandako egoera, gizonezko bati inoiz ez zaiola gertatuko adierazten du. Gizarte zerbitzuetara joan zenean egoera salatzeraz, ez zioten jaramonik egin eta berak dirua irabaztearren, gizon horren etxean zuen egoera jasan beharra izaten zuen.

Jakin behar da ordea, A.-rentzat bereziki gogorra izan zela txikitari jasan izan zituen sexu abusuen ondorioz zeren modu batean egoera berbera berriro bizitzea zen. Honen ondorioz, psikologoarengana berriro itzuli beharra izan du. A.-k negar asko egiten zuela esaten du, eta egoerarekin nazkatuta etxe hori uztea erabaki zuen. Administrazio publikoen aldetik, laguntza falta izugarria sumatu zuen sexu eskaeren inguruko arazoetan, etorkinak oso abandonatuta daudela sentitzen du. Gainera, egoera hauek salatzeraz joanez gero, poliziek egoera asmatzen ari direla pentsatzen dutenaren sentsazioa ematen dio. Berak alde egitea lortu zuen arren, baditu ezagunak non zaintzen dituzten adinekoekin prostituitu beharra izan duten, dirurik gabe ez gelditzeko.

Poliziak etorkinak harrapatu nahi izana asko kritikatzeko du, egoera jakin batetik ihes egin nahi izan duten pertsonak direla nabarmenduz. Geriatrian lan egiten duten etorkinek, adineko pertsona askori lagundu eta bizitza nolabait konpondu diotela dio, eta hau errekonozitu beharra dagoela. “Creo que el tema de las trabajadoras del hogar es un maltrato a día de hoy. Yo trabajo en cuatro casas y creo que las condiciones que tiene el gobierno para las empleadas del hogar es un maltrato. Una empleada de hogar no tiene derecho al paro, la cotización es muy baja y para tener una pensión digna tienes que trabajar como mínimo en 4 o 5 casas”

Etxebizitza lortu ahal izateko, ezagunen bitartez mugitu zuela dio. Lehen etxebizitza bere lankide bati alokatuz lortu zuen. Nahiko prozesu erraza izan zen arren, etxebizitzako gastuak ordaintzeko zailtasun ekonomiko handiak izan zituen eta azkenean zorrak izaten amaitu zuen. Ondorioz, etxebizitzaz aldatzea erabaki zuen eta bigarren honetan, bankuari mailegua eskatu behar izan zion ezin baitzuen bere kabuz ordaindu, alokairua oso garestia zelako “nosotros hemos ganado 900€ para pagar el alquiler, todo entero. He estado pagando el alquiler sin comer.”. Urte eta sufrimendu askoren ondoren, duela 4 urte lortu ahal izan du alokairua 200€ ordaintzea. Dirulaguntzen inguruan honela dio: “No es verdad que vivamos de las ayudas nos

ponen más difícil porque somos inmigrantes”. Después de tanto tiempo accedí a una ayuda de 700€ teniendo un alquiler de 900€ ¿y cómo comía?”.

Harritzekoa da A.-k bere seme alabak eskolaratzean gertatutakoa “vine buscando un colegio público para mis hijos. Fuí al Gobierno Vasco y me dijeron que las plazas del colegio público estaban reservadas para los del pueblo, esa fue la contestación. Seguimos con el maltrato a los inmigrantes”

Atzerritarren Barneratze Zentroak zer diren ez daki, baina, adierazten du beldur handia zuela poliziak harrapatu eta bere herrialdera bidaltzeko. Garai hartan, bazekien Donostian poliziak etorkinen bila ibiltzen zirela, hau horrela izanik, beldur handia pasatzen zuen kalera irtetzen zenean.

Integrazio prozesua eta Espainiarekiko espektatibak

A.-rentzat oso oso gogorra izan zen bere familia Nikaraguan uztea, amarekin bizi zen eta harreman oso estua zuten. Berak adierazten duenaren arabera, ondoriozta daiteke orokorrean bere familia guztiarekin harreman paregabea zuela, beraz, erabakia hartzea oso zaila izan zen. Lehenengo urteetan, bere jaioterrira itzuliko zuela pentsatzen zuen, baina azkenean honela izan ez zenez, familiak itzultzeko eskatzen zion. Bisitara joan zenean, adierazten du azken aldia izango balitz bezala besarkatu zituela, oso gogorra egin zitzaion.

Integrazioa ere prozesu gogorra izan zen, nahiz eta gaztelaniarekin ez zuen arazo handirik izan eta jendea saiatu zen berari hizkuntza honetan zuzentzen, euskara EAEko hizkuntza nagusia izateak, zailtasun batzuk sortu zizkion. Lehenengo hilabeteak zailak izan ziren arren, denborarekin euskal kulturara ondo integratzea lortu zuela adierazten du.

Bere seme alabak Euskal Herrian jaiotakoak dira, beraz, hauen integrazioa ona izan dela dio nahiz eta arazotxo batzuk egon diren. Eskolaratzeari dagokionez, lagunak egiterakoan zailtasunik handirik ez dute izan, baina, A.-k esaten du gurasoak etorkinak izatean, baztertuta sentitu izan dela. Adibide gisa, gurasoak ez dituzte ikastolako ekintza batzuetara gonbidatu, hau dela eta, zailagoa izan da sozializatzea.

Jada esan den moduan, integrazioa ona izan den arren, bere seme alabek diskriminazioa sufritu izan dute. Seme alabak euskaldunak dira, hemen jaiotakoak, baina hala eta guztiz

ere, beraien gurasoak etorkinak izateak eragina izan du beraiekiko diskriminazioan. Bere kasuan, ez dira guztiak modu berean sentitu, A.-k kontatzen duenaren arabera, alaba batek besteek baino gehiago sufritu izan du. Honez gain, adierazten du bere ustez diskriminazioa gai tabua dela eta ez dela eskoletan jorratzen.

A.-k bizitako diskriminazioari dagokionez, batez ere eskoletan sentitu izan da diskriminatuta. Bere lehen semea jaio zenean, eskoletan sortzen ziren ekintza desberdinetara ez zuten gonbidatzen “habían episodios que igual los niños tenían actividades, tenían zorionak... y no te decían y luego te enterabas”.

Berak argi zuen EAera iristea eta hemen integratzea ez zela batere erraza izango. Nolabait esatearren, ez zeukan EAE idealizatuta, argi zuen lan gogorra zuela aurretik.

Nikaragua eta Espainiaren arteko desberdintasunei dagokienez, alde handia dagoela ziurtatzen du. A.-ren aburuz, bere jatorrizko herrian bizirautea ezinezkoa da, hain zuzen, diktadura batean bizi direlako. Hau kontuan hartuta, Euskal Herriako bizi maila hobetua da, ekonomia hobetua da, etxebizitza bat edukitzea errazagoa da... Laburbilduz, hemen bizirautea errazagoa da, aukera gehiago suertatzen baitira.

2. ELKARRIZKETATUA: BRASIL

Bigarren elkarrizketatua, G. izena jarriko dioguna, Brasilen, Sao Paulon, jaiotako 41 urteko emakume bat da. G.-ren kasuan ere, familiarren bitartez lortu ahal izan nuen bere kontaktua. Elkarrizketa, lokal batean gauzatu zen, honela, posible izan zen bere intimitatea bermatzea, inor elkarrizketa entzuteko gai izan gabe. Oso emakume jatorra da eta interes handiz kontatu dizkit bere bizipenak. Gainera, oso eroso sentitu zela esan zidan, bere esanetan, elkarrizketa egokia izan zen, pertsonalegia izan gabe, honek, ahalbidetu zion lasaiago hitz egitea.

Espainiara etortzeko ibilbidea ez zuen bakarrik hasi, 23 urte zituela bere senar ohiarekin etorri baitzen. Gaur egun, dibortziatuta dago, baina bere bikotearekin eta 20 urteko alabarekin bizi da. Migrazio prozesua duela 19 urte hasi zuen eta ordutik, EAEn bizi izan da, zehazki, Gipuzkoako 3 leku desberdinetan. Lehenik eta behin, Deban bizi izan zen urte askoz, eta ondoren Mutrikura joan zen bizitzera. Gaur egun, ordea Gipuzkoako herri batean bizi da, baina noski, bere intimitatea babesteko, ez da herri honen izenik

emango. Bere ikasketei dagokienez, batxilergora arte ikasi zuen bere jaioterrian, baina ez du goi mailako ikasketarik gauzatu.

Migrazio-prozesua

Sao Paulon bizi zuen egoerari buruz galdetzean, berak dio ondo bizi zirela, klase ertaineko familia bat zirela eta ez zutela zailtasun berezirik, hots, ez ziren familia txiro bat. Hala eta guztiz ere, bertako egoera asko aldatu dela dio, gaur egun, pobrezia asko hazi dela. G.-ren helburua ez da inoiz izan Brasiletik alde egitea, bera oporretan turista gisa etorri zen Espainia bisitatzera. Bere koinata ohia Euskal Herrian bizi zen, eta oso ondo hitz egin zion lurraldeaz. Lehenik ordea, bere senar ohia etorri zen eta ondoren, G.-k jarraitu zion bere alabarekin, azken hau Brasilen jaio baitzen. Zehazki, 6 hilabete pasatzeko asmoz etorri ziren, baina gero asko gustatu zitzaenez, hemen bizitzen gelditzeko erabakia hartu zuten. Euskal Herrira abentura bat bizitzera etorri zen, oso gaztea zen eta Espainia Europan dagoenez, G.-rentzat oso eroso eta askoz merkeagoa zen edozein lekutara bidaiatzea. Bere emigratzeko arrazoia oso bestelakoa da, ez baitzen etorri pobreziatik ihes egiteko.

Elkarrizketatuak kontatzen du, hizkuntza muga bat izan zela. Hegazkinetik jaitsi orduko, Brasilekiko klima eta hizkuntza guztiz desberdinak zirela konturatzean, orduan ohartu zen benetan beste herrialde batean zegoela. Hizkuntzari dagokionez, hasieran oso zaila egin zitzaion. Deban ezagun asko zituen gaztelaniaz hitz egiten ziotenak, eta ikasten joateko, liburuak irakurri edota telebista gaztelaniaz entzuten zuen. Hasierako urteetan ezin izan zuenez lan egin, etxean egon behar izaten zuen eta hizkuntzak ikasteari ekin zion. Egoera hau oso zaila egin zitzaiola kontatzen du: “los primeros años fueron para mi muy asustadores, salía a la calle y no conocía a nadie”.

Noski, Brasiletik hegazkin bidez etorri zen eta ez zuen zailtasun handiegirik izan mugak igarotzeko. Baldintza bakarra diru kopuru jakin bat edukitzea zen, diru horrekin Espainian bizi ahal izango zirela suposatzen baita. Oroitzen duenaren arabera, 10.000€-15.000€ inguruko kopuruaz ariko ginateke. Bere kasuan, alabaren izebak Euskal Herrian bizitzeak erraztu egin zion mugak igarotzeko prozesua, mugetan ea Espainian familiarik ba al zuen galdetzen baitzioten. Orokorrean, ibilbidea nahiko erraza izan zela ondoriozta daiteke.

EAera etorri eta lehen egunak nahiz hilabeteak oso gogorrak egin zitzaizkion. Honi, lehen aipatu dudan moduan, hizkuntzaren faktorea gehitu behar zaio. Hau dela eta, libreta batean, oinarrizko hitzak eta izenak apuntatzen zituen, ondoren horren laguntzaz erosketak egin ahal izateko. Jendeak emandako tratuari dagokionez, denetik egon zela dio. Jendeak estereotipoak zituela ikus daiteke, izan ere, G.-k kontaktzen du herritar batzuk brasildarrak prostituitzera etortzen zirela pentsatzen zutela. Hala eta guztiz ere, oro har, Euskal Herriarekiko izan zuen lehen inpresioa nahiko positiboa izan zen.

Brasildar etorkinen kasuan, G.-k ez zuen generoaren artean aldaketa handiegirik nabaritu, etorri berri ziren etorkin guztiak egoera berean zeudela iruditzen zaio. Hala eta guztiz ere, bere esperientziaren arabera, emakumeek gizonek baino lan gehiago egin behar dute, hau da, gizonek pare bat ordu lan eginda nahikoa da eta emakumeak aldiz, gehiago saiatu behar dira diru gehiago lortzeko.

Egoera administratiboa

Espainiara sartzean, G. turista gisa sartu zen, hain zuzen, Brasiletik 6 hilabetez egon ahal baitzuen modu legalean. Denbora hau igaro ondoren, modu irregularrean egotera pasa zen. Egoera administratiboa legeztazeari dagokionez, Debako G.-ren auzokide batek udaletxean egiten zuen lan eta, udaletxean bertan lan poltsa bat zegoen enplegu desberdinekin. Auzokide eta lagun honek beraz, lan poltsa honetan sartu zuen, lana lortu zuen eta ondorioz, Debako udaletxeak paperak egin zizkion lurraldean modu legalean egon zedin. Garai horretan, G.-k kontaktzen duenaren arabera, 10 etorkin emakume kontratatu zituen udaletxeak. Beraz, berarentzat nahiko prozesu erraza izan zen nahiz eta paperak egiteak kostu ekonomiko izugarria suposatu zion. Izan ere, Brasiletik eskatu behar izan zituen dokumentu guztiak, eta hau oso garestia zen. Aipagarria da ordea, urtebete behar izan zuela, Euskal Herrian legalki egoteko paperak egiteko, denbora honek suposatzen duen sufrimenduarekin.

Urtebete honetan zehar ordea, G. ez zen geldirik egon. Enplegu ilegal ezberdin askotan jardun zuen lanean, goizeko lauretan jaikitzen zen eta gaueko hamabietan oheratzen zen. Honi gehitu behar zaio bere alaba oso txikia zela, eta umea zaintzeko laguntza zuen arren, beharrezkoa zela lanordu hauek egitea, dirua lortu ahal izateko. Garbiketa lanetan ere jardun zuen, zehazki, Debako enpresa batean. Enpresa honek bere langile etorkinak

esplotatzen zituen, bazekiten modu irregularrean zeudela eta lan baldintza horiek onartzea besterik ez zitzaiela gelditzen.

Bere egoera administratiboa legezkatzen lagundu ziotenen artean, bere auzokidea, gizarte laguntzaile bat eta abokatu bat zeuden. Lehenago aipatutako moduan, auzokideak lan poltsan sartzen lagundu zion, baina profesional baten laguntza beharrezkoa zuen. Hau dela eta, Debako gizarte zerbitzuetara jo zuen eta hauek asko lagundu zioten, izan ere, bera egoera bereziki txarrean aurkitzen zen. Hain zuzen, bere senar ohiaren aldetik genero indarkeria jasan zuen eta arrazoi honengatik, arreta nahiz laguntza handia eman zioten “en esta epoca yo tuve un problema con mi ex marido, sufrí malos tratos y entonces me acogieron bien”.

Enpleguarekin, etxebizitzarekin eta ekonomiarekin lotutako gaiak

G.-ren lehen lana eta noski ilegala, enpresa bat garbitzea izan zen, hasiera batean goizeko zortzietatik arratsaldeko lauretara izango zela hitzeman ziotelarik. Lanean hasteko eguna iritsi zenean ordea, goizeko lauretan deitu zioten esanez lanera joan behar zuela, berak ez zuen ezer ulertzen. Engainatu egin zioten, esan ez zioten leku desberdinetara joan behar izaten zuen autoz. Uneren batean jateko edo alabari deitzeko tartetxoren bat hartzen bazuen, enpresako nagusia haserretu egiten zen. Honez gain, ez zuen inolako atsedenaldirik. Engainua gehienbat ordutegiarekin gertatu zen, goizeko lauretatik gaueko hamaikak arte lan egiten zuela adieraziz. Kiroldegiren bat garbitzea tokatzen baldin bazitzaien, are eta beranduago amaitzen zuen, goizaldeko ordubiak arte lan egitera ere heldu izan da. Honen ondorioz, askotan etxera eguerdiko ordubatean iristen zen, ia egun osoa lanean jardun ondoren. Hau gutxi balitz, orduko 10€ kobratuko zutela agindu ondoren, hilaren bukaeran orduko 7€ ordaintzen zietela esaten du, nagusiaren ustez nahikoa zelako. Enpresa honetan esplotatu egiten zutela ohartzean, Debako jatetxe batera joan zen. Honez gain, modu ilegalean etxe asko garbitu ditu eta sukaldariaren laguntzailea ere izan da.

Lan munduan generoaren artean desberdintasunik aurkitzen duen ala ez galdetzean, G.-k dio emakumeen garbiketa bezalako lanetan edo adineko pertsonak zaintzen dihardutela. Aitzitik, gizonak aukera gehiago dituztela iruditzen zaio eta emakumeek noski aukera gutxiago. Honen harira, bere kasu pertsonal bat kontatzen du; Debara iritsi zenean, jada aipatu den moduan, prostituzioa gauzatzeko etorri zela zioen jendeak.

Baina hau noski ez zen horrela, oportetara etorri baitzen. Senarrarengandik dibortziatu zenean, zurrumurru hauek areagotu egin ziren: “cuando te veían con un zapato mejor te decían que te estabas prostituyendo. Una vez fuimos a la piscina y cuando terminamos la clase, teníamos el pelo mojado y decían que nos estábamos prostituyendo lavando a las niñas”. Egoera hau oso gogorra izan zen beretzat, depresioan erori zen. Bere ezagunak zirenak, jada ez zuten nahi ezer jakin, kalean zer aurkituko zuen beldurra zuen. Edozer gauza erosteko beldur zen, jendeak berriro prostituzioaren gaia aterako zuelakoan.

Etxebizitza baten bila zebilela, (une honetan, oraindik bere senar ohiarekin Deban bizi zen), ezagunak ziren bikote batek utzi zieten etxea G.-ri, alabari eta senar ohiari. Etxebizitza bat alokatzeko, modu legalean egon gabe, burokrazia handia suposatzen zuen. Hau dela eta, bikote ezagunak laguntzeko asmoz, dokumentu gutxiagorekin alokatu zieten etxea. Prozesu hau erraza izan zen, arrazoia ondorengo zelarik: “aquí tenía la presencia de un hombre”.

Behin dibortziatu zenean ordea, etxe bat aurkitzeko prozesua asko zaildu zitzaion. Elkarrizketatua une hartan modu irregularrean aurkitzen zen eta ama ezkongabea zen, honela egoera are eta gehiago zaildu zitzaiolarik. Ez zuen dirurik etxe bat mantentzeko, hau dela eta, etxebizitza partekatu beharra izan zuten G.-k eta bere alabak, ezagutzen ez zituzten beste 4 edo 5 pertsonekin.

Atzerritarren Barneratze Zentroak zer diren ez daki, baina, beldur zela dio poliziak harrapatu eta Brasilerara deportatzeko. Donostian eta Bilbon polizia etorkinen bila ibiltzen zela dio eta honek beldur handia ematen zion.

Integrazio prozesua eta Espainiarekiko espektatibak

G.-ren kasuan ez zen batere zaila izan familia Sao Paulon uztea, “yo vine como una feliciana”, bera pozik zegoen Espainiarantz bidaitu behar zuelako, gaztea zen, 23 urte zituen eta leku berri bat ezagutzeko asmoz etorri zen, 6 hilabetez egon ondoren, bere herrialdera itzuliko zela pentsatuz. Familiarentzat aldiz, zailagoa izan zen zeren bera hegazkinez Madrilera iritsi baino egun bat lehenago, Madrileko metroan bonba batek eztanda egin zuen, 11M atentatua gertatu zen. Logikoki, familia oso beldurtuta zegoen eta Brasilerara itzultzeko esan zioten, baina G.-ren nahia EAEn gelditzea zen.

Nahiz eta aurrerago aipatu den, G.-rentzat integratzeko erronka nagusia hizkuntza izan zen, batik bat euskara. Hona iristean, ez zekien zein hizkuntza zen. Hau dela eta, pixkanaka-pixkanaka ikasten joateko irakurri egiten zuen eta euskaltegiara ere apuntatu zen. Hala eta guztiz ere, oso zaila egin zitzaion euskara ikastea “no me entraba”. Hala ere, esan beharra dago, nahiz eta erronka handia izan zen, ondo egokitu zela bai herrialdera eta bai eta hizkuntzara ere.

Debara iritsi zenean, lehenik, brasildarrak ezagutu zituen “¿sabes que pasa? que cuando tu eres brasileña, no puedes ser amiga de una vasca. Tú tienes tu cuadrilla y ahí no puede entrar una brasileña”. Hasieran beraz, gogorra egin zitzaion euskaldun jendea ezagutzea, diskriminazioa bizi izan zuela argi eta garbi ikusten da bere hitzetan. Gaur egun, lagun euskaldun asko ditu, baina garai hartan ezin izan zuen bertako jendearekin asko harremandu.

Bere alabarentzako integrazioa oso gogorra izan zen. Etorkina izategatik, ez zen integratzen, beti bakarrik egoten zen eta beste umeek ez zioten jaramonik egiten, beraz, gizarte laguntzaile bat jarri behar izan zioten. Honela kontatzen du G.-k: “Había madres que no le dejaban a sus hijos andar con ella, entonces pasó muchos años teniendo a la educadora para adaptarse”. Hemen ikus daitekeenez, behin eta berriro diskriminazioa ageri da, bai umeen aldetik bai eta gurasoen aldetik ere. G.-ren kasuan, diskriminazioa jasan duela baieztatu du, “no me trataban muy bien. Me decían, ¿por qué vienes aquí? Si aquí nosotros no queremos a más inmigrantes.”

Nazionalitatearen arabera, batzuentzat integratzea askoz ere errazagoa dela baieztatzen du. Honez gain, azal kolorearen arabera ere aldea dagoela dio. Berak lagun alemaniarrek ditu, eta hauen kasuan, integratzea oso erraza izan zen. Hau da, europarren integratzeko prozesua askoz ere errazagoa da. Aldiz, G.-k dio marokoarren kasuan ere, oso gogorra dela migrazio nahiz integrazio prozesua. Latinoamerikarren kasuan, hizkuntzagatik errazagoa izan daitekeela iruditzen zaio.

Euskal Herriari buruz zituen espektatibak oso onak ziren, inpresio oso ona izan zuen. Gaur egun, EAEn bizi maila hobetua da, mugikor bat erostea nahi izanez gero, ahal du. Aldiz, Sao Paulon ezinezkoa litzateke, han askoz ere garestiagoak baitira, hango diruak ez du baliorik. Gaur egun, egoera ekonomikoa askoz baxuagoa da eta pobrezia handiagoa dago. Gero eta auzo marjinalago nahiz txiroago daude, eta bertakoek

bizirauteko lapurretak ala hilketak gauzatzen dituzte. Sao Paulo bi zati nagusitan banatzen da, alde batetik oso jende aberatsa bizi den zona legoke, eta bestalde, oso jende txiroa bizi den gunea. Han argi eta garbi ikusten da bakoitzak ze maila ekonomiko duen. EAEn aldiz ez da nabaritzen etxeak nahiko berdinak direlako.

Brasil eta Espainiaren artean alde handia dagoela dio, batez ere, osasunean, hezkuntzan eta ekonomian antzematen ditu aldaketak. EAEn medikuarengana hitzordu baten bitartez joan daiteke, baina, Brasilen goizeko hiruretan jaiki behar da, ondoren eguerdiko hamabietan kasu egiteko. Oro har, desberdintasun handia dago bi herrialdeen artean, “tienes que tener mucha pasta (en Brasil) para mas o menos tener la vida de aquí”.

3. ELKARRIZKETATUA: GHANA

Hirugarren elkarrizketatuari L. izena jarriko diogu eta Ghanan jaiotako 31 urteko emakumea da. Kasu honetan, bere kontaktua Arrats txiki txoko elkarteari esker lortu nuen, beraiek izan zirelako korreoa erantzun zidaten bakarrak. Elkarrizketa, Arrats txiki txoko elkarreak duen lokalean gauzatu zen, une horretan gu bakarrik geunden, beraz, intimitatea guztiz errespetatu zen. Gaztelania guztiz ondo ez duenez hitz egiten, ez zen oso erraza izan berarentzat %100 ondo mintzatzea, eta horregatik, zatiren batean ingelesez hitz egin zidan. Hala eta guztiz ere, elkarrizketa gustatu zitzaioala adierazi zidan.

Espainiara etortzeko bidaia 2020an hasi zuen, zehatz-mehatz, duela 2 urte eta 2 hilabete. Gaur egun, bere senarrarekin ezkondua dago eta seme txiki bat du. Zehazki, pandemia hasi zen urtean etorri zen hona, eta zuzenean, Donostiaren inguruan dagoen herri batera etorri zen bizitzera. Beraz, Gipuzkoako herri bakarrean bizi izan da etorri zenetik. Beste elkarrizketatuekin egin den moduan, bere intimitatea gordetzeko eta herria ez lokalizatzeko, ez da herriaren izenik emango. Ikasketa mailari dagokionez, Ghanan bertan Turismoko lizentzia nahiz diploma atera zituen.

Migrazio-prozesua

Bere herrialdeko egoera ona zela dio, nahiz eta Ghanan pobrezia dagoela adierazi, migrazio prozesuari ekin zionean, lanpostu ona zuen, banku batean egiten zuen lan, eta diru sarrera onak zituen. Esan daiteke bizi maila ona zuela eta ez zuela arazo larriegirik.

Bere migratzeko arrazoia, familia berrelkartzea izan zen. Bere senarra, Euskal Herrian bizi zen duela 12 urtetatik, hemen egiten zuen lan eta noski, oso zaila egiten zitzaion senarra hain urruti bizitzea. Hau honela izanik, Ghanako lanpostua nahiz bere bizitza osoa uztea erabaki zuen bere senarrarengana etortzeko.

L. Ghanatik hegazkinez etorri zen, bere egoera berean zegoen beste emakume etorkin batekin, oraindik bere semea jaio gabe zegoen. Honako hau, datu harrigarria izan daiteke. Lanean zehar aipatu izan den moduan, afrikarrak pateretan etortzen direnaren pertzepzioa dugu herritarrok, baina hau ez da L.-ren errealitatea. Hala eta guztiz ere, baditu ezagunak pateretan etorri izan direnak. Oso egoera zaila dela dio, basamortutik Libiaraino oinez joan behar izaten dutela kontatzen du, egunak edo asteak jan eta edan gabe irauten dituztelarik. Behin Libiara iritsita, hemen, aurretik prestatuta egoten den itsasontzi txiki moduko bat hartzen dute. Oso arriskutsua da, batzuetan itsasontzi hau irauli egiten da eta jendea itotzen da.

Mafiengatik galdetzean honakoa dio “hay gente que dice que ahí (en España) hay un trabajo, que todo está bien, y luego es mentira”. Engainua oso presente dago afrikar etorkinen kasuan, pertsona batek hitzematen die helmugako herrialdean lana emango dietela, bizitza maila hobea izango dutela. Honetarako, etorkinek diru asko ordaintzen diete, baina, behin helmugara iritsita, ohartzen dira iruzurra besterik ez zela.

Honako hau, bere senarraren kasua izan zen, modu ilegalean sartu zen Espainian hegazkinaren bitartez. Zehazki, bere senarra eta beste hainbat gizon engainatu zituzten. Bakoitzak, 20.000€ inguru ordaindu zuen, baina, berandu ohartu ziren gezurra zela.

L.-ren kasuan, aireportuko kontroletan edota mugetan ez zioten zailtasun berezirik jarri eta ez zioten diru kopuru bat eskatu lurraldera sartzeko. Ghanatik Portugalera iritsi zen hegazkinez eta gero Euskal Herrira iristean, autobusaren bitartez heldu ahal izan zen bere helmugara. Iritsi zenean, hizkuntza izan zen erronka eta zailtasun nagusia. Ez zuen ezer ulertzen, eta ez zuenez gaztelania hitz egiten, laguntza ere ezin zuen eskatu. Honen ondorioz, oso urduri eta beldurtuta sentitzen zela adierazten du.

Elkarrizketatuak Ghanara itzultzeko ez du asmorik, jada hartuta dagoen erabakia baita. Nahiz eta oso gogorra egin zaion Ghanatik joatea, tristura handiz adierazten du bere bizitza jada EAEn eginda dagoela.

Lehen egunetan, laguntza eske gizarte zerbitzuetara eta elizara jo du, baina hala eta guztiz ere, ia laguntzarik ez dagoela behin eta berriz nabarmentzen du. EAera etorri eta lehen egunak nahiz hilabeteak oso gogorak izan ziren, gainera, kontuan hartu behar da iritsi berria zenean pandemiak harrapatu ziola, eta gainerako herritarren moduan etxean konfinatuta egon behar izan zuela. Aipatu bezala, batik bat hizkuntza egin zitzaion oso oso zaila. Nahiz eta bere senarrak gaztelania oso ondo dakien, L.-ri ezin komunikatzeak izugarriko tristura sortzen zion “estaba difícil, todos los días estaba llorando, estaba muy triste”. Honen aurrean, hizkuntza ikastera ikastola batera joan zen eta liburutegira ere joan zen, liburuen bitartez pixkanaka gaztelania ikasten joateko.

L.-k generoaren artean aldaketak nabaritzen ditu, nahiz eta bientzat oso gogorra den, migrazio prozesuaren hasieran gizonezko bat bakarrik baldin badago, emakumeei baino kasu gehiago egiten dietela uste du.

Egoera administratiboa

Espaniara modu legalean sartu zen, EAera etorri baino lehen, bere senarrak paper guztiak aurrez eskatu baitzituen emaztea modu legalean sartu zedin. Zehazki, Ghanako enbaxadari karta bat bidali zion ondoren bisa eskuratu ahal izateko. Modu legalean egoteko paperak eskuratzeak denbora asko daramala dio. Enbaxadara behin eta berriz joan behar izan du dokumentu jakin batzuen eske, elkarrizketak egin behar izan ditu eta galdeketa ugari ere egin dizkiote. Prozesu luzea dela dio, bere kasuan, 6 hilabetez itxaron behar izan zuen. Bere senarraren kasua ordea bestelakoa izan zen. Aurrerago azaldu den moduan, bere senarra modu ilegalean sartu zen, behin hona iristean lanpostu bat izango zuela hitzeman bazioten ere, diru kopuru handi bat ordaindu ondoren, engainatu egin zuten.

Egoera administratiboa legeztatzerako orduan, oso bakarrik sentitu da, ez baitu laguntzarik jaso. Gizarte zerbitzuetan ere laguntzarik jaso ez zuela adierazten du, izan ere, bere senarrak lanpostu bat izatean, laguntzarik ez zieten eman.

Enpleguarekin, etxebizitzarekin eta ekonomiarekin lotutako gaiak

Gaur egun L.-ren egoera bereziki gogorra da. Euskadira iritsi zenetik ez du inongo lanposturik aurkitu. Duela 2 urtetatik langabezia dago, eta hau oso zaila ari da izaten berarentzat. “Es muy difícil, tengo familia a la que ayudar. Solo me espera mejorar la

lengua, aquí no hablan inglés siempre solo español, por eso es difícil”. Hizkuntzaren faktorea askotan aipatzen du, izan ere, egun ez du gaztelania guztiz ondo hitz egiten, eta horrek muga handia suposatzen dio ezin baita berak nahi bezain ondo mintzatu. Ingelesa ezin hobe hitz egiten duen arren, berak dio hemen ez diola balio, guztiok gaztelaniaz nahiz euskaraz hitz egiten dugulako. Lana bilatzen saiatu den arren, inork ez dio ezer eskaini ez eta onartu ere. Lanposturik ezin bilatzeko arrazoietakoa bat, hasiera batean bere haurdunaldia izan zen. Behin semea jaiota ordea, lanbidera jo zuen laguntza eske, baina oraindik ez du ezer topatu.

L.-ren senarra lehen aldiz soldatzailea zen, baina egun fabrika batean egiten du lan. Senarrak lehen aldiz lana topatzeko, ikastaro bat egin behar izan zuen, baina, hala eta guztiz ere, urtebete kosta zitzaion lana bilatzea. Senarraren kasuan, zorionez ez diote inoiz engainatu. Gaur egun, bere diru sarrerei esker bizi dira. Bere soldatarekin gainera, senar emazteen familiei bidaltzen diete diru kopuru bat eta honek egoera are eta gehiago zailtzen du, ezin dutelako diru guztia beraientzat jaso.

L.-ren kasuan, zuzenean bere senarra bizi zen etxera joan zen bizitzera, beraz, etxea alokatzeko orduan ez zuen zailtasunik eduki. Hala ere, etxe-agentziak oso oso garestiak direla dio. Beraien nahia, 3 logelako etxe bat bilatzea zen, baina ordaindu ezin dutenez, 2 logelako etxearekin gelditu behar izan dira. Bere senarraren kasua ordea, bestelakoa izan zen. Hasiera batean, ez zuen etxerik eta kalean bizi zen. Ondoren, etxebizitza partekatzea lortu zuen beste hainbat pertsonekin. L. iritsi zenean ordea, elkarrekin jarri ziren bizitzen.

Osasun zentroarekin esperientzia txarra bizi zuela kontatzen du. “Cuando vine aquí yo no podía hablar bien castellano, y un día no estaba muy bien y fui al ambulatorio. Me dijeron que había que llamar para coger cita, hablaban en castellano y no entendía nada. Estaban buscando a alguien que hablara inglés pero no había nadie. Después me fui a casa.” Bere bizipenaren arabera, gaztelaniaz ulertzen ez zuen arren, inor ez zen saiatzen gaztelaniaz baldin bazen ere poliki hitz egiten, guztiok presaka hitz egiten zietela dio. Honez gain, inork ez zion azalpenik ematen zer egin zezakeen jakiteko, ez zuen ezer ulertzen eta arreta jaso gabe etxera itzuli behar izan zuen.

Integrazio prozesua eta Espainiarekiko espektatibak

L.-rentzat oso zaila izan zen bere familia Ghanan utzita Euskadira etortzea. Bertan ondo bizi zen, bankuan lanpostu on bat zuen eta familiari asko laguntzen zion, hauek zaintzen zituelako. Oso zaila den arren, besterik gelditzen ez zitzaiola dio, bere bizitza duela eta horrekin jarraitu beharra duela. Honako hau tristura handiz kontatzen du. Bere bankuko lana oso gustuko zuela adierazten du, eta orain nahiz eta langabezia egon, etorkizunean garbiketa lanak egiteko aukera besterik ez du ikusten, eta hau ez zaio batere gustatzen. Izan ere, bere jatorrizko lurraldean kualifikazio maila altua duen lanpostu batetik, kualifikazio maila baxua duen lanpostu batera pasa beharko litzateke Euskadin lan egin ahal izateko.

Gure elkarrizketatuarentzat, oso gogorra izan zen integrazio prozesua, oso nahasita sentitzen zen, hizkuntzak egoera erabat zailtzen ziolarik. Ikastola moduko batera joan zen gaztelania ikasteko asmoz, baina hala eta guztiz ere, behin eta berriro nabarmentzen du oso zaila izan zela. Ez zuen ezer ulertzen, ez zekien nora joan laguntza eske, une oro kezkatuta zegoen. Erditza bereziki gogorra egin zitzaion “el día que di a luz estaba llorando porque en mi país hay muchísimos de mi familia que pueden cuidar el niño, pero aquí solo estamos mi marido y yo”. Oso bakarrik sentitzen zen eta honek noski, tristura handia sorrarazten zion.

Bere bizipenetatik diskriminazio handia jasan izan duela hauteman daiteke. Adibide batzuk jartzearen, trenera haur-autoarekin sartzen denean, askotan lekuri ez da egoten eta inork lekua ez ziola uzten adierazten du. Aitzitik, euskalduna baldin bada bere egoeran aurkitzen dena, lekua uzten diote. Honez gain, supermerkatuara joaten denetan ere, zerbait ulertzen ez duenean, inor ez da saiatzen poliki hitz egiten, oso azkar hitz egiten diote eta ez da ezer ulertzeko gai.

Euskal Herrira etorri zenean, hasieran, lurrerantz begira ibiltzen zela kontatzen du, ez zuela burua altxatzen. Beldurra izaten zuen norbaitek zerbait txarra esateko, eta egoera deserosoren bat saihestearren, badaezpada ere ez zion inori aurpegira begiratzen. Kaleetan beldurra pasatzen zuen, norbaitek eskutik heldu eta zerbait txarra egingo ziola pentsatuz.

Nazionalitatearen arabera, integratzerako orduan alde handiagoa dagoela ziurtatzen du. Azal kolorearen arabera nabarmen aldatzen da. Azal kolore zuriko etorkina bada,

hasiera batean hobeto tratatuko dutela sentitzen du, aldiz beltza bada, baztertu egiten dutela.

Oraindik ere, diskriminazio handia sufritzen duela dio. Nabarmentzea gustatuko litzaidakeen esperientzia bat honakoa da: “En el parque mi hijo cogió un balón (de otro niño) para jugar, la madre se lo quitó y limpió el balón”. Hemen argi eta garbi ikusten da zer nolako pentsamenduak ditugun barneratuta. Etorkinekiko diskriminazioa errealitate bat da, eta kasu honetan ikus daitekeen moduan, zoritxarrez oraindik ere gertatzen den zerbait da.

Espainiaren zituen espektatibak paregabeak ziren, Espainian bizitza askoz ere errazagoa izango zela pentsatzen zuen, bere ezagunek ere horrela saltzen ziotelako. Hona iritsi zenean ordea, bere espektatibak bertan behera gelditu ziren “pensaba que esto sería como el cielo, todo fácil. No sabía que habría una lengua y un clima que no podría soportar, aquí cada vez tengo catarro y tos porque el clima es muy diferente. Si supiera que iba a ser así no vendría”. Uste zuen ingelesa jakitea nahikoa izango zela lana erraz bilatzeko, baina oker zegoen. Bere senarrari ere gauza bera gertatu zitzaion; esan bezala, beste etorkin batzuekin batera etorri zen eta hauek Italiara joatea erabaki zuten. L.-ren senarrak ordea, uste zuen Italiako bizitza zailagoa izango zela eta Espainiaranzko bidaia hasi zuen arrazoi horrengatik.

Klima, hizkuntza, kultura eta jendea dira Ghana eta Espainiaren artean topatzen dituen desberdintasunik handienak. “En mi país el 80% de la gente no es como aquí que están muy cerrados y no quieren hablar con nadie. En mi país cada persona que pasa va a hablar contigo, son muy amables”. Bere ustez, euskaldunek etorkinekiko duten jarrera oso itxia da, ez dira gehiegi saiatzen komunikatzen eta L.-ren ustetan, azal beltzekoa izatean gehiago zailtzen du egoera.

Orain, integratuago dagoela sentitzen du batik bat gaztelania gehiago hitz egiten duelako. Hizkuntza zenbat eta gehiago kontrolatu, errazagoa izango dela iruditzen zaio. Gaztelaniarekin ezin ondo adierazteak kalte egiten dio, izan ere, jende desatseginarekin topo egin izan duenean, ezin izan du bere burua defendatu. Arrazoi honengatik, asko kostatu zaio lagunak egitea.

4. ELKARRIZKETATUEN BIZIPENEN ALDERAKETA

Aurreko atalean hiru elkarrizketen emaitzak ikusi ondoren, hiru bizitza istorioen alderaketari ekingo diogu, elkarren artean dauden alde nagusiak ikusteko. Honekin, nazionalitatearen eta kasuaren arabera, zer nolako desberdintasunekin aurkitu al garen ikusiko dugu. Alderaketak egiteko, elkarrizketetan erabili diren aldagai berdinetan zentratuko gara.

Egoera soziodemografikoa

Nikaraguako eta Brasileko bi emakumeak oso gazteak zirela (lehenak 17 urte eta bigarrenak 23 urte) immigratu zuten Euskal Autonomia Erkidegora, eta 18 eta 19 urte daramatzate hemen bizitzen. Ghanako emakumearen egoera aldiz desberdina da, nagusiago zela etorri baitzen, zehazki, 30 urterekin eta 2 urte eta 2 hilabete soilik daramatza EAEn bizitzen. Honez gain, hirurek seme alabak dituzte eta ezkontuta daude (Brasildarra ezkontzear dago). Hiruren kasuan, migratze prozesua hasi zutenetik, EAEn soilik bizi izan dira, zehazki, lehen bi emakumeen kasuan bakoitza 3 aldiz mugitu behar izan da bizilekuz, eta Ghanakoaren kasuan, etorri zenetik herri berean bizi izan da. Ikasketa mailari erreparatuz, hiru emakumeek batxilergora arte ikasi dute eta Nikaraguakoaren eta Ghanakoaren kasuan, goi mailako ikasketak gauzatu dituzte, beraz, akademikoki oso ondo prestatuta dauden emakumeak dira.

Migrazio-prozesua

Beraien herrialdeko egoerari dagokionez, Brasildarraren eta Ghanakoaren kasua antzekoa da. Biek garai horretan ondo bizi zirela diote, lehena klase ertaineko familia batekoa zen eta bizi baldintza onak zituen. Bigarrena aldiz, nahiz eta bere herrialdean pobrezia dagoela adierazten duen, immigratzea erabaki zuen garaian lanpostu ona zuenez, bizi maila ona zuela esan daiteke. Nikaraguarraren kasua ordea oso ezberdina da. Izan ere, bere herrialdean diktadura baten menpean bizi dira eta pobrezia handiko lekua da. Bertan bizi diren emakumeek ez dute ikasketetarako ez eta arlo profesionalerako aukerarik ez eta aspiraziorik ere, emakumeak ama izateko soilik prestatzen baitituzte.

Immigratzeko arrazoia hiru etorkinen kasuan oso bestelakoa da. Nikaraguakoaren kasua oso gogorra da, izan ere, umea zela sexu abusuak jasan zituen bere amaren bikote baten

aldetik, honek bizitza guztirako trauma bat sortu ziolarik. Hau gertatu ondoren, pertsona honengandik eta herrialdean pairatzen zuten pobreziatik ihes egitea zen bere nahi nagusia. Baliabide ekonomikorik ez zuten arren, bere amak alabari gertatu zitzaiona ikusita, etxea hipotekatu zuen, zeukan ia diru kopuru guztia alabari eta alabaren bikoteari utziz, hauek immigratu zezaten.

Brasildar emakumea Euskal Herrira turista gisa etorri zen oporraldi batzuk pasatzeko asmotan, bera bizi zen lekuan ez zegoen pobrezia nabarmenik, beraz, hau ez zen immigratzeko arrazoi bat izan, ezta gutxiagorik ere. Lehendik bere senar ohia etorri zen, eta honek animatu zuen EAE ezagutzera. Asko gustatu zitzaien herrialdea, eroso eta askoz merkeagoa iruditu zitzaion eta bidaiatzeko erraztasunak ematen zizkion (kontuan hartu behar da gaztea zela eta Brasiletik bidaiatzea askoz ere garestiagoa zela lurraldearen kokapenagatik).

Ghanako etorkina aldiz, familia berrelkartzeko asmoz etorri zen EAera bizitzera. Bere gizonak 10 bat urte zeramatzan lurraldean bizitzen, eta oso zaila zen bikotea ikusi ezinik egotea. Hau dela eta, modu batean jada eginda zeukan bizitza osoa uztea erabaki zuen, senarrarekin berrelkartzeko eta familia osatzeko. Aipatzekoa da, Nikaraguako eta Brasileko emakumeen kasuan, biek beraien herrialdera itzultzeko asmoa zutela. Nikaraguakoak Euskal Herrian 3 bat urtez egotea espero zuten eta brasildarrak berriz, 6 hilabeteko oporraldiak igaro ondoren itzuliko zela pentsatzen zuen. Hemen, Ghanakoren kasua desberdina da, izan ere, berak argi eta garbi dauka hemen geratuko dela, erabakia hartuta dagoela dio, jada bere bizitza Euskal Herrian dagoela.

Immigrazioaren bidaia, guztien kasuan antzekoa da. Hirurak hegazkinez etorri ziren EAera eta ez zuten zailtasun handiegirik topatu mugan edota aireportuetako kontroletan. Brasildarraren nahiz Nikaraguakoaren kasuan, biek diru kopuru bat aurkeztu behar izan zuten kontroletan, baina, honez gain, bidaia nahiko erraza izan zela diote.

Ghanako emakumea hegazkinez etorri zen arren, nabarmentzekoa da bere ezagun batzuen nahiz bere senarraren kasua. Bere senarrak bizi izandakoa, oso bestelakoa da hiru emakume hauengandik. Hegazkinez etorri bazen ere, (askotan pentsatu ohi da afrikar oro pateretan etortzen dela) pertsona batek berari eta beste etorkin talde bati helmugako herrialdean lana emango zietela hitzeman zien, bizitza maila hobetuz.

izango zutela aginduz. Honetarako, pertsona honi bakoitzak 20.000€ inguru ordaindu zioten, baina, behin helmugara iritsita, iruzurra besterik ez zela ohartu ziren. Honekin ikusten dugu, afrikarren kasuan engainua existitzen dela eta balitekeela mafien kasua errealitatea izatea. Ghanako emakumeak ezagutzen ditu pateretan etorri izan diren pertsonak. Hauek basamortutik Libiaraino oinez joan behar izaten dute, egunak edo asteak jan eta edan gabe irauten dituztelarik. Behin Libiara iritsita, hemen, aurretik prestatuta egoten den itsasontzi txiki moduko bat hartzen dute. Noski, hau guztiz arriskutsua da, itsasoan hil ahal direlako.

Euskadira heldu eta lehen egunak nahiz hilabeteak erabat gogorrek direla adierazi didate hiru etorkinek. Ghanakoaren nahiz brasildarraren kasuan, hizkuntza muga nabarmena izan zen. Ez zekiten ezer gaztelaniaz, eta honek inpotentzia nahiz tristura handia sortzen zieten. Oso galdua eta nahasita sentitzen ziren. Hau gutxi balitz, Ghanako emakumea pandemia garaian etorri zen, eta EAera iritsi berri zela itxialdia suertatu zitzaiola kontuan hartu behar da, noski, honek bere immigrazio prozesua asko zaildu zuelako. Honi gehitu behar zaio, beraien jaioterriko nahiz Euskal Herriko klimak oso ezberdinak direla, Ghanakoarentzat gainera, kultura aldaketa talka handia izan zen. Bere esanetan, euskaldunak oso hotzak dira, eta Ghanakoak aldiz, gertukoagoak direnez, asko kosta zitzaion nortasun honetara ohitzea.

Brasilekoaren kasuan nabarmentzekoa da, etorri berria zenean jendeak berarekiko zituen aurreiritziak. Herritarrek, brasildarra izanik prostituitzera etorri zela iruzkintzen baitzuten. Hau noski, bereziki gogorra izan zen beretzat. Nikaraguakoarentzat ere, Donostiara etortzea talka bat izan zen; guztia oso handia iruditzen zitzaion, eraikin oso altuak, teknologia ugari... bere jaioterrian inoiz ikusi ez zuena, EAEn topatu zuen.

Hiru emakumeentzat, migrazio prozesuan generoaren artean desberdintasunak daude. Orokorrean, emakumea izateagatik kasu gutxiago egiten dietela adierazi dute, gizonezko etorkinek baino lan gehiago egin behar izaten dutela diru sarrera “duinak” lortzeko, eta egoera administratiboa legeztatzerako orduan, gizonezkoentzat prozesua azkarragoa dela.

Administrazio-egoera

Brasileko eta Nikaraguakoak modu legalen sartu ziren Espainiara, biak turista gisa hilabete kopuru bat egon zitezkeelarik modu legalean. Denbora hau igaro ostean, modu

irregularrean egotera igaro ziren. Hau dela eta, beraien legeztatze prozesuak 6 hilabete iraun zuen, Nikaraguakoari familia batek egin zion lan kontratua eta hemendik lortu ahal izan zuen bizileku-baimena. Honen ostean, beste 6 hilabete behar izan zituen nazionalitatea lortzeko. Bizileku-baimena lortzea nahiko erraza izan zen arren, baimena berritzeko zailtasun handiak izan zituen eta hemen estuasun handiak pasatu zituen. Brasildarraren kasuan, bere auzokide batek lagundu zion udaletxeko lan poltsan sartzen, eta horri esker lortu zuen bizileku-baimena. Ghanakoa, lehen momentutik bisa bidez modu legalean sartu zen Espainiara. Bere senarrak paper guztiak aurrez eskatu zituen emaztea modu legalean sartu zedin. Zehazki, Ghanako enbaxadari karta bat bidali zion, bisa eskuratu ahal izateko. Prozesu hau nahiko luzea izan zen 6 bat hilabete iraun baitzituen.

Gizarte zerbitzuekiko jaso duten arretan, Ghanakoa oso bakarrik sentitu da, ez baitu laguntzarik jaso. Nikaraguakoak aldiz, esperientzia ugari izan ditu bai onak eta bai eta txarrak ere. Errenterian zehazki, dirulaguntza eske joan zenean, gizarte laguntzaile bat bere etxera sartu zen logelaz-logela miatzera, jakiteko ea bere sema alabak zaurgarritasun egoeran aurkitzen ziren. Berak abusu bat izan zela kontatzen du, diskriminatuta eta gutxietsita sentitu zela. Esperientzia hau bizi ondoren, beldurra dio beste edozein gizarte zerbitzutara joateko. Brasildarraren kasua berezia da, zoritxarrez, bere senar ohiaren aldetik genero indarkeria sufritu zuenez, arazo hau zela medio gizarte zerbitzuek laguntza eskaini zioten.

Enpleguarekin, etxebizitzarekin eta ekonomiarekin lotutako gaiak

Ghanako emakumearen kasua, beste biekiko desberdina da, EAera iritsi zenetik langabezia baitago. Brasildarraren eta Nikaraguakoaren enpleguen kasuan, biek engainuak pairatu dituzte; agindutakoa baino diru gutxiago ordaindu diete eta hasieran adierazitako ordutegia aldatu diete, askoz ere ordu gehiago lan egin behar izan dutelarik. AHots, esan daiteke langile gisa esplotatu egin dituztela. Nagusiki, garbiketa eta zaintza lanetan jardun dute, Nikaraguakoa geriatrian espezializatu delarik. Nikaraguakoak bitarteko kasu bat nabarmentzekoa da, izan ere, bezero batek ukitzeak gauzatu baitizkio. Etorrin batzuk ezagutzen ditu non bezeroekin prostituitu behar izan diren diru gehiago lortzeko.

Lan esparruan, generoaren artean aldaketa nabarmenak daudela diote hirurek. Emakumeek aukera gutxiago dituzte lan munduan eta arrisku gehiago dituzte sexu abusuak jasateko. Nikaraguakoak bereziki, sentitzen du poliziarengana joatean emakumeei ez zaiela sinesten. Gainera, emakumeen lanaren inguruan aurreiritzi ugari daudela ikusi dugu. Brasildarrak kontatzen du nola herritarrek pentsatzen zuten hasieratik prostituzioan lan egitera etorri zela. Honi gehitu behar zaio, gure elkarrizketatuak diru gehiago balio zuen arropa edo zapataren batzuk janztean, jendeak prostituitzen ari zelaren zurrumuruak zabaltzen zituela. Hemen ikusten da beraz, askotan emakume etorkinak prostituzioarekin lotzen direla. Egoera hau noski, erabat gogorra izan zen berarentzat azkenerako depresioa eragin ziolarik.

Etxebizitza eskuratzeko modua alokairua izan da hiru etorkinentzat. Ghanakoaren kasua ezberdina da, izan ere, EAera bizitzera etorri zenean, zuzenean bere senarrarekin alokatu zuen etxea. Aipatzekoa da, bere senarra hasieran kalean bizi zela. Besteek ordea, migrazio prozesuaren hasieran, etxebizitza partekatu behar izan dute jende ezezagunekin, hau da, logelak alokatu dituzte. Alokairua oso oso garestia dela diote eta askotan ezin izan diotela honi aurre egin. Garrantzitsua da aipatzea, Nikaraguakoak dioena; etorkinak ez direla dirulaguntzei esker bizi, oso zailak direla hauek lortzea eta askotan, zailtasunak jartzen dizkietela. Aipagarria da ere, brasildarrak bizi izan zuen egoera. Bere senar ohiarengandik dibortziatu zenean, ama ezkongabea izateak asko zaildu zuen etxebizitza bat bilatzea. Hau dela eta, gizonezkoen figura bat ondoan izateak suposa dezakeen pribilegioaz jabetu gaitzke.

Atzerritarren Barneratze Zentroak zer diren ez dakiten arren, behin azaldu ondoren zer diren, guztiek beldur handia zutela diote poliziak harrapatu eta beraien herrialdera deportatzeko. Bazekiten, Donostian eta Bilbon polizia etorkinen bila ibiltzen zela eta honek beldur handia ematen zien.

Integrazio prozesua eta Espainiarekiko espektatibak

Oro har, Euskal Herrian integratzea oso zaila eta gogorra izan da guztientzat. Hizkuntza, (Ghanakoarentzat jendea) kultura eta klima talka handia izan dira. Brasileko emakumearentzat eta Ghanakoarentzat izan dira hizkuntza eta klima bereziki beraien integrazioa gogorra egin dutenak. Oztopo nagusia izan dira, eta gaur egun, Ghanakoak

ez duenez gaztelania ondo menderatzen, kosta egiten zaio oraindik ere integratuta sentitzea. Honek noski, asko gogortzen du herrialdean finkatuta egotea.

Diskriminazio handia sufritu izan dute, brasildarrak kontatzen du nola jendeak ez zuen onartzen. Ghanakoak azal beltzekoa izateagatik eta hizkuntza ondo ez jakiteagatik ere, diskriminazio asko jaso izan du. Metroan, supermerkatuan, parkean... Europar etorkinentzat integrazioa askoz ere errazagoa dela baieztatzen dute hirurek, hau, azal kolorearen ondorio delarik.

Seme alabentzat ere integratzea oso zaila izan da, brasildarraren alabaren kasuan, ikastolan une oro bakarrik egoten zen, ez zuten onartzen etorkina izateagatik eta ondorioz, gizarte laguntzaile bat jarri zioten. Ikusten da nola diskriminazioa umeen aldetik nahiz gurasoen aldetik jaso zuen; guraso batzuek ez zieten uzten beraien seme alabei jolasten, etorkina izateagatik. Honekin ikusten da arazoa etxetik datorrela, eta diskriminazio pentsaera nahiz jokabideak umeek aurrez ikasita dituztela. Nikaraguakoaren seme alaben kasuan, nahiz eta beraiek Euskal Herrian jaiotakoak izan, gurasoak etorkinak direnez, diskriminatuta sentitu dira. Beraz, honekin ondoriozta dezakegu, nahiz eta seme alabak bertakoak izan gurasoak atzerrikoak izateak duen eragina.

Oro har, elkarrizketatuen jatorrizko herrialdeak eta Euskal Herria oso desberdinak direla baieztatzen dute. Batez ere, hezkuntzan, osasunean eta ekonomian ikusten dute alderik handiena, bai eta batzuek hizkuntzan ere, noski. Hemen bizi maila hobetagoa dutela adierazten dute, nahiz eta urte asko kosta zaien puntu honetara iristea. Jatorrizko herrialdeetan erosi ezingo lituzketen materialak (adibidez, mugikorra) EAEn erosteko gai dira. Beraien herrialdeetan pobrezia arazo larri bat da, eta asko nabarmentzen da zein den aberatsa eta zein txiroa. Alde horretatik, Espainian hobeto bizi dira eta aukera gehiago dituztela adierazten dute, batez ere emakumeak izanik aukera gehiago dituzte.

Espektatibei dagokienez, Brasilekoak eta Nikaraguakoak inpresio oso ona izan zuten. Aldiz, Ghanako etorkinak oso inpresio txarra izan zuen, Espainia lurralde perfektu gisa irudikatu zioten eta hau honela ez zela ohartzean, kolpe handia hartu zuen. Bere espektatibak beteko ez zirela jakin izan bazuen, Euskal Herrira ez litzatekeela etorriko adierazi du. Beraz, ondoriozta dezakegu integrazioa oraindik ere oso gogorra ari dela izaten.

5. ONDORIOAK

Alderdi enpirikoan hiru elkarrizketatuen bizipen pertsonalak ezagutu ondoren eta hauen arteko aldeak ikusi ondoren, hainbat ondorio atera daitezke immigranteek duten ibilbide prozesuan Espainiara iristen diren arte.

Ondorio nagusia, beraien ibilbide prozesua eta Espainian aurkitu duten egoera benetan gogorra izan dela da. Lanean zehar aipatzen den moduan, aurreiritzia ugari izan ohi ditugu etorkinen inguruan, eta elkarrizketak egin ostean, ohartu naiz benetan zein gogorra den beraiek bizitzen duten prozesua.

Ikasketa mailak aipatzekoak direla iruditzen zait, izan ere, hirutik bik goi mailako ikasketak dituzte. Brasilekoak batxilergora arte ikasi zuen, Ghanakoak turismoko lizentzia eta diploma ditu eta azkenik, Nikaraguakoak geriatriako profesionala da. Hau dela eta, kualifikazio maila nahiko altua duten emakumeak dira. Askotan, oinarrizko ikasketak soilik dituztela pentsatu ohi dugu, akademikoki ondo prestatu gabeak direla. Aitzitik, ikusi dugu pentsaera hau kontrastatu daitekeela, ez baita elkarrizketatu hauen kasua.

Migrazio prozesuari dagokionez, bereziki harritu didana Nikaraguako emakumearen kasua izan da. Pobrezia ugari bizi zuen bere jatorriko herrialdean, eta emakume gisa bere aukerak oso urriak ziren. Sexu abusuak jasan ondoren erabaki zuen bere herrialdetik ihes egitea, noski gertaera hau inflexio puntu bat izan zelarik. Bereziki gogorra baina aldi berean sendagarria izan da beretzat immigratzea. Honez gain, Brasileko etorkinak genero indarkeria jaso izana ere aipatu beharrekoa da, noski, egoera guztiz okertu baitzion, gainera, depresioa ere sufritu zuen.

Hirurak hegazkinez etorri badira ere, aipagarria da Ghanakoaren senarrak bizi izandako egoera. Engainatu egin zuten diru kopuru oso handi bat ordaindu ondoren, eta enplegu jakin bat edukiko zuela agindu zioten, hau iruzurra zelarik. Immigrazio prozesuari dagokionez, askotan mafien presentzia zalantzan jartzen dugu, eta kasuan, ikusi ahal izan da batzuetan egia dela. Pateren kasua gertutik ezagutu ezin izan dudana arren, jakin ahal izan da afrikar etorkinek, basamortutik oinez joan behar izaten dutela Libiaraino, eta behin hona iristean, itsasontzi txiki bat hartzen dutela. Bidaia hau oso luzea eta arriskutsua da, bidean jende ugari hiltzen da eta jan edota edan gabe bizirauten dute.

Alderdi enpirikoa emakumeetan zentratu denez, generoaren faktorea oso garrantzitsua da. Orokorrean, etorkinentzat eta are gehiago emakumeentzat, oso zaila da immigratzea. Gizon etorkinek baino askoz gehiago saiatu behar izaten dute, lana bilatzeko, egoera administratiboa legezatzeko, etxebizitza lortzeko... Honi gehitu behar zaio emakume etorkinekiko dagoen aurreiritzia, askotan emakume etorkinak eta prostituzioa elkarrekin doazela pentsatu ohi da, baina ikusi da emakume hauen kasuen ez dela horrela. Honek aditzera ematen du emakumeak (eta noski, are gehiago emakume etorkinak) sexualizatu egiten direla, objektu sexual gisa soilik ikusten direla. Errealitatean ordea ez da horrela, beste bizitza mota berri baten bila etorri diren emakumeak besterik ez dira, asko sufritu behar izan duten emakume borrokatzaileak.

Egoera administratiboa legezatzeko prozesua luzea baino “nahiko erraza” izan dela dirudi, bizileku-baimena lortzeko 6 bat hilabete itxaron behar izan zuten, eta honetarako, laguntza izan zuten. Hala eta guztiz ere, bizileku-baimena berritzailean etorri ziren zailtasunak Nikaraguako emakumearentzat. Prozesu hau bereziki gogorra egin zitzaion, ez baitzioten kasurik egiten eta edozein unetan ahal zuen modu irregularrera igaro.

Enpleguaren esparruan, elkarrizketatuen esperientzien ondoren, ikusi dugu emakumeak zaintza lanak gauzatzen dituztela, etxeko lanak edota garbiketa lanak; hau da, kualifikazio maila alturik eskatzen ez dituzten lanak. Hau alde batera utziz, harrigarria egin zitzaidan oraindik Ghanakoa langabezian egotea. Bere senarrak lan egiten duen arren, berak immigratu zuenetik ez da gai izan lana bilatzeko. Beste emakumeen kasuan, kontratatu dituzten nagusien aldetik engainua egon da, batez ere, ordutegian eta soldatan. Hemen ikusten dugu beraz, zein egoera prekariotan lan egiten duten eta nagusi hauek emakume hauekiko zer nolako botere harremana duten.

Guztiek etxebizitzak alokairuaren bitartez eskuratu ahal izan dituzte. Migrazio prozesuaren hasieran ordea, hainbat eta hainbat logela alokatu dituzte. Behin egoera ekonomikoa egonkortzean, beraien intimitatea babestu ahal izan dute, familiarekin soilik bizi ahal izan dutelako. Esparru honetan, dirulaguntzak ez dira bereizgarriak izan, izan ere, gaur egun hiru elkarrizketatuek ez dituzte sekulako laguntzak jaso, beraien kabuz biziraun behar izan dute. Are gehiago, Ghanakoaren senarrak hasiera batean kalean lo egin behar izaten zuen etxerik ez zuelako.

Integrazioa benetan gogorra izan da hirurentzat, eta elkarrizketetan zehar behin eta berriz azpimarratu dute. Hizkuntza muga nagusia izan da Brasilekoaren eta Ghanakoaren kasuan. Honek beraz, oztopo bat suposatu die komunikatzerako eta lana topatzerako unean. Gaur egun, Ghanakoak oraindik zailtasunak dituela adierazten du, oso zaila egiten ari zaiola etengabe aipatzen zuen elkarrizketan zehar.

Integrazio prozesuan nazionalitatearen arabera ezberdintasunak daude, europarrentzat askoz ere errazagoa baita. Azal zuridunak direnek errazagoa dutela diote hiru elkarrizketatuek, azal kolore ilunekoa izanez gero, arazo ugari sortzen baitira, horien artean diskriminazioa, jarraian ikusiko dugun moduan.

Diskriminazioaren gaia kezagarria da, hiru emakumeek sufritu dutela adierazi dute. Nikaraguakoa gizarte zerbitzuen aldetik ere diskriminatuta sentitu izan da. Besteek, kalean pairatu dituzte hainbat egoera: Brasildarraren kasuan, prostituzioa gauzatzen ari zelaren susmoak zabaldu izan dituzte, hain zuzen, brasildarra izateagatik edota diru gehiago balio zuten arropak janzteagatik. Ghanakoaren kasuan, azal koloreagatik diskriminatu izan dute, bere semeari eskuetatik baloia kendu eta hau garbitzera heldu izan da gurasoren bat. Nikaraguakoak eskolan jasandako diskriminazioa ere nabarmentzekoa da, izan ere, bera bizi den herriko ikastola publikoan esan zioten plazak euskaldunentzat soilik jasota zeudela, hots, etorkinentzat ez zegoela lekurik.

Honekin guztiarekin, ondorioztatu dudana da etorkinen ibilbidea oso gogorra dela. Diskriminazio ugari jaso izan dute, eta oraindik jasotzen jarraitzen dute. Jende atsegina topatu duten arren, egoera desatsegin ugari sufritu izan dituzte, eta honek asko adierazten du gizarteak zer nolako ikuspegia duen etorkinekiko.

III. KAPITULUA: EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Azken kapitulu honetan, ikerlaneko marko teorikoa eta alderdi praktikoa aztertu ostean atera diren hainbat ondorio eztabaidatuko dira. Beste modu batera esanda, immigranteen ibilbide prozesuaren teoriak errealitatearekiko zer nolako lotura duen behatuko da. Noski, aipatu beharra dago etorkin bakoitzaren ibilbidea pertsonala eta ezberdina dela eta ezin dela bakoitzaren errealitatea immigrante guztiengana orokortu, baina, ikerlan honetan lortu diren emaitzen arabera jardungo da.

Aurretik aipatutakoaz gain, komunikabideek gizartearengan duten inpaktua zein puntutarainokoa den aztertuko da, etorkinekiko dauden aurreiritziak eta estereotipoak noraino helden diren ikusiko da, hauek errealitatearekin bat datozen ala ez aztertuz.

Azken ondorioak atera ahal izateko, lanean zehar ondorioztatzen joan den puntu garrantzitsuenak nabarmenduko dira. Ikusi den moduan, Espainiara etortzen diren etorkin nagusienak Europar Batasunekoak (%39), Afrikakoak (%23) eta Hego Amerikakoak (%17) dira, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegora helden direnen artean gehienak latinoamerikarrak direlarik. Hau honela izatean, alderdi enpirikoan Hego Amerikako bi emakume eta Afrikako beste bat elkarrizketatu ziren. Europarrik elkarrizketatu ez den arren, nolabait hauen egoera aztertzearen, europarrekiko duten pertzepzioari buruz galdetu zitzaien.

Garraioaldeari dagokionez, immigranteen gehiengoa hegazkinez sartzen da Espainiara. Medioetan agertzen denaren arabera, badirudi gehiengoa pateren bidez sartzen den afrikarrak direla, hau ordea ez dator bat errealitatearekin. Elkarrizketatu diren emakume guztiak ere, hegazkinez heldu dira. Harrigarria izan daiteke hegazkinez sartu den afrikar batekin topo egitea, nik neuk uste bainuen pateraren batean etorriko zela. Hala eta guztiz ere, Ghanako emakumeak ezagutzen ditu pateren bidez etortzen direnak; hauen ibilbidea bereziki gogorra dela ikusi da, basamortutik oinez joaten dira Libiara eta behin hona iristean, segurtasun handiegirik ez duen itsasontzi batean sartzen dira Espainiara iritsiko diren itzaropenarekin.

Immigranteen egoera administratiboa gai eztabaidatsua da, bereziki aurreiritzi asko ditugulako gai honekiko. Pentsatu ohi da etorkin guztiak modu irregularrean daudela, baina hemen ere oker gaudela baieztatu da, 2018an emandako datuen arabera. Alderdi praktikoa baieztatu da (Nikaraguakoaren kasuan) zailtasun gehienak baimenak

berritzean agertzen direla, prozesu hau bereziki luzea eta zaila da, etorkinei ez diete jaramon handirik egiten eta hauek beldur konstantea dute berriro ere modu irregularrera itzultzeko.

Enpleguari dagokionez, teorian nahiz praktikan argi eta garbi ikusi da generoaren arabera enplegu mota aldatzen dela. Gizonezkoek eraikuntza ala nekazaritzan jarduten dute eta emakumeak aldiz zaintza lanetan murgiltzen dira. Elkarriketatutako emakumeek lan mota hauek gauzatzen dituzte, eta nabarmentzeko modukoa da emakumeek arrisku gehiago dituztela lan munduan. Alderdi enpirikoan ikusi da nola Nikaraguakoak bezero baten aldetik abusuak sufritu zituen. Emakume etorkinek dituzten enpleguetan ere estereotipo ugari daude, Brasilekoari adibidez prostituzioan aritzen zela esaten zioten, eta noski hau ez zen horrela. Hemen ondoriozta daiteke nola emakumeak etengabe sexualizatzen diren, objektu sexual gisa ikusten baitira. Beraien gorputza sexu bitartez saltzeko immigratu dutenaren pentsamendua baitago. Orokorrean emakumeak, baina zehazki emakume etorkinak, merkantzia gisa ikusten dira.

Aipagarria da ere enpleguetan sufritzen duten engainua, nagusi askok hitzemandakoa baino gutxiago ordaintzen baitiete eta esplotatu egiten baitituzte. Hauek kontziente dira etorkinek ez dutela bestelako irtenbiderik, eta dirua nahi badute ustiapen baldintza hauek onartzea besterik ez zaiela gelditzen.

Etxebizitzari dagokionez, baieztatu da alderdi enpirikoan, alokairu bidez eskuratzen dituztela. Migrazio prozesuaren hasieran, logelak alokatzen dituzte eta beraien maila ekonomikoa handituz doan heinean, beraien etxebizitza propioa alokatzen dute. Etorkin etxegabeen egoera errealitate bat da, esaterako, Ghanakoaren senarra kalean bizi izan zen logela bat alokatzea lortu zuen arte.

Atzerritarrek Barneratzeko Zentroak zoritxarrez aukera bat dira Espainiara iristen diren etorkin batzuentzat. Ikusi den moduan, bertan barneratzeko hainbat arrazoi daude, baina puntu garrantzitsua zentro hauetan barneratuek sufritzen duten egoera da, bertan etorkinei hainbat oinarritzko eskubide urratzen baitzaizkie. Oro har, bertako zerbitzuak tamalgarriak dira, tratu txarrak ere sufritu dituztela baieztatu daitekeelarik.

Jarraian, zentro hauen erabilerari kritika egitea gustatuko litzaidake. Nire aburuz ez du zentzu handiegirik zentro hauen existentziak, gehiegikeria hutsa direla iruditzen zait. Zentro hauek indarrean egotea, zauri bati tiritu bat jartzearen antzekoa da, immigranteen

errealitatea estaltzea. Badakigu etorkinen sarrerek handiak izaten direla, eta hau gobernuarentzat askotan enbarazua dela. ABZak beraz, aitzakia besterik ez dira ahalik eta etorkin gehien beraien jatorrizko herrialdera bidaltzeko. Gainera, aipatu den moduan, barneratuak egoera tamalgarrian bizi dira, onartezina da instituzio publiko batek pertsona batzuei honelako tratua ematea. Badirudi ahaztu egiten zaiela gizakiak direla.

Informazio honekin guztiarekin ondoriozta dezaket, etorkinek bizitzen duten migrazio prozesua eta Espainian bizi duten integrazio prozesua oso gogorrak direla, inoiz pentsa nezakeena baino gehiago. Beraien bizipenak entzun ondoren, ohartu naiz gaur egun zenbaterainoko diskriminazioa dagoen. Ez nuen pentsatzen oraindik ere jarrera xenofoboak eta arrazistak hain errepikakorrek izango zirenik. Niretzat talka handia izan zen Ghanakoak esan zidanean, bere semeak ume bati hartutako baloia bere muturren aurrean garbitu zutela. Ikusten da oraindik ere lan izugarria dugula egiteko, ez baita logikoa immigranteei honelako errefusa edukitzea. Askotan errefusa hau ezjakintasunetik etor daiteke, baina hau ez da aitzakia beste pertsonetik enpatiarik ez izateko. Ezin daiteke inoiz jakin gure albokoak zer bizi izan duen, beraz, komeni da albokoarekiko errespetu minimoa izatea.

Honen harira, beharrezkoa iruditzen zait azpimarratzea gizonak, zuriak eta europarrak izateak dakartzan pribilegioak. Ezaugarri hauek betetzen dituen pertsona batek, nekez jasango du diskriminazioa. Orduan, zer gertatuko zaio emakumea, beltza eta atzerritarra denari? Lanean zehar behin eta berriz baieztatu da emakumeek sufritzen duten egoera prekariora. Gizonezkoek baino esfortzu handiagoa egin behar dute bizi maila “duin” bat izateko, eta gizonezko baten figura alboan baldin badute, baieztatu izan da adibidez etxe bat alokatzerako unean errazagoa izan dela. Honako hau brasildarraren kasua izan da; hemen matxismoa ageri da. Emakumea, etorkina eta gainera ezkongabea izanez gero, egoera okertu egiten da. Orduan, emakume ezkongabeok ez dugu gizon ezkongabeen balio bera?

Ikerlanean zehar, estereotipo eta aurreiritzi ugari deseraikitzea aberasgarria izan da. Ikuspuntu kritikoa garatu ahal izan dut zenbait pentsaeren aurrean, adibide bat jartzearren, etorkinak dirulaguntzen esker bizi direla pentsatzea ohikoa da. Baina, elkarrizketen ondoren pentsamendu hau desmuntatu ahal izan da. Izan ere, zailtasun handiekin egiten dute topo eta diskriminazioa ere jasotzen dute laguntza eske joatean.

Amaitzeko, aipatu nahiko nuke oraindik lan handia dagoela egiteko. Gizarte bezala pentsamendu arrazista nahiz xenofoboak deseraikitzeari ekin behar diogu. Etorrinek bizi duten egoera ezagutaraztea ezinbestekoa da, immigrazioak sortzen duen deserosotasuna desegiteko. Deserosotasun hau ez dator soilik herritarrengandik, gobernu eta instituzio publikoengandik ere badator, eta honek zer pentsatu ematen du. Hau jakinik, benetako gizarte politikak behar ditugu, etorkinak pertsona gisa ikusten hasi behar dugu, subjektu aktibo gisa. Immigranteak ez dira ikusezinak, beraz, saia gaitezen merezi duten garrantzia ematen. Eta gogora dezagun, inor ez dela ilegala.

ITURRIAK

Azcárraga Monzonís, C. (2014). Centros de internamiento de extranjeros. Principales denuncias y novedades legislativas. *Barataria. Revista Castellano-Manchega De Ciencias Sociales*, (17), 143-163. Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.20932/barataria.v0i17.61>

Bautista, L. (2021eko abuztuaren 12a). “Alertan de una avalancha de cayucos hacia Canarias en octubre”, *ABC Canarias*. Hemen eskuragarri: https://www.abc.es/espana/canarias/abci-alertan-avalancha-cayucos-hacia-canarias-octubre-202108120155_noticia.html?ref=https%3A%2F%2Fwww.google.com%2F

CEAR (2009). *Situación de los Centros de Internamiento para Extranjeros en España*. Informe Técnico en el marco del estudio europeo DEVAS.

CEAR (2016). *Movimientos migratorios en España y Europa*. Ministerio de Empleo y Seguridad Social.

Centro Superior de Estudios de la Defensa Nacional (CESEDEN). (2006). *El control de los flujos migratorios hacia España: Situación actual y propuestas de actuación*. Ministerio de Defensa.

CES (2019). *Informe 02|2019 La inmigración en España: Efectos y oportunidades*. Consejo Económico y Social

Colectivo Ioé y Fernández, M. (2010). *Encuesta Nacional de Inmigrantes 2007: El mercado de trabajo y las redes sociales de los inmigrantes* (24). Ministerio de Trabajo e Inmigración, Observatorio Permanente de Inmigración. Hemen eskuragarri: https://extranjeros.inclusion.gob.es/es/ObservatorioPermanenteInmigracion/Publicacion/es/fichas/publicacion_28.html

Comité Especializado de Inmigración (DSN). (2019). *El fenómeno migratorio en España. Reflexiones desde el ámbito de la Seguridad Nacional*. Ministerio de la Presidencia, Relaciones con las Cortes e Igualdad.

ENI (2008). *Informe Encuesta Nacional de Inmigrantes (ENI – 2007)*.

FRONTEX (Agencia Europea de la Guardia de Fronteras y Costas) (2021). Hemen eskuragarri: <https://frontex.europa.eu/es/>

González Beilfuss, M. (2017). “Los CIE: una realidad controvertida y compleja”. *Anuario CIDOB de la Inmigración*, [en línea], pp. 298-316. Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2017.298>

Gorostiaga, A. eta Balluerka, N. (2007). *Ikerketa metodoak eta diseinuak Psikologian*. Erein.

Ikuspegi -Observatorio Vasco de Inmigración- (2021). *Población de origen extranjero en la CAE 2021* (Panorámica 81).

Leal, J. eta Alguacil, A. (2012). “Vivienda e inmigración: las condiciones y el comportamiento residencial de los inmigrantes en España”. *Anuario CIDOB de la Inmigración*, [en línea], pp. 126-156. Hemen eskuragarri: <https://raco.cat/index.php/AnuarioCIDOBInmigracion/article/view/354080>

Manzanedo, C. eta Izuzquiza, D. (2011). Expulsiones forzosas de España: los Centros de Internamiento de Extranjeros (CIE). *Documentación social. Revista de estudios sociales y de sociología aplicada. Miedo, inseguridad y control social*, (16), 153-172.

Martínez Escamilla, M. (2013). *Mujeres en el CIE. Género, inmigración e internamiento*.

Martínez Escamilla, M. (2016). Centros de internamiento para extranjeros. Estado de la cuestión y perspectivas de futuro. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 18-23, 1-37. Hemen eskuragarri: <http://criminet.ugr.es/recpc/18/recpc18-23.pdf>

Ministerio del Interior (2021). *Informe Quincenal sobre Inmigración Irregular. Datos acumulados desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2021*.

Morán, A. J., García, D. R., & de Lucas, J. (2012). Los Centros de Internamiento para Extranjeros en España: una evaluación crítica / Immigrant Detention Centres in Spain: a critical assessment. *Revista CIDOB d'Afers Internacionals*, (99), 201–220. Hemen eskuragarri: <http://www.jstor.org/stable/41762448>

Ortega Ruiz, M. (2012). Inmigrantes y extranjeros regulares e irregulares en España: una comparativa entre autonomías. *Barataria. Revista Castellano-Manchega De Ciencias Sociales*, (13), 109-125. Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.20932/barataria.v0i13.117>

Pardo G., Engel J.L., Agudo S. (2007). Barreras de acceso al sistema sanitario para inmigrantes subsaharianos. *Medicina General*. (100): 680-4.

Perez, A. (2012) “La evolución reciente de las políticas de control migratorio en España”. En IZQUIERDO, A.; CORNELIUS, W.A. (eds.) Políticas de control migratorio. Barcelona: Edicions Bellaterra, 143-211

Pérez, R. (2021eko urtarrilaren 21a). “La avalancha de pateras desborda a la Policía en Almería” *ABC Andalucía*. Hemen eskuragarri: https://sevilla.abc.es/andalucia/almeria/sevi-avalancha-pateras-desborda-policia-almeria-202101210725_noticia.html

Solanes Corella, A. (2016). Un análisis crítico de los Centros de Internamiento de Extranjeros en España: normativa, realidad y alternativas, *Revista Telemática de Filosofía del Derecho*, (19), 37-76. Hemen eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4040886>

LEGEDIA

Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad. BOE núm. 102, de 29 de abril de 1986, páginas 15207 a 15224 (18 págs.). Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1986-10499>

Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal. BOE núm. 281, de 24/11/1995. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1995-25444>

Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social. BOE núm. 10, de 12/01/2000. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2000-544>

Real Decreto-ley 16/2012, de 20 de abril, de medidas urgentes para garantizar la sostenibilidad del Sistema Nacional de Salud y mejorar la calidad y seguridad de sus prestaciones. BOE núm. 98, de 24 de abril de 2012, páginas 31278 a 31312 (35 págs.). Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2012-5403

Real Decreto-ley 7/2018, de 27 de julio, sobre el acceso universal al Sistema Nacional de Salud. BOE núm. 183, de 30/07/2018. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-10752>

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Elkarrizketa gidoia

I. Características sociodemográficas

1. Edad
2. Nacionalidad
3. ¿Cuánto tiempo llevas viviendo en España? ¿Siempre en el País Vasco?
4. ¿En qué parte de la CAV vives actualmente?
5. Nivel de estudios terminados
6. Estado civil
7. ¿Tienes pareja estable actualmente?
8. ¿Tienes familiares a tu cargo? ¿Cuántos?

II. Proceso de migración

9. ¿Cómo era la situación en tu país y tu pueblo en los años en los que emigraste?
10. ¿Cuándo y cómo tomaste la decisión de venir a España?
11. ¿Qué o quiénes te influyeron para tomar la decisión de irse?
12. ¿Cómo te enteraste del sitio donde fuiste? ¿Había alguien más allí que fuera un contacto?
13. ¿Qué miedos o temores tenías para venir aquí?
14. ¿Con qué medio de transporte viniste a España?
15. ¿Viniste acompañado o solo? ¿Cómo fue el trayecto?
16. ¿Por qué razón decidiste venir a España?
17. ¿Esperabas volver a tu país de origen? ¿Con qué idea inicial viniste? Es decir, ¿tenías pensado quedarte aquí para siempre o de manera provisional?
18. ¿A dónde acudiste por primera vez para buscar ayuda? ¿Siguieron algún protocolo de recibimiento?
19. Primeros días y meses: impresiones, problemas de comunicación, trato con la gente, etc.
20. Si tu idioma es diferente al español:
 - a. ¿Cómo fue adaptarse a un nuevo idioma?
 - b. ¿Con qué dificultades te encontraste?
21. ¿Sientes que haya alguna diferencia en el proceso de migración dependiendo del género?

- a. ¿Sientes que los hombres puedan tener más ventajas, o al contrario las mujeres?

III. Situación administrativa

22. ¿Cómo fue entrar en el país? ¿Entraste de manera legal o ilegal?
23. ¿Cómo fue el proceso de legalizar tu estado administrativo? ¿Y de tu familia?
24. ¿Qué dificultades encontraste tanto para entrar como para conseguir estar legalmente?
25. ¿Tuviste a alguien que te ayudase o te aconsejase en este proceso?
26. ¿Si es que has accedido, cómo ha sido el trato recibido por las autoridades al acceder a los Servicios Sociales?

IV. Cuestiones relacionadas con el empleo, vivienda y economía

27. ¿Cómo fue encontrar empleo por primera vez? ¿Cómo fueron las condiciones?
¿Hubo algún chantaje o engaño?
28. ¿Has trabajado de manera ilegal?
29. ¿Con tus ingresos, ayudas económicamente a familiares?
30. ¿Qué tipo de trabajos realizan las mujeres inmigrantes y los hombres inmigrantes?
¿Qué diferencias crees que hay?
31. ¿Sabes si las mujeres trabajan en peores condiciones que los hombres?
32. ¿Con qué dificultades te encontraste para buscar una vivienda? ¿Te denegaron en algún caso el contrato del alquiler?
33. ¿Cómo fue darte de alta en la seguridad social? ¿Has tenido alguna mala experiencia?

V. Cuestiones relacionadas con Centros de Internamiento de Extranjeros

34. ¿Conoces a alguien que haya estado en un Centro de Internamiento para Extranjeros? ¿Me podrías explicar cómo fue su experiencia?
35. ¿Cuál fue el trato que recibió en el centro?
36. ¿Sabes si se le han vulnerado los derechos fundamentales estando interno (por ejemplo, denegación de la ayuda sanitaria)?
37. ¿Por qué motivo le internaron?

VI. Proceso de integración y expectativas de España

38. ¿Cómo fue dejar atrás el resto de tu familia en tu país de origen?

39. ¿Cómo fue para ti integrarte en un nuevo país, qué supuso para tí? ¿Y para tu familia?
40. ¿Cómo fue la integración para tus hijos?
41. ¿Cómo viviste la escolarización de tus hijos?
 - a. ¿Cómo fue el trato de las escuelas?
 - b. ¿Sufrieron algún tipo de discriminación?
42. ¿Has sentido que la sociedad te haya dado una buena recepción? ¿Te has sentido integrado o al contrario, excluido?
43. ¿Sabes si la integración es más fácil dependiendo de la nacionalidad?
44. ¿Has sufrido discriminación?
45. Actualmente, ¿Qué piensas de los inmigrantes que llegan a España? ¿Crees que sufren racismo o rechazo por parte de los españoles?
46. ¿Qué esperabas encontrar cuando llegaste aquí? ¿Fue una buena o mala sorpresa?
47. ¿Qué diferencias encuentras entre tu país y España?

2. ERANSKINA: Baimen informatuak

[Baimen Informatuak](#) (Esteka honek dokumentura birbideratzen du. Dokumentu honetan, hiru elkarrizketatuen baimen informatuak agertzen dira dagokion sinadura eta baimenarekin)